

JUAN SAN MARTIN

**ANTZINATIK GAUR EGUNERA,
HONDARRIBIA**

© Argitaratzailea: Hondarribiko Udala

© Egilea: Juan San Martín

Fotokonposaketa eta inprimaketa:
antza, s.a.l. • Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Lasarte-Oria

ISBN: 84-932722-1-3

Lege gordailua: SS 0358/03

SARRERA

Hogei urte baino gehiago pasa dira Juan San Martin, zorionez, gure herrira bizitzera etorri zenetik. Beti egin izan duen bezala, bere begirada zorrotza bere inguruan finkatu du. Horrela, ez da harritzekoa gure artean dagoenetik Hondarribiari buruzko hainbat gauza agerian utzi, erakutsi edota sortu izana. Begirada zorrotz horrek ikusitako asko "Hondarribia" aldizkarian plazaratzea eskatu zigun, guztion mesederako. Historia, toponimia, artea, etnografia edo literaturaren inguruan jasotako harri bitxi horiek, Hondarribiari buruz eta aro ezberdinetan zehar idatzitakoekin bilduta, altxor oso bat osatzera iritsi dira San Martinen artikululuak, eta horregatik horiek guztiak liburu honetan jasotzea erabaki du udalak. Herri honek bizitza oso baten begirada ikas dezan.

Hondarribia, 2003ko, Martxoaren 3a

ALKATEA,



Izp.: Borja Jauregi

1.

PALEOLITOS GARAIKO AZTARNAK HONDARRIBIAN

Jaizkibel mendiaren Ifar-Ekaldea, gailurretik Iger puntara arteko guzia, antzina Kornoz (Kornotz) bezala ezagutzen omen zen, non eraiki zen Kornutz baserria, Isastik bere *Compendio historial de Guipúzcoa* liburuaren 91 eta 491. orrialdeetan dioenaren arabera. Lekuizen bitxi horrek badu bere jatorriz ikustekorik latin hizkuntzatikako *Cornu* edo *Corno*-rekin. Aldiz, Hondarribiko Udalaren Artxibategian, Erdi Aroko agirietan aurki daiteke lekuizen zein bertatiko deituraz.

Pepita Aginaga irundar adiskideak Cornuz deituraren eskuizkribuzko heraldika ageria eskuratu zidanean, lantxo bat osatu nuen "Cornuz, notas sobre término y nobleza" deritzana (ikus *Bol. de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, Año XLIV, 1988, 525-532 orr.).

Behar bada horregatik, Jaizkibelen Ifar-Ekaldeko itsas-hegalean ez zen hain oker ibili, 1926. urtean, Adolf Schulten

irakaslea (ikus A, Schulten-en lana T. Aranzadik itzulia, "Venus Marina", *RIEV*, XVIII, 1927, 371-380. orr.) erromar aztarnak aurkitzeko asmoz, San Thelmo ermitaren zolua miatuz aritu zenean. Bere susmoaren arabera, hor koka zitekean antzinako geografoek aipatzen zuten Oarsoko *Veneris iugum* jainkosaren tenpluetariko bat, bertan *Venus Marina*-ren azternak izango zirelakoan.

Ez zen harritzekoa izango, baina nork daki antzinako geografoek *Venus Marina* horri buruz eginiko aipamenak Irun edo Hondarribiko Santa Maria elizetariko bat ez ote zen? Lekukorik aski bada Irungo Junkal parrokiaren inguruan aurkituak diren erromar aztarnetan (ikus Ignacio Barandiaranen *Guipúzcoa en la edad Antigua, protohistoria y romanización* (1973), 71-91 orr. Eta A. M. Benito, M. Esteban eta M. Izquierdo andereen *El bajo Bidasoa en época romana*, (Irún, 1995). Baina baita ere Hondarribian bertan, Jaizkibel mendi gailurrean aurkituriko Nerva Enpedorearen moneda (ikus eta irakur J. Rodríguez Salis eta Manuel Martín Bueno-ren "El Jaizkibel y el Promontorio Oiaso a propósito de un nuevo hallazgo numismático romano", *Munibe*, XXXIII (1981), 195-197 orr. . Eta bereziki, neronek erromar aratzat jo nuen harri hura (ikus nire lana Eusko Ikaskuntzak Julio Caro Barojari omenaldia eskaini zioeneko lehen tomoan: "Ara romana en Hondarribia", *RIEV*, XXXI, 1986, 481-486. orr.).

Hala ere, A. Schulten-ek etzuen aurkitu espero zuenik. Erromarren aztarnen bila soilik ibili zen harek, han bertan utzi zituen soluan ziren Neolitos garaiko hainbeste suharri (*sílex*). Nire ustez, burdin-aroko zeramika pusketez gainera, han zeuden XV eta XVI. mendeko majorika zatiak ere. Zeren, San Thelmo ermita zen toki hura miakatu bai nuen 1983ko urtarrilaren lehenean, Urteberri egunez, eta geroztik euriteen ondotik bertara joanaz jaso ahal izan nituenak erakusten dutenez. Beraz, ermita zen tokian hor zeuden lehenagoko aztarnak.



Marla sarrea aldean.


1984. urtean, Unai gure semeak ekarri zidan suharri tailatu bat Artzuko errotaren inguruan aurkitua. Hori izan nuen Harri-Aroko ageri bat eta horrek bultzatu ninduen itsas-hegalak aztertzerara. Urte bereko abenduaren lehenean Marla deritzan ordekaren une labur batean, haize agerian, suharritzko tresneria ugari aurkitu nuen, eta beren tailu eran argi nabari zen: marraizko, haizto, igeiki eta abar zirela. Batzuk, neurritz aski handiak eta deshidratatzearen eraginez beraien azala zuritua.

Itsas-hegalean Marla bezala ezagutzen den toki hau, Instituto Geográfico y Catastral-eko 1: 50.000 eskaladun maparen 41. orrian, zehazki, honako koordenadetan kokatzen da: $1^{\circ} 51' 11''$; $43^{\circ} 22' 50''$. Baina, nire harridura, inguru berean suharri eta basaltozko lanabes zati landu horietako batzuk ezik, gainerako suharri, kuarzita eta basaltozko zatirik gehienak ur korronte edo uhinen eraginez biribildutako harriak izatean. Horrek kezkatu ninduen, begien aurrez-aurre nituen aurkikuntzogatik, *pebble culture* deritzaien

horietako aztarnategi baten gainean edo ez ote nengoen. Labarraren gainetik, itsas ur mailatik 25en bat metrora nengoen, eta harri biribilduok, beren forma eta materialaren arabera, ez ziren mendian behera eroriak. Baina itsasoak noiz eta nola erakarriak? Hori nire zalantza.

Hondarrak euriteek labarrean beheruntza eramaten dituzten tokia da. Hiru unetan nabari da erosiozko fenomeno hau. Hirurak elkarrengandik hurbil eta erdikoa da guzietan handiena: 37 m. luze eta 15 m. zabal, lur ezpondak erdialdera 3 metrotik gorako aldura hartzen duelarik. Ezponda horretan hiru maila edo estrato agertzen dira, gainekaldeko azalean lur beltza, erdian buztik orizkaren itxurazko hordarra eta azpirago hondar soila, hodarrarizko soluaren gainean. Hobeto esan, Hondarribian "mimarria" bezala ezagutzen den hondar-harriaren haizgainean dago, euriteek denboraz saila zabalagotuz doala.

Jesus Altuna adiskideari dei egin nion eta bere emazte Koro Mariezkurrena lagun zuelarik etorri zen. Lehenik suharritzko lanabesak ikusi eta gero tokia miakatuz. Bere ustez,



Aierdi barpea.

lanabes batzuk, Mustier garaikoak izan daitezke, beste batzuk geroztikoak. Beraz, glaziarren artekoa dirudite, parte bat Würm deritzaion azken glaziararen aurrekoa eta beste bat geroztikoa noski.

Nabaria zen geomorfologiazko aldakuntzaren bat bazela han, eta Jesus Altunaren gomendioz Felix Maria Ugarte geologo adiskideari dei egin nion. Tokia ikusiz, bere ustez, itsas arrasa (*rasa litoral*) horietako baten aurrean geunden. Kantabrikoaren hegaletan Asturias partean bakarrik ezagutzen zen fenomeno. Estrato edo harrimailak noiz bait eten eta itsasoaren bultzadaz goraka etorri zen hondartza bat. Gertakari hori, zalantzarik gabe, gizona sortu baino lehenagokoa zen eta gero lehen gizonak bizitu ziren *arrasa* delako hondartza honetan. Horregatik, Paleolitos erdialdeko tresneria ez ezik askoz geroagokoa ere hor aurkitzen da, euriteek labarretatik behera eramaten duten hondarretan zeuden lanabesak, dekantazioz, beraien pisuz eraman gabe utziz. Fenomeno bitxi hau ezagutzera Grenoblen irakasle izan zuena ere ekarri zuen. Hortaz ikerlan bat egitekotan zen F. M. Ugarte, geomorfologiaz Kuaternario aldiaren espezialista zen hau, baina gure zoritxarrerako, lana bukatu gabe, uste gaberik gazte hil zen.

Marlako aurkikuntzaren ondotik, 1984ko abenduaren 30ean, Bioznarko puntaren gainekaldetik mendebalderako zelaian beste antzerako toki bat aurkitu nuen, tipiagoa eta buztin eta hondar nahastuaren artean harri biribilduak eta hauen artean suharri landu zatiak, haizto eder bat autsita erebai.

Hemen ere, Marlan ohartua nintzen bezala, euriteen ondoren berriz bisitatzean, azal-azalean suharri gehiago aurkitu izan ditut, urak hondarra eramatean agertuak. Baina, han bezala, ez da gauza erraza aztarketa egoki bat egitea, zeren aztarnategiaren sail handiegia aztartu beharko litzateke ezer guti lortzeko.

Aztarnategi hauek izan daitezke Iger lehorradarrean Jose Maria Merinok eta Fran Zumalabek aurkitu eta ikertu zituztenen aztarnategien jarraipenezkoak, ezagutzera eman zutena kontutan hartzen baldin badugu, nahiz eta itxuraz geroagokoak izan (ikus J. M. Merino, "Yacimiento de Cabo Higuer, en el monte Jaizkibel (Fuenterrabia)", *Munibe*, XXXVIII, 1986, 61-94. orr.).

Marla eta Bioznar bitartean bada *taffoni* deritzaien horietako harpe bat ere, non aurkitu nituen soluko lur beltzaren gainean, muskuilluekin batean, zenbait suharri: marraizko, zulakaitz edo puntzoi. J. Altunak ikusia du eta zoluaren azala Mesolitos garaikotzat joa du. Ikertze hustuketa egin beharrezkoa deritzot.

Txotxipiko zelaian ere, han-hemenka aurkitu izan ditut suharri printzak eta lanabes landuen zatiak, baina horiek, beren taxuraz Neolitos garaikoak dira.

Burkaitz tontorraren mendebaldean ordea, suharri pus-kaz gainera aurkitu nuen hezurrezko ezten punta zorrotz landua, Madalen aldikoa iruditzen zait, bere neurritz: 110 mm. luze; 15 mm. parterik zabalenean; eta 8,05 mm. partetik sendoenean.

Zezendegin, harpetxe eroriez gainera, beste zenbait suharri haize agerian. Kornuztik laster, Apataia alorraren ondoan den Xurt deritzan muinoan ere suharri printzak ugari haize agerian. Harriaundiko muinoaren lepoan ere bai. Horregatik, azken biok haize ageriko lantegiak iruditzen zaizkit, baina Paleolitos aldikoak baino ziurrago Eneolitos aldikoak. Aralardik negurako larrealdaketaz zetozen abeltzainei lanabesak salketaz eskaintzeko izango zirela iruditzen zait.

Jaizkibel mendiaren itsas-hegalak miakatuz egin nituen ibilaldi horietako batean, 1987ko urtarrilaren 6an, aurkikuntza bitxia egin nuen Elortxuri deritzan tokian: Solutre aldiko azkon muturra. Eta Jose Miel Barandiaran maisu bikain harek ehun urte betetzen zituelarik, bere sorterrria den


Ataungo Udalak zer asmo hoberik elkarlanean osaturik *Nondik* aldizkariaren ale berezi bat bere omenez eskaintzea baizik? Ohoregarritzat hartu nuen lantxo baten eskaria eta bertarako hautatu nuen Elortxuriko aurkimenaren berri ematea (ikus "Elortxuriko azkon muturra", *Nondik*, 23. zenb., 1989.go abendua, 36-37. orr.).

Hara orain hemen lan haren laburpena. Tokiz zein tailuz oso berezia neritzon azkon muturraren katalogatze iritzia eman ahal izateko, Landerbasoko Aizpitarate eta Isturitzeko Oxozelaian aurkitutakoekin konparaketaz oinarriturik.

Marla deritzan ordekaeren gainetik eta Justitz baserriaren azpikaldekak kokatzen da Elortxuri. Tokia zehatzago adierazteko, beste honako hau gehituko nuke, Ametzakau deritzan maldan Hondarribirako urak hartzen diren Iturgaingo errekaeren goiti, han urak eramateko egina den lehenengo sifoi-itxolaren ondoan aurkitua da, Marlarako bidean bertan. Eta arestian aipaturiko katastro mapan honako koordenadetan kokatzen da: 1° 51' 25"; 43° 22' 44". Itsasoaz 70 m. goitik (1: 50.000 eskaladun maparen 41. orria. I. G. C.).

Elortxuriko azkon mutur honen bitxitasuna, Solutre aldi-ko tresnak urri izateaz gainera, material eta tailukeraren teknikan datza. Ereinotz hostoaren forma du, suharri beltzean bikain tailaturik. Bere neurriak, alderik handienetan: 43,5 mm. luze; 20,5 mm. zabal; 5,05 mm. sendo. Esan bezala, tailukera tipiz biziki ongi landua. Hargatik ematen dut Solutre aldikotzat, hosto irudiaz gainera lantze teknikan oinarriturik, aldi beran Aizpitaraten eta Oxozelaian aurkituekin konparaketa eginaz. Tailu era hori Madalen aldirako desagertua zen, nahiz eta berriro Eneolitos aldian hartara hurbildu, inoiz ez zen antzinagoko teknika hura gainditzera iritsi.

Solutre aldia duela 30.000 edo 35.000 urte inguruan kokatzen da. Baina ez da batere harrigarria Jaizkibelgo toki horretan aurkitzea, esan bezala, Erdiko Paleolitos aztarnak handik beheraxeago Marlan aurkitzen direnez gero.



Silex, subbarria.

Aipatzen dudan lan hori argitaratu geroztik, Elortxuriko toki berean, 30 metro inguru beheraxeago, beste azkon mutur bat aurkitu nuen, suharri urdinarean txukun tailatua, baina triangelu formaduna, hegala beherantza dituela. Bere tailuz lehengoari hurbiltzen zaio eta daitekeena aldi berekoa izatea. Pun-punta autsia du, baina angelua jarraituz eman dezakedan neurria honakoa da: 40 mm. luzeran; 26 mm. hegalean ertzetik ertzerako zabalera; eta 6 mm. bere parterik sendoenean.

Aurkikuntzok era askotariko galderak sortzen dizkigute gure baitan, baina batez ere honako hau: Orain eremu den Jaizkibelgo itsasalde hauetan, gizona, Mustier alditik Neolitos garaira arte etenik gabe bizi izan ote zen?. Honako hau argiago jartzeko, aztarnategi batzutan egin daitezken ikerketek zehatzago eskainiko dizkigute horren ziurtatze ageriak. Horrela balitz, Eneolitos aldian Aralardik Jaizkibelera larrealdaketaz zetozen abeltzainekingo harremana ere elkartzeko litzateke eta oroi ohitura honek gure mende hontara arte iraun duela.

Mendiaren izen berak ere izango du zer ikusirik, Jaizkibel izatean (Haitz-gibel, = haitzaren gibelaldea adierazten du); hau da, haitzaren ostekaldea edo atzekaldea, noski. Zeren hondarribiarrentzat bezala pasaiar eta lezoarrentzat Jaizkibel denez gero, haitzaren atzekaldeko biztanleei begira izendatua dela esango nuke. Ez bai diot beste arrazoi biderik aurkitzen.

Inguru hauetan, lehenik, Harri-Aroan ehiza-arrantzatik gizona bizitu zen eta gero, horrez gainera, abelzaintzaz gure mende honen haserara arte. Horregatik bertako aztarnategiak egoki ikertzeak izan dezaken garrantzia.

2.

ARALARDIK JAIZKIBELERA, LEHEN GIZONEN URRATSAK

Eta antzinatiko egoitza bereziak Erdi Aroko zenbait berri lekuko direla

Ezaguna zaigun bezala, Euskal Herrian abelzaintzak, Neolitos garaitik gure mende honetara arte iraun du udarako larreetatik negukoetara aldaketazko ohitura. Urteko denboraldirik gehiena mendi altuetako larradietan igaro ondorean, udazkena heldu orduko mugitzen ziren Pirineo aldeko goiak utzi eta Ebro zein Garona inguruetako ibarretara edo Ifar-mendebalde mendietakoek itsashegaleko tokietara aldatuz, udaberriz bide beretik itzultzeko. Jakina, tartean bide luzeak ibili beharra zuten eta herrietako larreak alogeratzten zituzten abereak bazkatu beharrez; beraientzat hori zen ohizko eginkizuna berriz goietako larradietara joan arte.

Aralargo abeltzainek Jaizkibel mendi aldera aldatzeko ohitura zuten eta horren lekukoak ditugu bizi garenok eza-

gutu dugunaren arabera. Horrekin zer ikusirik badute 1935. urtean Jose Miel Barandiaranek Jaizkibelgo Izkulin deritzan tokian aurkitu zituen trikuharriak (dolmenak). Ikus Jesus Elosegik burutu zuen "Catálogo dolménico del País Vasco" lanean 188 eta 189 zenbakidun fitxak (*Pirineos* aldizkariaren 28-30. zenb.) 295. orrialdean zehaztasunez argitaratuak (Zaragoza, 1953). Hoietaz zenbait xehetasun eman nituen, 1997. urtean, *Hondarribia* (79. zenb., 26. orr.) aldizkaian: "Trikuharri eta harrespilak Jaizkibel mendian" titulupean azaldu nuen artikulu hartan.

Geroagokoak dira burdinaroko harrespilak (Cromlechs) eta horien aztarnak ageri dira aipatzen ditudan trikuharrieta-tik hurbil. Horiek katalogatzeaz arduratu zen Luis Peña Basurto. Ikus "Reconstitución y catalogación de los *Cromlechs* existentes en Guipúzcoa y sus zonas fronterizas con Navarra", *Munibe*, año XII (1960), 105-107. orrialdeetan datorren lana. Harrespil horiek Ohiartzungo mendietan, Lesakako Katazpegi gainekaldeko Agiña muñoan eta mugaz bestaldeko Mandale mendian ere badaude eta horiek argi erakusten digute erromarrak baino lehen hor zirela keltak inguru hauetako meategietan.

Baina bada, abelzaintza hura lekukotzen duen azalpen zehatzak eskaintzen dizkigun Erdi Aroko zenbait agiri, eta horien berri ere eman nahi nuke gaurko hontan.

José Goñi Gaztambide jaunak argitaratu berri duen *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona, Tomo I, 829-1243* (1997) deritzan liburu ederrak edozein ikertzaile-lerentzak eskaintzen ditu seirehun agiritik gora eta bertako 564. dokumentoan dioenez, Migel Gazteluk Aralarko San Migel Excelsis santutegiari *Leyurieta* eta *Leizanavar*-eko aberetegiak itzuli omen zizkion 1230. urtean. Testuak dioen bezala: "Sepan todos aqueyillos que esta carta verán, que yo don Miguel de Gaçtelu dexo a San Miguel de Çelsi sus bostaliças Leyurieta et Leyçanauar, que las tenía forçadas. Que



Jaizkibealeko harpen bat.

non demande ninguna generati3n que de m3 sea..." (liburu horrek 476. orrialdean dakarrenez).

Egia esan, egileak ez ditu kokatzen Leiurieta eta Leizana-bar non diren, baina bi tokiok mende bat geroago aipatzen dira Hondarribiko eremuetan.

Jos3 Mar3a Lacarra historiagileak 1956ko urtarrilaren 10 eta 11.etan, Gipuzkoako Diputazioko Julio Urkixo Mintegiaren eskariz Donostian eman zituen hitzaldietan aipatzen zituen toki horiek Hondarribikotzat. Hitzaldiok, handik urtebetera, J. Urkixo Mintegi berak argitaratu zituen *Vasconia medieval, historia y filolog3a* (1957) izenpean eta liburuxka horren 19. orrialdean irakur dezakegu honako hau: "San Miguel Excelsis enviaba sus ganados a pastar a los yermos de Fuenterrab3a "en el t3rmino clamado Jog, e los seles que se claman Muginça, Adialove, Gaiztanos, Leyurieta, Leiçanavar" (año 1371)". Jaizkibel mendiaren itsashegalean aurkitu ditut azkenengo izen hoiak, orain Gaztarrotz, Leuta (Leiurieta) eta Lexa-


nabar (Leizanabar) deitzen direnak. Besteon azterrenik ez dut aurkitu. Badirudi izenez aldatuak direla.

Horiek eta Jaizkibelen agertzen diren zenbait antroponimo kontutan harturik, toponimia ikerketetarako duten balioagatik burutu nuen Euskaltzaindirako txosten bat, "Jaizkibel mendiko izen zahar batzuk" deritzana eta bertan sartu nituen guziok (ikus *Euskera*, XXXIII, 1988, 261-271. orrialdeetan). Baina lantxo hortan ematen nituen beste izenatariko batzuk, behar bada, izan daitezke *Muginça* eta *Adialove* zirenen lekua hartu dutenak.

Leku-izenen bilketa hortan, lortu ahal izan nuen kartografiaz gainera, Maximo Sagartzazu, Iñaxio Justizkoa eta orain Esteuz berrin bizi den Luis Muguruza izan nituen informatzailerik onenak. Gainera, L. Muguruza Amezketa-koa da izatez eta mutikotatik etortzen zen bere aitona Jose Mari Muguruza amezketarra Aralargo larradietatik negua Burkaitz egoitzan igarotzera.

Jaizkibel mendiaren Ifarraldetik, itsasalderako malda erdialdetik beheruntza Pasaia eta Hondarribiaren muga ondoan daude Gaztarrotz, Leiurieta eta Leizanabar. Harkaitzeko estalpeetan horma eroriak aurkitzen dira hiru tokio-tan. Zalantzarik gabe, uste dut, aurretik ere abeltzainen egoitzak izango zirela hondarribietan (Hondarribian bertan "mimarri"tzat ezagutzen den harri mota) erosio kimikoaz berez egiten dituen harpeok, geomorfologian "*taffoni*" deitzen direnak.

Gero, "*taffoni*" harkaizpe horietan bizitzeko egoitza aukera hobean jartzeko, harlanduzko hormak egitura poligonalez eraikiz (teknikaz "*opus poligonale*" deritzaiena), eta hormen buru gainekaldetik haitz bizian zizelez hodi erako ubideak irekiz eta barnekaldean eserleku zein lotarako lekuak ere zizelez harri bizian landuz. Harpeon lur azalean, han-hemenka, harri-industria aztarnak aurkitu nituen: suharrizko zenbait printza, guno, zulakaitz printza, marruska,



Beste barpelariko bat Jaizkibelen.

muxardura, horztun eta abar, solairu azalean. Zalantzarik gabe Eneolitos garaiko aztarnak dira eta nork daki Neolitos garaira ez ote diren iristen. Hori zehatz argitzeko beharrezkoa da aztarnategietan indusketak egitea.


Egoitza era hortara prestatzeko ideia hori agian Aralardik etorri zen; han 1918. urtean Telesforo Aranzadik egin zituen ikerkuntzak erakusten digutenez. Itxura batean, haiekin duen desberdintasun bakarra, han harria landugabeko eraiketak zirela eta hemen ordea harlanduz eginak. Ikus T. Aranzadiren ikerlana: "Apriscos recientes á modo de Tholos prehistóricos en el Aralar navarro", *Revue Internationale des Etudes Basques*, Tome X (1919), 72-82. orr. Iker lan hura argazkiz datorrenez, irakurlea, ikusi orduko laster ohartuko da berain egitura orokorra hemengo oso antzerakoa dela. Esan bezala, hemen Jaizkibelen harlanduzko eraikuntzan aritu ziren eta han ez. Horregatik, Aralargoek ez zuten euri urak bideratzeko hodi gisako erarik, baina bai hemengoek. Baina aurkitu dudan gauzarik harrigarriena Aiardiko harpe batean izan da, egoitzetariko batek barnekaldea bi zatitan

banatua du eta bere parterik txikienerako sarrera atetzat harlandu biribila du, gurpila bezala mugitzekoa. Asia mendebaldean edo Europako ekalde mugetan aurkitzen diren antzinako hobien itxurako oroimena bururatzen zait, baina hori asko esatea litzake eta oraingoz ezin ezer argitu beharrezko indusketak egingabe.

Aurkikuntzok 1985tik 1987ra bitartean egin nituen eta berehala Aranzadi Zientzi Elkarteari aditzera eman nion eta geroztik zenbait aldiz bisitatu dituzte J. Altuna, K. Mariezkurrena, F. Etxeberria, F. J. Zumalabe eta bestek. Baita J. Caro Barojak ere, hormen noiztikakoaz bere iritzia eman zezan eta, bere ustez, Erdi Arotik haruntza urrutiago joaterik ez zegoela esan zidan. Beraz, egoitzak zaharragoak izanarren, badirudi hormen eraikuntzak Hondarribian hargintza indartu zenekoak direla.

Munibe-ren 10. eraskina osatzen duen *Gipuzkoako Karta Arkeologikoa. II. Haitzuloak* (1995) deritzan katalogoan 693 eta 703 zenbakiz agertzen dira Gaztarrotz eta Lexanabar, fitxaz lekukotasunak emanaz eta harkaitz estalpe batzuren marrazkiak eskainiz.

Baina horiek ez dira Eneolitos aldiko aztarnak agertzen diren harkaitzezko estalpe bakarrak, 1985eko urtarrilaren 6an, lehenengo aurkitu nituen Martitz eta Burkaitz deitzen



Harpea.

diren tokiak hor dira; harrezgeroztik, horiez gainera, baita ere Aiardi, Munaundi, Laundo, Leuta (Leiurieta), eta beste. Guziak dira "*taffoni*" deritzaien horietako harpeak, Gaztarrotz, Leiurieta eta Leizanabarkoak bezala landuak.

Aspaldi eman nioen Hondarribiko Udalekoei egoitza horien berri, arduraz har zezaten inguru horietan zerbait egiteko asmorik baldin bazuten aldez aurretik aditzera eman zezagun, neri edo Aranzadi Zientzi Elkartekoei, baina alperrikakoa izan zen. Martitz hondatu zuten, bertan zuhaitzen ereintzarako tresneria gordetzeko etxola eraikiz eta Laundo kanpin egiteko erabili zuteneguz goitik-behera hormak autsi zizkioten. Azterketa zehatzak denboraz egiten ez badira, horietako beste batzuk ere arriskuan daudela esango nuke.

Dena den, lekukotasunon garrantzia adierazte honek agintariak adi ipiniko dituen ustean jartzen dut itzaropena.


3.

KELTEN HARRESPILAK BIDASOAREN BEHEALDEAN

Keltak, Austria aldetik Europaren mendebaldera jo zuten meategiekin baliatzeko eta era hortara zabaldu zuten metalen kultura. Beraien aztarna nagusia, noranahi joaten zirelarik, "Cromlechs" deitzen zieten harrespilak eraikitzea zen.

Luis Peña Basurtok 1960. urtean Aranzadi Natur Zientzia Elkarteko *Munibe* aldizkarian argitaratu zuen harrespilen katalogoa, "Reconstitución y Catalogación de los "Cromlechs" existentes en Guipúzcoa y sus zonas fronterizas con Navarra" izenburupean. Han datoz Bidasoaren behealdekoak, Jaizkibelgo Izkulindik zerbait beheratxoago daudenetatik hasita.

Aiako Harriaren inguruan aurkitzen dira horietako asko, Arditurri meategietatik hurbil. Inguru hartako handienetakoak eta ikusgarrienak ditugu Oiartzungo Oianleku eta Errenega lepokoak, 1915. urtean Telesforo Aranzatik aurkituak. Besteak beste, aipamen berezia merezi duten horien artean



sartuko nituzke Lesakako Katazpegi gaineko Agiña muinoan daudenak. Gainera, Agiñako harrespil handienaren ondoan Luis Vallet eta Jorge Oteitzak Aita Donostiaren omenez eraikitako kapera eta estela daude.

Baina haietatik ez daude hain urruti Bidasoa ibaiaren bestaldeko Lapurdin, Urruñaren lurraldeetan, Mandale mendian Ibardin aldera eta Biriātu aldera Pitarre lepoan tumuloduna José Miguel Barandiaranek aurkituak. Ikus bere lana "Tumuli et dolmen de Biriātu", *Ikuska*, 3. zenb. (1947). Horrez gainera, harrespilok katalogaturik utzi zituen 1949an D. Julio Urkijo Ibarra zenaren omenez, ikus "Contribución al

estudio de los Cromlechs pirenaicos" lanean, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* aldizkariak argitaratu zuen ale berezian (Lan hori berargitaraturik dator bere *Obras completas*-en XII. liburukiko 343-360 orrialdeetan). Bestalde, ikus Telesforo Aranzadi zenaren omenez Aranzadi Natur Zientzia Elkarteak argitaratu zuen *Munibe* ale berezian (XIV. urtekoa. 1962an) bertan J. M. Barandiaranek eskaintzen zuen lana: "En el Pirineo vasco. Prospecciones y excavaciones prehistóricas". Lehenago, *El hombre prehistórico en el País Vasco* (Buenos Aires, 1953) liburuaren 251. orrialdean zekarren horren berri. Gero, bildurik dator bere *Obras completas*-en (1962) XV. liburukiko 248-250 orrialdeetan.

Harrespila horietariko asko ezagutu nahi dituenak, hiru hizkuntzan argitaratu zen liburuan oharrez zehatz lekukotuz, marrazkiz eta argazkiz, ikus beza Jesus Altunaren *Lehen Euskal Herria - Guía ilustrada de prehistoria vasca - Guide illustré de préhistoire basque* (Ediciones Mensajero. Bilbo, 1975).

Zerbait harritzen nauena da, Aiako Harriaren inguruan eta Bidasoaren bazterretan arkeologoek egin dituzten ikerketetan erromarrak soilik aipatzea, zeren harrespilen lekukotasunak aski argi jartzen bai digute erromarren aurretik keltak hor ibili zirela bertako meategien esplotazioan. Erromarrak ordea, ohi zuten bezala, kelten arrastoen atzetik ibiltzen ziren meategiak aurkitzeko.

4.

ARA ERROMARRA HONDARRIBIAN

1985. urtean ohartu nintzen Sagartzazuarren lorategian zegoen harlandu bitxi batetaz. Hondarribiar askorentzat oso ezaguna zen nonbait, baina inork etzuen ikertu zer eta noiztikakoa zen. Nire ikerketaren bidez ohartu nintzen **ara** (aldarea) erromarra zela.

Naiz eta burualdea hautsirik eduki eta aurrekaldea goi aldetik mozturik izanarren, bere argibideak honelakoak dira: inguru hauetan ezagutzen ez den narmol zuriz egina da, bere azala, denboaren eraginez karaitzei ohi bezala, zetaka gisako zarakarrez edo kostraz duela. Neurritz: 83 zentimetro alturaz, 35 zm. zabal eta 40 zm. sendoz.

Bere enborra tailu apainez ondo landua du eta oinaldean gola-itzulia deritzan moldura. Lau aldeak landarezko apaingarriz hornituak. Aurrekaldetik platano hostoak erditik behera, zeren goikaldea mozturik bai du. Bi alderdietan, ezker eta eskubi, oliba abarrak xingola zintzilizkatuen artean. Atzekaldetik, era bereko erliebez, platano hostoak. Oso

ondo eginak, horiek erromarren artegintzan I. mendean ohi zen erako apaingarriak dira.

XX. mendearen lehen partean Eliz-atzea zeritzon lekuan aurkitua omen, antzina, XVI. mendeko agiriak "beheko zimenterioa" aipatzen duten inguru haretan. Gaur hobeto ulertzeko, parrokiaren egoaldean. Han Casadevante (inoiz Aurrekoetxea bezala ere erabilia zen agiri zaharretan) jauregiaren gibelean, Ipiztiku (edo Apezpiku) kale aldera ba omen zen Kamizeria-zaharra zen tokian Jose Mari Salaberriaren sagardotegia eta han omen zegoen hormaren kontra **ara** delako hau eta XX. mendearen erdi inguruan handik eramane omen zuen Franzisko Sagartzazu alkate zenak orain aurkitzen den lorategira.

Eusko Ikaskuntzak Julio Caro Barojaren omenez argitaraturiko lanaren lehen liburukian eman nituen **ara** honen xehetasunak, maisu eta adiskidearen omenez (ikus: "Ara romana en Hondarribia", *Revista Internacional de Estudios Vascos*, tomo XXXI, 1986, alearen 481-486. orrialdeetan).

Gero, honen berriak eman nituen iraileko *Hondarribiko Jaiak - 1990* programan.

Hego Euskal Herrian ezagutzen diren **ara** guzietatik aski desberdina iruditu zitzaidan lehen ikustaldi beretik, batez ere materialez. 1985. urteko irailean J. Caro Baroja adiskide zenari erakutsi nioen eta oso harriturik gelditu zen hura zer zen lehenago inor ez ohartzeaz. Berak aditzera eman zidanez, konparaketak egitean, begiratzeko Alkitania barrutian.

Egia esan, Saintes hiriko museoan bada horren itxurakorik, baina baitere Auzki (Auch) hirikoan ere. Hemendik hurbil, marmol zuridun materialez eginak dira Hazparneko erromar oroitarria eta Atharratzeko Aranhe gailurrean den Maria-Maidalenaren ermitan dagoen **ara** erromarra, bere izkributzat "Heravscorritsehe" daramana. Honen berriak

ikus Koldo Mitxelenaren "De onomástica aquitana" lanean, *Pirineos*, X, 1954. Geroago, Florentziako museoan aurkitu nuen Hondarribikoaren apaingarria berdina zuten **ara**, materialaren aldetik ere honen berdina zena eta lehenengo mendekotzat katalogatua da. Beraz, ez nembilen oker.

Euskal Herri inguruetan ez da holako harririk eta itsasoz ekarria dela esango nuke.

Orainarteko azterketak gogoan izanik, beste galdekizun bat sortzen zaigu, erromar geografoek aipatzen zuten Oiarson aldeko "Venus maritima" hura kokatzen zen tokia non ote zen?

Bidasoaren ahoa eta Pasaiako sarrerak zaintzen zituen Beloaga dorrea kontutan harturik, hipotesiaren arabera, ezingo ditugu baztertu Erreterria (antzinako Oiartzun kontsejoa zena) eta Lezo; baina, behar bada ziurrago zaigu Hondarribiko elizaz edo Irungoaz pentsatzea, mendietako ermita ttipiagoetara jo gabe. Ama Xaltalen *necropolis* (hilerria) izateaz badu arrazoi pixka bat, noski. Baina San Thelmo zenean A. Schultenek ikerturik ez zuen deus aurkitu. Beraz, zergatik ez zen izango itsazertzean kokaturiko Irun edo Hondarribiko parrokietariko bat. Horriek hor gelditzen zaizkigu ikergai.

5.

KORNOTZ, Erromar jatorrizko lekuizena

Harrigarria iruditzen zitzaidan Jaizkibel mendiaren izena, bere etimologiaz haitzaren atzekaldea izanik, mendiaren bi aldeetan, hondarribiarrek zein lezoar edo pasaiarrek ere berdin erabiltzea. Horregatik hasi nintzen Jaizkibel mendiaren itsas-hegalak ikertzen, bai toki izenez eta baita arkeologiaz ere. Toki-izeneri buruzkoa bildurik argitara eman nuen Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian⁽¹⁾ eta arkeologiazkoak "Luis de Urantz" Kultur Taldearen Aldizkarian⁽²⁾. Orduan konturatu nintzen haitz-gibela itsasaldeko hegala zela.

⁽¹⁾ J. San Martin, "Jaizkibel mendiko izen zahar batzuk", *Euskera*, XXXIII, 1988, 261-271. orr.

⁽²⁾ J. San Martin, "Aralardik Jaizkibelera, lehen gizonen urratsak", *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria*, 16. zenbakia, 1998, 45-59. orr. Eta "Paleolitos garaiko aztarnak Hondarribian", aldizkari beraren 19. zenbakian, 1999, 115-124. orr.

Adiskide nuen Koldo Mitxelena hizkuntzalari ospetsuari horren berri eman nioenean, hark ere harriturik jaso zuen Kornoz (= Kornotz) eta ez zuen inolako zalantzarik lekuizen hori erromarregandikakoa genuela; baina, batez ere, harritzen zuena zen orain arte nola inor ez zen hortaz ohartu.

Ahoz jaso nituenen artean, Kornuz eta Gornuz bezala erabiltzen zen baserri izena izan zen, eta Hondarribiko Udalaren artxibategian aurkitu nituen Erdi Aroko bi pertsona, 1481. urtekoak, Cornoz deitura zutenak⁽³⁾. Baina, zerbait lehenagoko baten berri zekarten M. Larrañaga eta I. Tapiak Hondarribiko agiri zaharren bilketazko liburuan, Cornor jarriaz⁽⁴⁾. Hura irakurtzeak zerbait harriturik utzi ninduen eta, Begoña Andrés artxibategiko arduradunaren laguntzaz, biok begiratu genuen agiria, non garbi asko irakur ziteken, Cornoz.

Baina gure grafiaz Kornotz irakurri beharrezkoa noski, zeren bertakoek horrela ahoskatzen dutelako, gaur egun Kornutz erabiliak. Latin hizkuntzatikako *cornu* (= adar) du sustraitzat -otz atzikiarekin. Antzinakoek ez zekiten -otz afrikatu hori nola idatzi, ez gazteleraz eta ez frantsez ere, beraien ahoskeretan ez dutelako, eta horregatik -oz soilik jarri izan zuten eta hemengo euskaldunek ere hortik jarraitu zuten idatzirako -oz, beraien ahoetan -otz erabiliarren.

Nik aztertu ditudan idazkietan, Kornotz etxea eraiki baino lehenago, Artsuko Matxinen 1280. urteko berriak ematean agertzen da Cornuz bezala lehen aldiz⁽⁵⁾. Baina, badirudi

⁽³⁾ Archivo Municipal. Ref.: Sección C, Negociado 5, Serie I, Lib. 1, Exp. 2. Non agertzen diren 1481ean Joanes de Cornoz eta Esteve de Cornoz.

⁽⁴⁾ Miguel Larrañaga Zulueta eta Izaskun Tapia Rubio, *Colección documental del Archivo Municipal de Hondarribia*. Tomo I (1186-1479). Fuentes documentales medievales de País Vasco, nº 48 (Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1993), p. 97.

⁽⁵⁾ Conde del Llobregat, *Fuenterrabia. Noticias históricas* (Segunda edición. San Sebastián, 1942), pp.91-92. Eta Florentino Portu, *Fuenterrabia. Notas históricas y curiosidades hasta 1969* (Fuenterrabía, 1975), pp. 223-224.

izena ez dela garai bereko agirietatik zuzen jaso, baizik Diego de Urbina Erregeren heraldika armen arduradun zenak 1620an Cornuz eskudua osatzeko eman zuen agiritik baizik.

Isastik inguru haiek tokiz-toki kokatzean zioen: "Fuera de la villa en su jurisdicción en los cotos de Cornuz y Jaizubia son las casas parroquianas á ella Arsu A, Justiz A, Cornuz, por otro nombre Muguirio,..."⁽⁶⁾. Eta Pierre-Henry de Lalanne-ek Arsu (Artsu) etxeari buruz ari zelarik beste honako hau zekarren: "la maison principale et primitive se dresse sur la montagne d'Olearso, aux confins de Cornuz". Eta D. de Urbina-ren agiria dakar liburuaren azken partean, non jasotzen den: "termino llamado Cornuz a la falda Oriental del promontorio Olearso"⁽⁷⁾.

Beraz, Jaizkibelen Ekialdeko lurraldea zen Kornotz, bertan aipaturiko etxeok eraiki baino lehenagotik. Eta, Jaizkibel bera, Erdi Aroan Haizkibel bezala agertzen zena, erromar geografoek aipatzen zuten hura omen. Adibidez, C. Plinio-k "promontorio Olearso"; baina P. Mela-k Oeason eta Strábon-ek Oiáson⁽⁸⁾.

Izena eta izanaren azterketetan nenbilena, Pepita Aginaga irundar adiskideak eskuratu zidan Cornuz-en aitonensemetzako eskuizkribuzko agiria, 1658. urtekoa, eta zenbait oharrekin argitara eman nuen Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Buletinean⁽⁹⁾.

⁽⁶⁾ Lope de Isasti, *Compendio historial de Guipúzcoa* (Obra escrita en el año de 1625, impreso en San Sebastián en 1850), p. 91.

⁽⁷⁾ Pierre-Henry de Lalanne, *Fontarabie. Ses monuments - son histoire* (Paris, 1896), p. 52 y p. 218.

⁽⁸⁾ Antonio García y Bellido, *España y los españoles hace dos mil años, según la Geografía de Strábon* (Colección Austral. Buenos Aires, 1945), p. 162. La *España del siglo primero de nuestra era, según P. Mela y C. Plinio* (Colección Austral. Madrid, 1947), pp. 38, 135 y 140.

⁽⁹⁾ J. San Martín, "Cornuz, notas sobre término y nobleza", *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, Vol. XLIV, 1988, pp. 525-532.

Kornotz izenari Euskal Herrian bertan, ez zaio falta kidekorik. Antzina, Cornonium zeritzan hiri bat ba omen zen Nafarroan, Ptolomeok Euskaldunon lurraldean kokatzen zuena. J. Caro Barojarentzat, zalantzarria bazeritzan ere, Jaca aldetik mendebaldera eta "Graccuris"en Ifarraldean kokatu zitzakeen⁽¹⁰⁾. Eta M. J. Peréx Agorretarentzat, Erdi Aroan Mendabiaren ifarraldean zen Cornonio izan zitekean⁽¹¹⁾.

Bestalde, oroi eta kontutan har, Cornúquiz Bizkaiko toki-izen bat zela 1070. urteko agirietan agertzen denez, Lope Iñiguez kondeak San Millan-era emana, halan jasotzen zuen L. Serranok⁽¹²⁾. Baina bada Gipuzkoan bertan ere zer ikusirik duen lekuizena, Aloña menditik Aizkorri bitartean, bada tontor eta lepoa Biozkornia deitzen direnak, Katabera meategien gainekaldean.

Corno (= adar) hitzaren kontzeptua da kontutan hartu beharrezkoa, erromarrek mendi gailur eta itsasalderako lurraldeen punteri izen hori ematen ziotenez, zeren kontzeptu bezala oso zabaldua bai da. Horren arabera, hor ditugu: Urnieta eta Andoain tartean Adarra mendia; Bizkaian Gorbearen Ifarraldeko Itxina harkaitzetan Atxadarra; Baxenabarrako Banka herriaren Ekialdean ere bada Adartza mendia. Edo, Alpes medietan, alemanierazko hizkuntzaz izenak lekuko harturik, non nahi aurkitu genezazke -horn (= adar) daramatenak, adibidez: Bietschhorn, Breithorn, Finsteraarhorn, Matterhorn, Ritzlihorn, Schreckhorn, Weisshorn, Wetterhorn eta abar. Baina Itsasaldera irtetzen diren puntetan oso ezaguna zaigu geografian "Cuerno de Africa" deritzana; horregatik, pentsatzekoa da Jaizkibel gailurretik

⁽¹⁰⁾ Julio Caro Baroja, *Los Vascones y sus vecinos* (San Sebastián, 1985), pp. 41 y 47.

⁽¹¹⁾ María Jesús Peréx Agorreta, *Los Vascones. El poblamiento en época romana* (Pamplona, 1986), p. 147 y lám. XIII en la p. 47.

⁽¹²⁾ Luciano Serrano, *Cartulario de San Millán de la Cogolla*, Centro de Estudios Históricos (Madrid, 1930), CXII, pp. 210-211.

itsasalderako guzia izango zela Kornotz, eta gogoan har itsasalde hortara irtetzen den punta bera ez dela Higer, baizik Amuitz.

Olearso zen aldeko Bidasoaren behekaldean egin diren erromar aurkikuntzak ezaguturik ez gaitu harritu behar Cornotz (= Kornotz) lekuizena hor izateak. Nik neuk Hondarribian bertan aurkitu nuen ara erromarraren berri eman nuen Eusko Ikaskuntzak J. Caro Barojaren omenez argitaratu zuen lan hartan.⁽¹⁵⁾

Baina, Hondarribian bertan, lehendikako hainbeste aurkikuntzaren aztarnak hor ditugu lekuko: Horregatik ez da harrigarria inguru berean Cornotz (= Kornotz) lekuizena aurkitzea.

Euskal Herriko itsas-hegaleko erromarren aurkikuntzeri buruz hor dugu, bilduma orokorrez, Milagros Esteban Delgadok argitaratu zuen *El País Vasco atlántico en época romana* liburua⁽¹⁴⁾. Zalantzarik gabe, lan ona burutu zuen. Baina, lehenik kontutan hartzeakoak ditugu M. Martín-Bueno eta J. Rodríguez Salis ikertzaileen: "The anchorage of el Cabo de Higer, Fuenterrabía"⁽¹⁵⁾ alde batetik eta "El Jaizki-bel y el Promontorio Oiasso a propósito de un nuevo hallazgo numismático romano"⁽¹⁶⁾ bestetik, beraiek zuzenean egin zituzten ikerketa lanak azalduz. Lan hoiei gaineratu zizkion

⁽¹⁵⁾ J. San Martín, "Ara romana en Hondarribia", *Julio Caro Barojari Omenaldia*. (Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1986), *RIEV*, Vol. I, pp. 481-486.

⁽¹⁴⁾ Milagros Esteban Delgado, *El País Vasco atlántico en época romana* (Mundaiz. San Sebastián, 1990).

⁽¹⁵⁾ M. Martín-Bueno eta J. Rodríguez Salisek aurkeztutako "The anchorage of el Cabo de Higer, Fuenterrabía". *Nautical Archaeology* 4 (London-New York, 1975).

⁽¹⁶⁾ J. Rodríguez Salis eta M. Martín-Buenoren, "El Jaizki-bel y el Promontorio Oiasso a propósito de un nuevo hallazgo numismático romano", *Munibe* 33 (Donostia, 1981), pp. 195-196.

Martín-Buenok Bidasoaren itsasalderako irteeran aurkitu ziren keramiken berriak⁽¹⁷⁾. Eta hoiei buruz A. M. Benito eta R. Emparanek egin zuten ikerlana⁽¹⁸⁾.

Jaizkibel gailurrean aurkituriko erromarren diruak eta Bidasoaren ahoan keramikak, ez dut esan beharrik Erroma aldetik ekarriak zirela, ez hemen bertan eginak. Eta, horiek ez ezik, Irun eta Errenderian eginiko aurkikuntzak ere kontutan harturik, ulerkaitz zait M. Esteban Delgadok bere liburuaren 406. orrialdean Hondarribian aurkitu nuen ara erromarrari buruz dioena: beste aurkikuntzokin ezer ikusirik ez duena bere ustez, denbora modernoetan ekarria izango dela azalduz.

Nire lanean adierazten nuenaren arabera ordea, ez deritzat denbora modernoetan berriki ekarria, bai ordea inguruan diren antzinatiko beste aurkikuntzeri lotu beharrezkoa.

Alde batetik, Lapurdiko Getarian J. L. Tobie irakasleak ikertu zuen harria hor da⁽¹⁹⁾, Azparneko hilarrian aurkitua ere bai, P. Charrittonek bere lan batean agertzen duena⁽²⁰⁾. Eta horiek ere ez daude gure inguruko tokietako harriarekin eginak.

Baina, bada besterik ere: Zuberoako Atharratzetik laster, Aranhe gailurrean bada Maria-Maidalenaren kapera, non aurkitzen den III. mendeko ara erromarra Hondarribikoaren bezalako harriz egina. Zenbaiten ustez Venus jainkosaren

⁽¹⁷⁾ Martín-Bueno, "Hallazgos cerámicos submarinos en Fuenterrabía", *Sautuola II* (1976-1977).

⁽¹⁸⁾ A. M. Benito - R. Emparan, "Anforas del yacimiento submarino del Cabo de Higuer, Fuenterrabía", *Colloqui "El ví en la antiquitat"* (Badalona, 1987), pp. 74-84.

⁽¹⁹⁾ J. L. Tobie, "Découverte d'une épitaphe de début de l'Empire Romain...", *Bulletin du Musée Basque* (Bayonne, 1989), pp. 89-102.

⁽²⁰⁾ P. Charriton, *Pierre Broussain sa contribution aux études basques* (París, 1985), p. 48.

ageri edo aztarna da, bertan latinez irarririk dauden hitzeta-riko bat, "Heravscorritsehe" dioena, euskal jatorrikotzat jotzen dena. Hortaz idatzi nuen artikulu bat ⁽²¹⁾.

Bordeletik hurbil den Saintes hiriko erromar aztarnen artean aurkitzen dira Hondarribiko eta Aranhekoaren antze-rako zenbait ara. Beraz, zeren zalantza izan behar dugu Hon-darribiko ara antzinatik bertan kokatua ez izateko? Jaizkibel gailurrean aurkitutako diruak eta Bidasoaren itsasalderako ahoan, Amuitz puntaren aurrekaldeko urpean aurkituriko hainbeste keramikazko anfora zatiak ere ez bai ziren hemen eginak, erromarrek ekarriak baizik. Eta Aranhe zein Saintes-koak ere, ez dira bertako harriz ezta bertan eginak ere.

"Ara romana en Hondarribia" idazterakoan ez nintzen ausartu lehen edo bigarrenengo mendekoa izango zela azal-tzen. Uste hori bai nuen A. Garcia y Bellido-ren katalogazio-an oinarriturik⁽²²⁾. Lana argitaratu geroztik, Florenziako museoan dauden arak ikustean, hango batek zeraman Hon-darriabian aurkituaren apaindura berdina eta nire usteak zuzen zebiltzan.

Dena dela, aldare-harri den ara beraren ondoan, gauza-rik bitxienetakoa iruditzen zait Kornotz (Corno) lekuizena, antzinatik belaunik belauin eta ahoz-aho gure egunotara arte iraun duenez.

⁽²¹⁾ J. San Martín, "Barkoxeko altxorra eta "Heravscorritsehe" oroitarria", Bil-boko *El Correo* egunkariaren *El Correo Escolar-Asterokoan* (1986ko azaroaren 6an).

⁽²²⁾ A. Garcia y Bellido, *Arte romano*. (Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Segunda edición. Madrid, 1972).

6.

HIRI ETA HIRITAR IZENAREN ERABILERAZ

Idatzia bezalakorik ez dago izenak ahalik jatorren gordezkeo; gainera, ofozialki bada hobe. Zoritxarrez, historiak ez dio eman euskarari era ofizialean erabiltzeko aukerarik eta, onerako edo txarrerako, denborak berea egin du.

Orain, administraritzan euskara erabiltzeko aukera etorri zaigunean, eztabaidarik eta ulertu ezinik anitz sortu du Hondarribia izenak. Hori dela eta, behingoan normalizapenean behar bezala finkatzeko asmoz, proposamenezko zenbait ohar eskaintzera nator, zuzen erabili ahal izateko. Hala ere, ez nuke nahi inori bidea hertsirik uztea. Beste inork argibide hoberik eman ahal balezake, ez nioke entzungor egingo. Baina, arren, zerbait eskaini nahi duena betor agiri zehatzen argibideetan oinarriturik.

Nire asmoa hiri eta hiritar izenaren erabilera jatorraren adibideak eskaintzea denez, hortarako non oinarritzen nai-

zen jakin nahi duenak lehenago gai hortaz idatzi nituen lanetara jo beharko du, *Bidasoan* aldizkarira⁽¹⁾.

Hiru zatik osatzen dute izenaren esan nahia: HONDAR - IBI. Eta hori dute beren iturri erdarazko Fuenterrabia eta euskaraz ahoz heldu zaigun Ondarribiak.

Hizkuntzak berezkoa du eboluzioa, eta eboluzio hori neurri handi batean onartu beharrezkoa zaigu, baina bere izate jatorraren kontrakoa edo nahasmendua sortzeko bezalakoa denean zuzenketa komeni da. Aldaketak funtsezko arazoak behar ditu eta lehenik eta behin, bi erak euskaratikakoak direnez eta Hondarribiko hiria euskalduna izaki, zentzuzkoa deritzagu erabakia sustraietan bertan aurkitzea.

Adirerazpenaren arabera, hara hemen zenbait adibide:

HONDAR- sustantiboak hasierako H aspiratua galdu zuen aspaldi eta baztertu ezinik ez dugu; baina, orduan euskaldun izen jatorraren alde jokatzeko indar gabe aurkituko ginateke erderaz hain desegoki itzulia zen Fuenterrabia-ren aurrean, zeren F horren zergatia H-ak argi eta garbi erakusten digunez. Horregatik, Hondarribia, H-kin onartzen ez badugu, nekez baztertuko dugu erdaraz hain bihurri iritsi zaigun Fuenterrabia. Batzuk hala defendatu nahiko dute, espainoltasunaren ustetan; baina oker daude, zeren izen hori gaskoinek emana zenez. Euskarazkoan aurretik gaskoina jarri nahi duenaren espainoltasuna ez da bidezkoa. Eta H, F egin zuten haiak gaskoinak izan ziren. Bigarren fonema, o, u aldatzea maiz gertatzen da euskaldunon artean. Horregatik, inork uka ezinezkoa da Hondarribiaren jatortasuna.

-ABI, IBI-ren metatesia baizik ez da, nire lan haretan esaten nuen bezala. Bestalde, ibia, agiririk zaharrenetan aurki-

⁽¹⁾ Ikus, izenaren izana, euskaraz, *Bidasoan* (1985. Hondarribiko jaiak) zenbakiaren 20. orrialdean eta agirien agerpena, gazteleraz, hurrengo zenbakian, *Bidasoan* (1986. Udaberri) 42-43. orrialdeetan.

tzeaz gainera, auzoko ditugu Behobia (antzina, Behoibia zena) eta Urdanibia lekuizenez.

-A, azkenik, artikulua baizik ez da, inesiboan izenak berak hartzen duena, eta bestelakoetan erortzen dena.

Hara hemen erabilera jatorraren adibideak:

Hondarribia

Hondarribian

Hondarribira

Hondarribitik

Hondarribiko

eta abar

Herritar izena ordea, jentilizio deritzana: *hondarribiar*, behar du izan, eta ez hondarribitar. Legez, bukaeran bokalez (vocal) denean *-ar* eta kontsonantez *-tar* edo *-dar*; kontsonante gogor edo bigunaren arabera. Adibidez, irundar eta elgoibartar edo zarauztar.

Hondarribia, soilik, artikulurik gabe, hiritar edo jentilizio gisa edo pareko. Hondarribiar batek herbestean hartzen duen izena da, inoiz kanpokoentzat izengoiti bezala bihurtzen dena. Baina, otoi, inoiz ere ez hiriarena; hiriak euskara jatorrez, artikuluz bukatu beharra du: *Hondarribia*. Zein eta Donostia bezala, eta ez Donosti. Horregatik ezagutzen dugu antzinako esaera zahar hura: Gorostian, gorosti eta Donostian, donosti (Donostian, donostiarra adieraziz).

7.

HONDARRIBIAREN JATORRIZKO ARMARRIA

Gaur egungo Hondarribiaren armariak lau kuartel ditu. Lehenengo era jatorrezkoari beste hiru erantsi zaizkio, baina lehenaren parte bat erdi-erdian jartzen zaio armarritxoan agertzen den gaztelua izaki.

Jatorrian, 1297ko zigilu hura dugu, lau arpoilari trainerutik balearen ihizan. *Hondarribia* aldizkariaren 28. zenbakiko 9. orrialdean argitaratu nuen irudi hura, zeinek bestaldekutik gaztelua zuen. Geroztik gaineratuak, aingerua, leoia eta lamiak dira.

Zigilu zahar haren ondotik aurkitzen dugun lehen lekukotasuna XVI. mendeko harlandu batetan dugu, bertan, zigilu haren bi alderdietako irudiak tailaturik agertzen dira. Harri hori, askaturik, batetik bestera omen zebilen eta, gal ez zedin, Jose Garai erretore zenak jaso eta elizaren ifarraldeko atarian jarri omen zuen, Llobregat kondeak *Fuenterrabia*. *Noticias históricas* liburuan dakarrenez. Liburu horren

bigarren argitalpena baizik ez dut (1942) eta 24-25. orrialde-
etan irakur daiteke eta fede ematekoa deritzat.

Armarri horretan, zigiluaren bi alderdiek zeramaten iru-
diak batetan biltzen dira: itsasontzi bat gazteluarekin eta,
gazteluaren bi aldeetan, bi arpoilari balearen ihizan. Arma-
riak, azpikaldetik hasita, bere biran duen giltzean, honako
idazkuna du: *De la corona de Castilla, éstas son las armas
de Frr.* Esan beharrik ez dago azken *Frr.* horrekin Fontarra-
bie edo Fuenterrabia adierazi nahi duela.

Zer da irudien sinbolo horiek adierazten digutena?
Zalantzarik gabe esan ahal genezake, lehen lehenik herri
honek antzinatik zekarren balearrantzaren bizikera; bestal-
de, gazteluak era berean hartzen ditu hiriaren murre edo
hesi eta gazteluarekin Gaztelaniaren jabetza eta babesa.

Lehen Nafarroako zen Hondarribia, errege Alfonso
VIII.ak kendu zion, itsasoko bidea mozteko eta orduandik
indartu zen hiribildu. Gero, Karlos V. enperadoreak, noski,
antzina Nafarroako errege Santxo Azkarrak eraiki zuen gaz-
telu zaharraren gainean handitu eta berri zuen orain ezagu-
tzen duguna.

Harlanduzko armari hori, Karlos enperadorearen den-
bora berekoa izan daiteke, zeren estilo edo egituraren alde-
tik Pizkunde artearen garaikoa bai da. Historiaren argibide-
rako lekuko bikaina da armari hori.

8.

ERDI AROKO BI ITSASONTZIREN IRUDIAK

Euskal gaietan aritzen diren zenbaitek antzinatik sigilu, armari eta ateburuetan zizelaturik aurkitzen diren itsasontziez bilketa zein aipamen bereziak eskaini dizkigute. Baina gai hoietan ere, nere ustez, oraindik izan dezakegu zer bildu eta zer iker.

Erdi Aroko itsasontzien irudiak urri dira, eta hara non konturatu naizen Hondarribiak gutinez bi badituela. Horien berri eman nezake gaurkoan.

Santa Maria eliznagusi gotikoak apaingarrizat dituen irudiak garrantzizko iruditzen zaizkidan itsas giroko ikonografia du bere baitan. Begiramena erne jartzen badugu, hor aurki ditzazkegu itsasoari hain loturik dauden gaiak. Oroï elizan sartzeaz bat, Aitaren egiteko ere, atearen bi aldeetara ur bedeinkatu ontzizat txirla handiak ditudela. Ekalde urrutietatik ekarriak noski.

Ezker aldeko hegalarren elizburuan San Pedroren aldara du Arrantzale Kofradiagatik jarria, eta hegal horren lehen tartean, korura igotzeko eskaileak dauden parte hortan, sabaiaren erdiko medaila handian ikus dezakegu San Pedroren irudi eder bat. Baina bestaldean, koruaren euskarri den eskubiko lehen zutoiak hegoaldetik, koruko solairuaren alturan, harlanduan zizelatutako izurdea ageri du. Eta esku-bialdeko hegalarren hirugarren tartean ordea, sabaiaren erdiko medailan, bi itsas-lamia eta aldamenetara bale arpoiz joa, karabela eta abar. Ondare berezi bezain bikaina osatzen dute.

XIII. mendeko trainerua.- Egia esan, historiaz zerbait arduratu garenontzat aski ezaguna genuen 1297. urteko sigilua. Ziurrenik Hondarribia hiri izendatzeaz bere ezkututzat emana. Medaila osatzen duen sigilu horrek, alde batean gaztelua du eta bestean trainerua bale arrantzan.

Traineruan lau gizon, atze-aurreko biek erraunean eta erdiko biek balea arpoitzen.

XV. mendeko karabela.- Oso bitxia iruditzen zait, zeren harrigarria da ertaroko itsasontzi hontaz orainarte inor ez konturatzea zer den eta noizkoa denaz.

Bere formaren arabera, uka ezinezko karabela dugu. Colón indietara abiatu zen ontzi haien antzerakoa, baina duen aparejoan konturatuko gara ontzi hau oihal bakarduna dela. Palo nagusian ordea, argi nabari zaio, garai haretan zelatariarentzako ohi zen tokia.

9.

SANTA KATALINA, XIV. MENDEKO ERRETAULA HONDAKINETAN

Hondarribiko eliz nagusiaren ikerlanez burutu dudan *Santa María de la Asunción* deritzon liburua, laster agertu zen. Gazteleraz egina dut, eskuratu ahal izan ditudan ageririk gehienak hizkuntza horretan zeudenezkero eta horren arabera zenbait testuren lekukotasuna zuzenago eman beharrez.

Lehenago berpizkunde garaiko Joanes Iriarte eskultore erromanistaren erretaula hondakinez aritu nintzen bezala (ikus "Joanes de Iriarte eskultorearen mendeurrenean" zeritzon artikulua *Hondarribia*, 66. zenb., 20-21. orr.), oraingotan, lehenago toki berean zen eliza erromanikoan egon zen XIV. mendeko erretaularen hondakin direnaz arituko naiz, alabastroz eginak eta Alexandriako Santa Katalina martirearen historia gaia adierazten digutenak.

1918. urtean López del Valladok begiz jo zituren elizaren erretaula zaharrekotzat, baina ikerkuntza ez zuen sakondu,

gainera ez zuen jakin edo igarri, karaitz harri-zuriz eginak, marmol eta alabastroren artean bereizten, bere ustez marmolezkoak bai ziren. Lehenago, Xavier de Cardaillac-ek *Promenades artistiques. Fontarabie* (1896) liburuaren 221. orrialdean ondare bitxitzat aipatzen zituen, gotiko zaharreko zatiak ziren iritzia azalduz.

Santa Katalinaren alabastro panel horiek Ma. Asunción Arrazolak *Fuenterrabia* (1974) deritzon liburuskaren 64. orrialdean aipatu zituen eta 65.ean horietako baten argazkia orrialde osoa beteaz argitaratu zuen. Baina ez zigun bestelako argitasunik eskaini.

Florentino Portu zenak bere monografian zioenez, XVI. mendean kendu omen zuten erretaula hura, hiritarren ustez eliza berrian txikiegia izateaz gainera zerbait hondaturik zegoelako. Ikus F. Portu, *Fuenterrabía. Notas históricas y curiosidades* (1975), 312. orrialdea. Edo, Gipuzkoako Diputazioak bigarren argitalpenez, 1989an atera zuenaren 556. orrialdean. Dena dela, bere ordeztu zen XVI. mendean Joanes Iriarteri eskatu zuten erretaula berria, eta orain bere zatiak ere sakristian daude.

Nire ikerketak jarraituz lortu nuen jatorriz Ingalaterrakoak zirela. Han, Nottingham, York edo Londresen ziren tailer haietarikoren baten eginak noski, zeintzutatik XIV eta XV. mendeak zehar Europa osora zabaldu zituzten euren arte lan berezi horiek.

Euskal Herriko kostaldean badira Ingalaterrarekiko merkataritza bidez ekarriak, adibidez Plentzian dugu lekukotasunetariko bat. Baina Hondarribikoak dira, eta ez beste, Victoria and Albert Museum delakoaren English Medieval Alabasters saileko katalogoan aipetzen diren bakarrak. Hala ikus dezakegu Francis Cheetman-ek burutu zuen *English Medieval Alabasters with a catalogue of the collection in the Victoria and Albert Museum* (Oxford, 1984). Katalogo honek Europako mapa dakar azken partean erantsirik,



Elizako landu zabarren zatiak.

Inglaterran eginikoak non dauden tokiz-toki adieraziz eta bertan dator Hondarribia.

Erretaula haren zatietatik gorde direnak, lau pieza guztira, gotiko estilozkoak dira. Horietako hiru eskuberetik edo lantegi berean eginak noski, hirurak aski hondatuak, Alexandriako Santa Katalina martirearen historia adierazten dute. Laugarrena ordea, handiagoa eta beste esku batetik egitura nabari duena, beronen irudiak Kristoren piztuera aurkezten digu.

Ondare baliagarritzat har ditzagun, zein arte aldetik edo historiaren ikuspegitik, eta behar bezala zainduz gordetzea ondo merezi dute.

10.

SANTIAGO BIDEA HONDARRIBITIK

Santiago bidea Hondarribitik igarotzen zenaren aipamen soilak ditugu, orain arte inork ez bai du agiri zehatzik agertu. Horren adibide batzuk emango ditut gaurko hontan.

Euskarazko testu zaharretan Jon-Done Jakue bezala azaltzen zaigu gaur egun Santiago dena. Piarre Lhanderen *Dictionnaire Basque-Français* (1926) begiratzen badugu, gidari lagunduko digun "Jondoni Jakobeko bidea" (*voie lactée*) dela ikus dezakegu. Esan beharrik ez, horren arabera euskaldunok aspaldikoa dugula izendatzeko era hori.

Erdi Arotik ezaguna zen Hendaian Subernoia zeritzan ospitalea, Santiago bideko erromesak babesten zituena. Hortik eman zitzaion Santiago zubiaren izena Hendaiaitik Irunerakoari.

Baina besterik zer? Zubi hori baino lehenagotik bazen Hondarribiko portugarren auzoan Madalena ermita, Santiago kalearen mutur batean. Madalena ermita hauek antzina

gehienetan ibai ertzetan eraikitzen ziren erromesen ostatu-
tzat. Beraz, pentsatzekoa da hemengoak ere eginkizun hori
beteko zuela.

Ibiak baliatzen zituzten Erdi Aroan zubirik ez zen tokietan
ibaiak igarotzeko. Oroï itsasberan ibi bihurtzen zelako hartu
zuela hiriak bere izentzat Hondarribia. Horren kideko dira
hemen bertan Urdanibia eta Beoibia (gaur Beobia dena).

Yves Bottineau-k *Les Chemins de Saint-Jacques* (A. Valien-
te-k gaztelerara itzulia 1965. urtean Barcelonan argitaratu zen
J.M. Ruíz Morales-en hitzaurrez). Liburuaren azken partean
zekarren mapan ikus daiteke, esan ohi den bezala, zein zaba-
la zen Santiago bidea, eta hor agertzen zuenez Bidasoa itsaso-
ratzen den mugatik jartzen zuela bideetariko bat.

Baina bestelako bi lekuko zehatz ere baditugu XV.
mende bukaerakoak.

Bata, duela bosteun urte Burgostik, 1496. urteko urriaren
4an, Joana eta Joan printzeak Hondarribiko "alkaide" zen
Diego López de Ayala kapitainari idatzi zien gutunean, fran-
tsesei sarrerarik ez uzteko agindua emanaz, hara zer zioen:
*"...es mal recaudo dexar assi entrar libremente quantos
franceses entran, vnos so color que van a Sanctiago, otros
con otro achaque, deueys mucho mirar..."* (ikus, Duque de
Frias, "Cartas de los Reyes Católicos al Capitán Diego López
de Ayala, alcaide de Fuenterrabía". *Boletín de Estudios His-
tóricos sobre San Sebastián*, 4 (1970), doc. 59.

Bestea, garai bereko irudi bat, Santiago erromes, Santa
Maria parroikiko korupeko sabaiaren gangan aurkitzen
dena, bere kapelan txirla, lepotik katez gurutz itxurako gil-
tzia zintzilik eta eskuan makila. Gotiko bukaerakoa bere
estiloz.

Bidea, esango nuke, Hondarribitik Lezora zuzen zijoala,
orain adieraziko dudanez. Bide horren aztarnarik bada Jaiz-
kibel mendiaren hegoaldeetik zeharka.

Hasiera, Sainduatik Botika baserrira, zeren garai haietan botikak ez bai ziren sendagarriak saltzeko bakarrik, hiritik irteeran bidailaria zernahitarik hornitzeko baizik; gainera jakina, sendagarriak ere bai. Handik goraxeago dugu Galtzaraburu baserrira, izenak berak salatzen du nondik igarotzen zen galtzara zahar hura. Eta Galtzaraburutik, zalantzarik gabe, Arkoll burura zijoan, non dagoen Santiago ermita (gaur Santiagotxo deritzaiona). Gero, nire ustez, Montserrat ermitaren ingurutik Ipistikura. Ipistiku ez da besterik apezpiku edo obispo baizik. Ez dakit zertatik duen izen zahar hori, baina daitakeena noizbait ipistikuaren egoitza izatea edo bidean ipistikuak inoiz hori ostatu edo babesleku har zezakealako.

Ipistikutik Esteuz gaina hartuko zuen galtzarak, zeren hara iritsi baino lehentxoago oraindik argi dago han erreka igarotzeko harlanduzko ibia, zubia egitea baino errazagoa zena. Esteuztik zeharka Alarguntza baserri aldera. Arrutela-ko Inaxiok kontatu zidanez, lehengo zaharrei entzuna zuela diodan inguru hoietatik zela errege-bidea, baina horren aztarnak desegin zirela mendietako pistak irekitzean.

Altura haiek ikusgarriak izango ziren erromesentzat, ekalde eta egoaldera eskaintzen zizkioten uhartze ikuspegi ederrez eraginik izango zuen Frantziako lautadak igaro ondotik.

Alarguntza ondoan gurutzatzen zen Gaintxurizketa alde-
tik zetorren bide zaharrarekin. Bide zahar hori, Inaxiok di-
nez, oraindik oroitzen dela Aralardik behorrekina Jaizkibele-
ra negua igarotzera zetozen abeltzainek erabiltzen zutela
Iskulin gaina hartzeko eta handik mendiaren gibelaldera.
Horren lekuko bada oraindik hor trikuarri bat.

Alarguntzatik laster, oraindik galtzadaren bi zati agertzen
zaizkigu, lehena zubitxo batekin. Bere egiturak Erdi Arokoa
diruti. Hortik Jaizkibelgo allerruak zehar beruntza jetsiko
zen Lezora.

Oraindik bada zer ikertu Gipuzkoa zehar. Beste muturrean, Deba ibai ondoan dago Astigarribia, Sasiolatik hurbil, eta urtetxoak dira handik Arno mendia zehar Arnoatera eta handik Bizkai aldera dijoan galtzada ikertu nuela. Gaur hemen dakartena horren adierazpena ez denez, utz dezadan.

Baina, bukatzeko oroitu nahi nuke, zerbait esan nahi dutela Compostela bertan "Callejuela de Fuenterrabía" eta "Plazueta de Fuenterrabía" izen horiek. Hemendik zijoan bidearen oroitzapena ez ote?

11.

TURKOBURUARENA

Turkoburuez baliatzea ez da gaurko kontua. Bidasoako mugak hizketan balekitez, historia eta istorio politik kontatuko ligukete. Izan ere, bi Estaduren arteko mugak beti izan dira gaizkile eta mendekarien babesleku.

XIV. mendearen azken aldera omen zen, errege Endrike III.aren denboran. Alonso de Gijon kondea auzietara eramane zuen eta honek ihes egin eta Baionan errefuxiatu. Orduan, erregeak kondearen burua eskatzen zuen.

Garai berean, Zeballosarrekin auzika eta borrokan zebiltzan Gonzalezarrak eta Pedro Gonzalez laugarrena atxilotu zuen zenbait heriotza leporatuz. Urkamendira eramatea baino nahiago izan zuen barkamenduz hitza eman, kondizio batekin: Alonso de Gijon zelakoa bizirik edo hilik arrapatzea. Hara hor, zigortua zigortzaile.

Orduan ere bazekiten okerbidezik zebiltzanekin baliatzen. Beraz, ekintza horien arabera, GAL eta kidekoen erako

ekintza ez da oraingo kontua. Hemen biltzen dugun gertakari hau Lope García de Salazarrek dakar *Las Bienandanzas e Fortunas* deritzan kronika haretan (XXV. liburukiko 178. folioan). Ahaide nagusien borrokez gainera Erdi Aroko gaizkileen berririk aski ematen digu. Halajaina! Nolan zitezken haiek izenburuko "ibilera on eta fortunak"?

Dena dela, Pedro Gonzalez hura apenaz zen kasta zuzenekoa. Han kontatzen denez, 16 urte bete zituenerako istiluetan sarturik ibiltzen omen zen, beti zerbaitarako prest, sesuia han eta sesuia hemen, zenbait heriotza leporatu arte. Baina, Endrike III.ak atxilotzeaz justizia bihurtuko zuen batzuren ustez. Eta, Bidasoaz harandik, ifarraldera amain eman zioten erregeren etsai zen Gijon kondearekin buruzburu jartzeko asmoz. Eginkizu hortarako Hondarribia hartu zuen zubi. Egin beharrezkoa egin eta bertara itzuli ahal baleki, bere auzietatik barkaturik geldituko zen, baina han eroriko balitz inork ezingo zuen ezer egingo. Hori izaten bai da turkoburuaren zoria.

Pedro Gonzalez laugarrena, etxea eta ondasunak Burgos aldean utzirik, sekretuz igarotzen utzi zuten Bizkai-Gipuzkoetatik Bidasoaz bestaldera. Baina, Donibane-Lohizunen preso hartu zuten eta turkoburutzat zijoala jakin zutenean dirua eskatu zuten bere buruagatik. Erregeak, bere menpeko zuen Mosen Juan de San Pedro-ri eskatu zion laguntza eta lortu zuen presondegitik ateratzea eta Hondarribira ekarri. Baina, hemen ere, gaizkile gisa hartu zutenez, erregerengana jo zuten laguntza eske. Kronikak dioenez: "e pasó a Fontarrauja. El esperado merced del Rey, que le avia escrito que se venjese a el, porque auja puesto en obra lo que le mandara, e venjendose, falleció, e esta muerte del Rey fue causa de su muerte a perdiçion...". Hor ba. Erregeren uste gabeko heriotzak gaizki irten zitzaion. Beraz, erregeren hitza herioak eraman zuen eta Pedro Gonzalez laugarrena urkamendira kondenaturik izan zen.

12.

GAZTELAKO ERREGEEN MENPERATZE HURA ETA XVI. MENDEKO GUDUA

Gaztelako Errege Alfonso VIII.a, 1200. urtean Gipuzkoan sartu zen eta ordurarte Nafarroa zen Pasaiatik, edo hobeto esan, Oiartzun errekatik Bidasoa ibairainoko lurraldea ere hartu zuen. Horrela, Nafarroak itsasora zuen irteera bakarraz jabetuz.

Hortik sortzen da inguru hauetako pakerik eza. Horren lekukotasunaren ondorioetariko bat dugu Aman de Labriten erasoaldia, 1476an Hondarribia berreskuratu nahirik etorri zenekoa. Baina alperrik. Erretiradan Irungo Aranzate dorrean gorde ziren gudarosteak gaizki bukatu zuten, inguraturik eta dorreari su eman ziotenean hirurehundik gora bertan hil ziren. Ikus Luis de Uranzuren *Lo que el río vio* (1955), 140-142. orr.

Feudal garaia zen eta, ohi zenez, jauntxoek zein erregeek elkar menderatuz ihardutzen ziren. Gaztelako errege hark

jauntxoek elkar ezinaz baliatzen jakin zuen, batetik Oinaz eta Ganboarren borroketaz aprobetxatuz eta Nafarroan Agramont eta Beaumont aurrez-aurre jarritz. Horren ondoriozkoa zen 1512. urtean Fernando errege Katolikoak Nafarroa indarrez hartu zueneko. Nafar erregeak nekez eutsi zion Seigarren merindateaz (gaurko Baxenabarra) soilik gelditzean. Orduan gertatua zuten jakiteko biderik egokiena Fernando Katolikoaren agindupeko Duke de Alba jeneralaren koronikagile zen Luis Correatoren liburua dugu noski, *Historia de la Conquista del Reino de Navarra* deritzana, hitzaurrez eta oharrez J. Yanguas y Miranda Nafarroako Diputazioan idazkari zenak berargitaratu zuen 1843an.

1516. urtean, Albretarrak, Agramondar buruzagiz eta Baxenabarreko jendearekin, Baztandik jo zuten erasoaldia Nafarroa berreskuratzeko asmoz. Inguru hoietako nafarrak jarraitu zitoten, baina, ahalegin ahula nonbait eta atzera jo zuten.

Ordukoa dugu gure historian maiz aipatzen den Amayurgu gudua. Eta urte berean, handik laster hil zen Nafarroako Errege Joan Albrit II.a. Ondoren, Seigarren merindatea, Zuberoarekin batean, Biarnorekin elkartu zen.

Hala ere ez zuten amor ematerik nahi eta 1521ekoa dugu Irungo San Martzialgo gudua, Behoibiako Gazteluzar (garai haretan Behoibia zen gaur Behobia dena) hurrengorako utziz, hartu zuten San Martzial handik Hondarribiara sartzeko.

Henrike Albret printzea (Joan II.aren semea) buruzagi zela Hondarribiaz jabetu zen, Frantziako Errege Franzisko lehenengoaren laguntzaz. Bi urte t'erdian hemengo jaun eta jabe izan ziren. Bestetan bezala, nafarroako erregeen alde fidelki jarraitzen zuten agramondarrak, zeintzuri elkartzen zitzairen Borts Hirietatik haruntzako jenderik gehiena eta Irun bertako batzuk ere bai. Eta gudu haretan, Hondarribia ez ezik Nafarroa guziaz jarri zuten sutan.

Askok diote probintziko indar foralak zirela hemen eutsi zietenak. Egia da, baina ez ahaztu Gaztelako erregeren egin-

dupeko zirela eta garaipena ere Hango gudarosteen laguntzaz lortu zutela.

Luis de Uranzuk *Lo que el río vio* (1955) liburuaren 148-158. orrialdeetan ongi adieraziak datoz inguru hauetako gertakariak. Baina gertakarion nondik norakoa jakinarazteko Esteban Garibairen *Compendio Historial de España* (1571) deritzan liburua hartu zuen oinarritzat eta, nere ustez, hobeto baliatuko zen Arnould Oihenarteren *Notitia Utriusque Basconiae* (1638) delakoan oinarritu balitz, zeren hau bai da garai haretako historia libururik serioena.

Gainera, horien geroztiko ikerketak bestelakorik erakusten digute. Esate baterako, ezagutu beharrezkoak zaizkigu oraintsuagoko F. Idoateren *Esfurzo belico de Navarra en el siglo XVI* (1981), 219. orrialdea eta garaiko gertakariez 271-320. orrialdeetan dakartzan agiriak, Nafarroako artxiboetatik zuzenean transkribatuak; aldi berean, J. Goñi Gaztanbideren *Historia de los obispos de Pamplona* (1985), III. liburukiko 145-147. orr. eta IV.eko 73 eta 214-222. orrialdeak.

Henrike Albret Nafarroako printzeak Frantziako laguntza ezik hemen bertako askorena ere jaso zuen, erregegai zuzena zeritzaielako. Horregatik, hesia bukatu zenean, Errege Karlos V.ak parkamena eskaini zien, aurrerantzean bere alde leial jokatzeko baldintzarekin. Aipatu dudan Florenzio Idoateren liburuan 309-313. orrialdeetan datozen agirietan ikus daitakenez.

Karlos V.a politikalaria ona zen, ezin uka. Bere Gortetik hasita, euskaldun asko zituen inguruan lagun, Agramondarrak ezik. Horregatik gogoratzen zuen Michel Iriartek *Corsarios y colonizadores vascos* (1945) liburuaren 43. orrialdean, Nafarroako erregeeri leial jarraitzen zietenek jarritako esaldi hura:

Karlos Kintoren baratzan

Akerrak ezpata-dantzan.

Gainera, Jose Goñi Gaztanbideren lanean agertzen zai-
gunaren arabera, Errege horren garaian, kontzigna bidez
ahalegindu omen zen Iruineko ipiztikuak (apezpikuak) gaz-
telaniarrak izan zitezen, ez nafarrak eta gutiago mendialde-
ko euskaldunak, zeren hauek omen ziren agramondarrekin
batean H. Albret printzearen alde leialtasun zintzoz armetan
jaikitzen zirenak.

13.

LAZKAOKO JOANESEN KANTA

Gazteleko erregea gipuzkoaz jabetzean, ordurarte bertakotzat ez zuen antzinako Oiarso eskualdeaz ere jabetu zen. Erdi Aroko historian Nafarroaren erresumako zena eta elizaz Baionako Apezpikutegikoa.

Ondoko urteetan inguru honek, bake guti ezagutu zuen, nafar erregetza suntsitu arte. Mende bat geroako, 1321ean, Beotibarko gudua, Tolosa ondoan, nafarrak ari ziren gipuzkoaz berriz jabetu nahirik. Zaldibia historiagileak bilduriko kantak dioen bezala:

*Mila urte igaro eta
ura bere bidean.
Gipuzkoarrak sartu dira
Gazteluko etxean,
Nafarroakin batu dira
Beotibarren pelean.*

Gazteluko etxea, hori ez zen errege koroarena baizik, eta, nonbait, XIII. mendearen haseran Gaztelako erregerekin bat egin geroztik ere Nafarroakin loturak berrizteak ezagutu zituela erakutsi nahi du.

Beste bi mende pasatu beharko ziren gudu zital haiek baretzeko. Baretzeko diot? Ez. Zeren, hobeto esan, ez zegoen baretzerik batak bestea menderatu artio.

Bizkaiko Aulestin Bengoetxeatarren armariak honako irarria ekarriarren,

*Bekoak goikoa eskondu leidi
Ta txikiak haundia benzi leidi,
Asmuz eta jakitez.*

Garai hartan nafarrok ez zuten erakutsi asmoz eta jakitez zuhur jokatu ahal izateko politika egokirik. Aldiz, Gaztelako erregeek maltzurragoak izaki eta zuhurtasunez jokatu zuten Ahaide Nagusiak beraien artean sortzen zituzten borrokak aprobetxatuz. Batean agramont-beamondar eta bestean oinaz-ganboar gudueri pizgarria emanaz, hortarako, jauntxo-en artean poteretsuenei lagunduz. Adibidez, Leringo kondeari lagundu zion bezala, Vatikanotik ere nolabaiteko bula lortuaz. Edo, hiritarren batzarreak anaikide bilduaz, Gipuzkoako "Hermandadeak" adibide, herria pribilegiozko foruz hornituz eta aitonensemetsa unibertsalki aitortuz, Gipuzkoaren kasoan edo Bizkaiari hain berea zuena gordetzeko beharrezko zuen berma eskainiz. Historiako aldi hartan, begien bistan dago, asmo eta jakitea Gaztelak erakutsi zuela.

Gipuzkoan, lehenik ganboarrak bereganatu zituzten, horrela Nafarroari itsasorako irteera moztuz, zeren ganboar Ahaide Nagusi horiek bai ziren gehienbat itsas-hegaletako hirietan kokatuak, portuen agintariak eta era berean merkatalgoarena eta honen bidez ekonomiaren indarra zutenak. Nafarroak, etsi ezinez, 1365ean nafar errege Karlos II.ak gipuzkoar

ordezkariekin bakeak egitera heldu zen Endara portua berak aprobeixatu ahal izateko. Endarlatsa bai zen muga.

Mondragoeko errejeta izugarri hark (1448an) bultzatu zuen jauntxoen borrokak bukatzea. Gipuzkoako Hirien Anaiartearen eskariz, errege Endrike IV.ak neurri gogorrek hartu zituen, dorretxeak bota eta nagusiak deserriratzearekin. Orduetik, beraien buruak goi mailetan mantentuko bazituzten, lehenago ganboarrak bezala gero oinaztarrak ere nabarmendu ziren Gaztelako erregeren zerbitzuko. Mila urte igaro baino lehen aldatu ziren urak. Ondorioz, azkar ibili ziren Lazkaoko oinaztarrak haize berrien alde, geroxeago Loiolakoak nabarmendu ziren bezala.

Aldiz, Agramondarrik fidelkienak Frantziako errege izango zen Biarnokoaren alde jarritz. Oroi, 1280. urtean Artois eta Foix-ko kondeak izan zirela nafarren alde Hondarribiari hesia jarri zietenak. 1476an ordea, Frantziako errege Luis XI.ak asmo berdina zekarren. Espainiako historiagileek besterik badiote ere, Nafarroako erregeri laguntzea zen hesi haien helburua.

Arazo larria sortu zuten, benetan, eta Errege Katolikoek ia galdutzat emana zuten 1476ko gudu hura. Baina, iritsi zen Lazkaoko jaunarentzat aukera egokia, joanak joan, geroari begira jauntasuna zurrizteko. Joanes Lazkaokoaren deira gipuzkoar geienak etorri ziren eta Jaizkibel aldetik, Eskulin eta Jaizubia allerruak zehar jauzi ziren frantsesaren hesia hautsiz hirikoak askatzeko.

Handik datorkigu Batxiler Zaldibiak bildu zuen kanta hura:

*Juan de Lazkano beltzarana,
Gipuzkoako kapitana,
Frantsez osteak jakingo du
hura Hondarribian zana.*

Kanta luzeagoa zen nonbait, baina gaur egun lehenbiziko bertso hau baizik ez da ezagutzen.

14.

LEHEN HONDARRIBIARRAK AMERIKETARA

Duela lau urte, Amerika deituko zen Luberriaren aurki-kuntzatik bosgarren mendeurrena zela eta zenbait ospakun-tza ezagutu genituen. Gaiari zerbait erantsi nahiak eraman ninduen "Hondarribiarrak Ameriketara, XVI. mendean" zeri-tzan artikulua hura *Hondarribia* aldizkarian argitaratzera (ikus, 47. zenb., 8. or.).

Han agertu nituen *Catálogo de Pasajeros a Indias* dela-koan arkitu nituen hondarribiarren izen-deiturak. Baina orain gai hura lasaiago begiratzeko aukera izan dut eta ba dut zertxobait gehitu beharra.

Jakina da Trentoko Kontsilioaren eraginez hasi zirela parroketan bataiatuak idatziz jartzen eta Hondarribian XVI. mende erdialdera hasi ziren. Baina, nik dakidanik, errejistro horretan, hiriaren izena deituratzat duenik ez da inor aurki-tzen. Dirudienez, J. K. Gerrak ere ez zuen aurkitu, bere *Ensayo de un Padrón Histórico de Guipúzcoa* (1929) deri-tzan liburuan ikus daitekenez.

Baina inor herbesterazen zenean, aspalditik ba zen jatorrizko herri edo hiriaren izena deituratzat emateko ohitura eta horrela agertzen dira Ameriketara joan ziren lehenetarikoko bi pertsona, Fuenterrabía deituraz.

1503. urteko maiatzaren batean "La Española" (República Dominicana) uhartetik abiatu ziren itsasontzietariko bat, *La Vizcaína* zeritzana, 140 gizonekin hondoratu zen eta 26 itto; horietarik 6 euskaldunak omen eta hauetakoa bat Martín de Fuenterrabía, ontzi hartan kontramaestre zena. Jon Bilbao-oren *Vascos en Cuba, 1492-1511* (1958) liburuak bere 154. orrialdean dakarrenez.

Handik hamasei urtera, Pedro Alvarado kapitainarekin gizon talde bat Cuban ontziratuz Trinidad-era joan ziren, Hernán Cortés konkistatzaileen buruzagiarekin elkartzera. Han zijoazten aitonenseme (hidalgos) artean, besteak beste, Avila, Grijalva, Cristóbal Olí (edo Olid), Escalante, Farfán, Baena,... eta Juanes de Fuenterrabía zeritzana. Bernal Díaz del Castillo-ren *Historia verdadera de la conquista de la Nueva España* deritzan koronikaren XXI. kapituluan dakarrenez (Ikus, 1992ko argitalpena, 61. or.). Baina, liburu hortan, geroztik ez da pertsonai horren beste aipamenik agertzen.

1503. urteko urtarrilaren 20ko Erret-zedulaz sortu zen Sevillan "Casa de Contratación" deituko zen erakundea. Beraz, lehen hondarribiar hura hil zen urte berean; bigarrena, 1519aren hasieran aipatzen zena, ez dakigu noiz joana zen. Baina Martín eta Joan de Fuenterrabía, ez bata eta ez bestea, ez dira agertzen "Casa de Contratación" delakoaren artxibategitik osaturiko *Catálogo de pasajeros a Indias* deritzanaren zerrendetan. Han sailkaturik datozen hondarribiarrak geroztikoak dira.

Hara hemen urtez urte, XVI. mendean emigrante joan ziren haien izen-deiturak eta gainerako oharrak, katalogoan azaltzen denaren arabera:

1534. urtean, Juan Ochoa apeza, Nicaraguara.

1538.ean, Juan Sanchez Benesa, ez du jartzen nora zijoan.

1582.ean, Juanes de Aristoy, Perura.

1594. urtean zazpi dira Ameriketara joan ziren hondarri-
biarrak. Ez dakigu "amerikak egiteko" pozean ala krisialdi-
ren bategatik. Hara hemen zerrenda:

Juan de Aduna, morroi, baina ez du jartzen nora.

Carlos de Iburgüen eta Catalina de Alcega, senar-emazte-
ak, Nueva Españara (oroi Nueva España México zela).

Juan de Chaves, bere familiarekin (emaztea Toledokoa)
C. de Iburgüenen morroi, Nueva Españara.

Catalina de Echevarria, Nueva Españara neskame.

Gracia de Gayaz, Nueva Españara neskame.

Sancho de Ubilla, Nueva Españara morroi.

Izen-deiturak agiritan agertzen diren bezala utzi ditut,
zeren ez baita erraza jakitea han bertan ere behar bezalako
zehaztasunez jasoak daudenik.

15.

HONDARRIBIKO ARPOILARIAK

Hondarribiak bereziki, bere bizitza arrantzaren inguruan izan du. Hiriaren lehen zigiluan ere arrantza ageri zaigu. Beraz, hori da Hondarribia hiri bezala sortu baino lehenagokoa eta sortu bezain pronto aurki genezazkeen agiri ziurrak. Gainerakoak, uste hutsak.

Zigilua 1297koa da eta latinezko idazkiaren barnean bale arrantzaren irudi polit bat dakar. Hiriaren oraingo armarriaren kuarteletarik batean datorrena izan behar du. Hor agertzen zaizkigu hondarribiar lehen arpoilariak.

Hondarribiarrak, bale arrantzan ospetsuak izan ohi ziren eta joan zen mendearen erdialdera oraindik ba omen ziren Luis Gaiztoa, Joxe Karamelo eta Joxe Manuel Sereno arpoilari entzutetsuak, zeintzuei kanta jarri zioten. Eta R. M. Azkue zenaren kantategian jasorik dator, "Luis gaiztoa" izenburuz.

Azkueren kanta bilduma hori 1915. urtean saritua izan zen eta 1920garrenaren inguruan argitaratua, *Cancionero*

popular vasco izenburuz, bertan datorren 655. kanta dugu orain aipatzen duguna. Azkue zenak dioenez: "El arponero *Luis gaizto* "Luis el malo" fué un ondarrés que vivió en Fuenterrabia hace unos sesenta y cinco años". Hortik kalkulatu genezake 1850. urte inguruan bizi zen pertsonaia zela eta bere adinekoek noski Joxe Karamelo eta Joxe Manuel Sereno hondarribiarrak.

Hara hemen bildu zituen hiru bertsoak beren doinuz:

*Luis gaiztoak eman lenengo arponada,
balea harrapatzeko txit gizon ona da;
bederatzi mila erreal zutela jornala.
estimatzekoa zen orduko arponada.*

*Joxe Karamelo zen bigarren golpean,
ederki portatu zen bere suertean,
baleari odola bizkarren betean
etzitzaion gelditu ito zen artean.*

*Joxe Manuel Serenok indarrak baditu,
haren zartadakoa Getarian aditu,
jendea egin zuen orduan harritu:
izugarrizko famak hark ekarri ditu.*

16.

IRUN ETA HONDARRIBIA, CUELBIS-EN *THESORO CHOROGRAPHICO DE LAS ESPANNAS DELAKO ESKUIZKRIBUAN*

Diego Cuelbis aleman estudiante gazteak, Joel Koris bere lagun zuela, duela lau mende, 1599. urtean hain zuzen, Espainian zehar egin zuen bidaiaren oroitzapenez eskuizkribu bat utzi zigun, *Thesoro Chorographico de las Espannas* izenburupean, gaur egun British Museum-ean gordetzen dena.

Julio-César Santoy arabarrak beti agertu digu gure herriaz edonon aurkitu dituen ageri zaharrak adierazteko zaletasun bikaina eta 1972an eskaini zigun horietako bat, bere sarraz, aldaeraz eta ohar adierazgarriz, *Dos alemanes en Vasconia. Mayo de 1599* izenburuz (Vitoria-Gasteiz, 1972), eskuizkribu haretan Euskal Herriaz zioena soilki jasoaz.

Diego Cuelbis Leipzig hirian jaioa zen eta bidaiaria hura egin zuenean 25 urte baizik ez zituen.

1599ko maiatzaren hamalautik hamazortzigarrenean egin zuen ibilbidea honakoa izan zen, Irun, Donostia, Hernani,

Tolosa, Ordizia, Segura, San Adriango haizpetik gainak hartuz Arabara, Agurain (non meza entzun zuten), Gasteiz, Trebiñoko Lapuebla eta handik Ebroko Mirandara.

Baina artikulu honetan soil soilik Irun eta Hondarribiari dagokienera mugatuko naiz, testu hura euskarara itzuliz. Eta hara aipaturiko eskuizkribuaren 5 eta 7. orrialdeetan zer zioen:

"Irun.-

Hiri txiki bat da, Frantziako Donibane-Lohizune hirik bi legoatara. Espainiako azken eskualdean, Gipuzkoako probintzian, Frantziaren mugan. Hurbil eta ez hain handia ez den itsasadar ibaia igaro ondoren, zeini deitzen zaion Bidaso. Honek bereizten ditu Frantzia eta Espainia.

Hemen igaro naiz ni Diego Cuelbis Leipzig-goia nire lagun bakartzat Joel Koris dudalarik, eta Espainiako mutila nire morroi izatez asturiarra bera. Mila bostehun eta larogeta hamargarren urteko maiatzaren hamalauan eguerdiko hamar t'erdietan.

Neskak hemen burua agerian eramaten dute Baionan bezala, baina ilea guttiz mozturik, jauzika gure aurrekaldera etorri zitzaizkigun morezka eran kastañeta eta danborinarekin; eskean edozein arrotzi ongi etorria emanaz.

O Jaun Sortzaile handia eta nire Jesukristo begiratzaillea Jainkoaren seme, Aitarekin eta Espiritu sainduarekin bizi naiz, nire ondasun iturri emailtzat zaitudana. Entzun eta orain zureganako maitasunagatik eskariz erregutzen dizudana, eta egin zazu mesedez nire segurantzaz Espainiako erresuma hauetatik alai eta pozik irten nezan; Zuk gidatu zenuen Tobias morroia, gida nazazu bidean zure txit saindua lagun. Aingeru guardakoa, ez nazazula desanparatu kontzientziaz igaro leku estu honetan, arrotzontzat hain mingotsa eta garaigatiki berri gutxikoa delarik hain lan min-

garria denez gero, zaitetz Aita nire zaintzaile eta lagungarri guzti hau garaiagatik eta berri gutxiko hain lan mingarria bizitza miserable izanik ondorenean nireengana iristeko gure aberriaren onerako eta azkenean arima zeruko loriara. Gorputz eta arimaz azke nazazu arrisku guzietatik, gorde beti gau eta egun betitasunean errege bizi zeran horrek. Amen."

"Hondarribia.-

Une labur bat besterik ez Irundik eskuinaldera itsasotik hurbil gazteluz babesturik Hondarribiko hiria, nagusi eta ondo ezaguna. Espainiaren ifarraldeko itsasoan, Gipuzkoako probintziaren azken muturrean Frantziako mugondoan. Hiri hontan Pirineo mendien jarraipenari loturik du Jaizkibel mendia deritzona bere hegalak Frantzia aldera dituela. Antzina Olearso hiria zeritzaion, orain hitzak nahasturik: Oyarço harana deritzaio. Hiri hau oraintsu maiz gudukatu dute frantsesek. Orain murre-hesiz babestua da munduko hoberenen arteko. Latinez *Fons rabidus* deritzaio."

17.

HONDARRIBIKO HILARRI BIRIBILA

Hilarri biribilak Euskal Herrian antzina herbestetik etorriak edo ekarriak baziren ere, bertaratzeaz gainera, berei loturik hiletan eta ohizko arte apaingarrien euskarri izan dira. Lehen aldiz horiei erantsirik agertzen zaizkitun marrazki irudiak, geroago etxeen aintzinean edo haltzarietan nabari dira. Hilarriok sinbolojia oparoa eskaintzen digute, irudi ezagunetatik gaur egun ezagutzen ez direnetera, abstrazioa barne, Luis Colas-en *La tombe basque* katalogoa dugu horren lekuko.

Baina, oroi etruskoen artean bazirela antzerako hilarriak, ez ordea irudiak, Frankowskik adierazi zigunez, eta gurean badirudi lehen aztarnak Burdin-aroarekin datozela; Duero ibarreko Cluniarekin bateratsu agertuak, hara nola, Bizkaiko Meñekakoa eta Nafarroako Arazuri eta Santakarakoak direla.

Hilarri biribil horietarik askoz gehiago dira Nafarroan eta oraindik askozaz ere gehiago mugazandiko Euskal Herrian, aspalditikako zatiketaren omdorioz. Araba, Gipuzkoa eta

Bizkaia Gaztelako errege koroaren menpeko biltzearen ondotik. Foruei itsatsi zitzaion errege Endrike IV.aren denboran euskaldunok unibertsaiki aitonen- seme onartzea eta horrek bedorrek in zekarren eliza barnean hobiratzeko eskubidea, ordurarte ipiztiku eta handikientzat soilik gordezten zen ahalmena edo eskubidea. Geroztik hilarri materialik aski galdu da hiru eskualdeotan, maizenik harriak beste zerbaitetarako erabiliz. Horren lekuko dugu hemen aipatuko dudan Hondarribikoa ere.


Alfonso VIII.ak Gipuzkoarekin batean hartu zuen Nafarroako Oiarso parte, Bidasoaz gora itsas-marea iristen zenera arte, 1200. urtean Beloagako dorreaz jabetu zenean.

Nafarroan zein mugazandiko Euskal Herrian jarraitu zuten eliza inguruko hilerrian hobiratzin, gorpuaren burualdean hilarri biribila jarritz. Geroko urteetan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan bideetan hiltzen zirenen oroigarritzat jarriak bakarrik ezagutuko ziren. Horren berri ematen nuen *Lan-duz* (1983) liburuaren 130-138. orrialdeetan. Eta, lehengo hilarrien orde z argizaiola sortzen da eliza barneko hobian elizkizunetarako jarritz.

Beharrezkoa deritzat hilarri biribilen non noiztikakoa den aipatzea, gaurko Euskal Herriko komunitate autonomoan gutiago izate hori noiztik eta zergatik den teoria adierazteko, era hortara, aspalditik datorzkigun bereizkuntzak ulert ditzagun. Historian zehar gure geografian izan diren estatus politikoek zertara ekarri gaituenaren adibide. Gainera, bereziki, hori gabe ez bait da erraza Hondarribian noiztikakoa den Gipuzkoari loturikako jokabidea, lehendik Nafarroakoa izanik.

Baina, noan zuzen hilarri biribil horren zertzeladak zuzenki ematera.

1983. urtearen hondarretan zen, Hondarribiara bizitzera etorri eta laster, nire emaztea ohartu zen eliza inguruko horma batean hilarri biribila izan zitekean gurutzadun harri batetaz eta toki hartara eraman ninduen.



Lehendik Eliza-atzia bezala ezagutzen den tokian, duela urte guti Apezetxe Jardina egokitzeko eraiki ziren hormak egiteko, han bertan eta inguruan bildu zituzten hondar-harrien artean, landurikoak eta landu gabeak, baina ekintza hartarako zerbait hautsirik jarri zutenetako bat hilarri biribil horietako zen. Alderdi batetik baizik ez zaio igartzen biribiltasuna, han kokatzeko moztua zenez. Horman agiri denetik, 48 zentimetruko diametroa zuela esan daiteke. Materialez hondar-harria, paretoko guziak bezala. Gainerik adinako zatia falta zaio eskubi aldetik, leporik ez du eta ez eta ere lurtean kokatzeko ankarik ere. Bere berri eman nuen "Estela discoidea en Hondarribia" izenburuz Luis de Urantz Kultur Taldearen *Bidasoa Ikaskuntzen Aldizkarian* (Nº 2, 1985. urtea, 39-43 orrialdeetan). Irun, Bera eta inguruetakoez zenbait berriren oharrak gaineratuz.

Hilarriak, agerian duen alde hortan gurutzea du, muturrak hiru ostoren gisa bukatuz baina erdiko ostoa kanpokaldera punta zorrotzez, ojiba konopial erara. Hortik antz ematen zaio berandukoa dela, XV. mendearen azkenetakoa edo XVI.aren

lehen partekoa, eta biribiltasunaren gurpil egiten duena epaiki edo serra ahozko marrazki horniduraz inguraturik.

Elizaren hegoaldetik, hor bertan omen zen Ipiztiku zeritzan hilerria, "Zimenterio que llaman del Obispo" edo beheko hilerria, "el zimenterio de abajo", Florentino Porturen *Fuenterrabia. Notas históricas y curiosidades hasta 1969* (1975an argitaratua) liburuaren lehen argitalpeneko 144 eta 332. orrialdeetan irakurtzen denez.

Orain arte hau dugu hilarri biribil horietarik Hondarribian agertu zaigun bakarra.

18.

SORGINAK HONDARRIBIAN?

J. Caro Barojaren oroitzapenez.

Hemeretzi urte baizik ez zituen Julio Caro Barojak *Anuario de "Eusko-Folklore"*-ko XIII. liburukian "Hechicería vasca" zeritzan lan hura agiriz eta oharrez argitaratu zuenean. Gai haren jarraipenez sorginkeriar buruzko lanak eta hauen artean bereziki "Las brujas de Fuenterrabia (1611)", 1947. urtean *Revista de dialectología y de tradiciones populares* aldizkarian argitara eman zuten (III. liburukiaren 184-204 orrialdeetan); gero, 1975ean *Brujería vasca* zeritzan liburuan bildurik jasoko zuena.

Juliok, bere ikerkuntzak, beti jarri zituen lekuko agiri zehatzez oinarriturik. Bere aurretiko ikertzaileek zer zioten begiratzuz eta agirien arabera bere jakiturizko aburu zorrotza eskainiz. Hori izan zuen zentzuz jokatzeko modua.

Hondarribiko historian maiz entzunak ditugun Inesa Gaxen, Maria Garro, Maria Etxagaray, Maria Migel Oyangu-

ren, Maria Illarra eta Katalin Etxeberriaren epaiketak aztertu zituen, Inkisizioko Ofizio Santuko agirietan. Haietan aurkitu zituen Txomin Aranburu notarioaren paperak eta agiri haie-taz baliatu zen 1611ko maiatzean Santxo Ubilla eta Gabriel Abadia herriko alkateek lekuko zirela eman zituzten arrazoi-bideak, salatuak izan ziren pertsonak esandakoari jaraituz, zehatz-mehatz ikertu eta zentzu onez ulertuz heldu zion gaiaren mamira zuzen joanaz.

Epaiketa haretan lekukorik gehienak haurrak ziren, pubertaroko neskatoak maizenik eta zahartzaroak burua moteldutako guti batzuk. Gaztetxoek kontatzen zutenez, sor-gin horiek gau-erdian ohetik hartu eta teilatuen eta murraren gainetik hegaz Jaizkibel mendiko Santa Barbara ermitondora eramaten omen zituzten, han egiten zen akelarrea. Baina, Juliok, erudizioz eta zentzunez ondo jantziriko jakitunaren argitasunez, E. Dupré ikertzaileak 1925. urtean Parisen argita-ratu zuen *Pathologie de l'imagination et de l'emotion* liburu-ko argudioei jaramon eginaz joko zuen gertakaritzat konta-tzen zituen irudikerietara argi bila, amets haiei beren lekua emateko. Akelarre haietan sexu kontuak nahasten zirenez, nik esango nuke, errepresiozko gertakari haiek Freud-en ara-berazko psikoanalisiaz soilik epaitzekoak zirela. Baina, J. Caro Barojak nahiago izen zuen epaitzaileek zer zioten ikusi eta kasu bakoitza puntuz-puntu zehatz-mehatz begiratu-z aztertu eta bere irizpide zuzen eta uka ezinak burutu.

Ohartzen zen, gaiaren funtsean, Pierre d' Lancre zenak 1609.ean Lapurdi eta Behe-nafarroan sorgin-ihiza ireki zue-netik herri guzia izutu ondokoa zela. Salakuntzaren beldu-rrerrez, mugaz hemendikaldera ihesi zetozten emakumeen-gandik hasi zelako hemen bertan sorginen ihiza. Arestian aipaturiko gehienak frantsez-euskaldunak bai ziren: Inesa Gaxen Bastidako baxe-nafardarra, Maria Etxagaray Hazpar-neko eta Maria Garro Lekorneko lapurtarrak, adibidez; gai-nerakoak horien lagunak. Auzoek gorrotoz, aiherkandez edo beraien buruak besteen aurrean itxuraz eder egin nahi-

rik salatzaile bihurtuak. Giro hartan, fantasiari hegoak emanaz, horretaraino heldu bai zen herriaren psikosis kolektibo. Batzutan oso ankerra bai da gizartearen jokaera.

Urte haietako sorgin-ihiza, batik bat, Baztandik Bidasoa zehar Hondarribirainokoa izan zen. Mendebalderago ordea, Erreterian Maria Zozaya nafarra eta Pasaia San Pedron Marituloko izan ziren sorgintzat atxilotuak. Argi dago muga inguruan kokatzen zirela sorginkeriaren susmoak eta frantses-euskaldunak susmagarri. Horiek ziren P. d'Lancre-en epaiketaz Bordelen sorgintzat hainbeste emakume euskaldun erretzearen ondorioak.

Baina, egiaren izenean behin eta berriz esan beharrezkoa da sorgintzat epaiketara eramán zituzten emakume horiek, Alonso Salazar y Frias inkisidoreak bere txostenean argi zioenez, tormentuzko zigorpean "bai" esan arte eduki zituztela. Oroi, Salazar y Frias inkisidorea elizgizonaz gainera jurista zela eta sorginkeriaren ikerkuntzarako bereziki etorria. Herriz herri ibili zen lekuko ziurren bila, han eta hemen galdez eta ikerketaren ondorioz, inkisidore honentzat, sorginik ez zen, burubero eta zentzu elbarritu batzuren baitan ezik, eta haurren salakuntzak amets hutsak baizik ez ziren. Horri esker, "sorginok" ez zituzten sutan erre. Batzuk, Inesa Gaxen bezala, ontzian sartu eta Hendaian utzi zituzten.

Garai hura ere holakoa zen, Frantziako erlijio gerrak eta Euskal Herriko ifar-ekialdean kalbinisten itzal iraupenak, nire ustez, zer ikusirik izan zuten arazo haietan.

Horregatik edo, askorentzat ez zen komeni Salazar y Frias inkisidorearen txostenak argitzen zuenaren hedakunderik. Orduko eliza katolikoari hobeto zetorkion neurri bateko sorginkeria kalbindarrekin nahasirik bezala agertzea; horrek ematen bai zion aukera eta bide errege Felipe II.ari, Vatikanoren aurrean, inguru hauetako parrokiak Baionako Apezpikutegitik ken eta Iruñakora ekartzeko arrazoiak. Horregatik jarraitu zuen, eskualde hauetan, ondoko urtee-

tan ere sorginkerien salakuntzazko predikuekin. Besteak beste, 1618. urtea zehar Hondarribiko deitura zeraman Fray Joan de Zigarroa frantziskotarra ibili zen Baztango herrietan barna, exortzista gisa, sorginkeriak uxatzen.

Baina sorginkeriaz zerbait zehatz jakin nahi duenak Caro Barojaren lanetara jo beharra dauka.

Zalantzarik gabe esan nezake, Julio Caro Baroja, gure iraganaren historia eta kultura ongien ezagutzen zuen gizonetarikoa bat genuela.

1995. garren urteko abuztuan joan zitzaigun jakitun argia. Era hortako gizon banaka horiek iker lanerako berez izaten duten sena nabarmen erakutsi zuen Juliok. Jite onekoa bai zen bere izakera zintzoa, gaur egun hain urri ematen diren duintasunez bizi zen gizon prestua, ustelkeririk gabea eta, hargatik, une guzietan borondaterik hoberenarekin bidezko eta legezko zitzaionaren alde jartzen zekiena. Egungo jakitunek hala baliatzen dute bere izakera eta lana.

Beraz, Hondarribitik agur eta ohore bere irakaskintzagatik. Hainbeste zor diogunok nekez ahaztuko dugu. (G.B.).

19.

DEABRUA JAIZKIBELEN GASKOINEZ ETA EUSKARAZ MINTZATU ZENEKOA

Behin baino gehiagotan entzuna dugu, deabruak ikasi ezinezko hizkuntza zela gure euskara. Idatziz ere han-hemenka hala aurkitu genezake:

"On prétend que le diable, après avoir habité le pays de Labourd pendant sept années, n'avait pu réussir à apprendre que deux mots basques, bai "oui" et ez "non", et encore ajoute-t-on qu'il les oublia, en sortant de Bayonne, au milieu du pont Saint-Esprit". Horrela zioen Julien Vinson-ek *Le Folk-Lore du Pays Basque* (1883) liburuko hitzaurrearen haseran.

Gauza bera aipatzen zuten Rodney Gallop eta Philippe Veyrin idazleak beraien liburuetan⁽¹⁾. Zazpi urtez aritu zela deabrua euskara ikasi nahirik eta Baionatik aldetzean, Santizpirutuko zubia igarotzeaz bat ahaztu zitzaizkiola ikasi zituen bi hitzak: "bai" eta "ez".

⁽¹⁾ R. Gallop, *A Book of the Basques* (1930); Ph. Veyrin, *Les Basques* (1947).

R. M. Azkue zenak kontakizun hori aurkitu zuen Donibane-Garazin, *Euskalerraren Yakintza* delako liburuan bildurik dakarrenez (ikus, lehen liburukiaren 359-360. orrialdeetan).

Mito horrek euskarari ez dio onik egin. Piarres Lafitte zenak, adibidez, ez omen zekin euskaraz apezgai zelarik, eta ikasteko asmorik ere ez. Irakasle zuen Jean Saint-Pierrek bultzarazi omen zuen, Euskal Herrian apaiz izango bazen euskara jakitea beharrezko zela agerraraziz. Lafittek ordea, zirkin egin nahirik ihardetsi omen zion: "Nola nahi duzu? Diotenez, deabrua Euskal Herrira etorri zen batez, "bai" eta "ez" besterik ez zuen ikasi eta oraino, Santizpirituko zubia-
ren beste aldera igarotzerakoan biak nahasten zituela"⁽²⁾.

Ez da harritzekoa, zeren Real Academia Española-ren *Diccionario de la Lengua Española*-k, oraindik orain ere, gure hizkuntzaren bigarren esan nahitzat, "Vascuence" hitzean honako hau dio: "lo que está tan confuso y obscuro que no se puede entender", jartzen bai du. Zentzugabea ez ezik, lotsagabea eta lotsagarria deritzat. Hori irakurriz, edonork esango luke gaztelera jakinaz gainerako hizkuntza guziak ulergarri direla, euskara ezik.

Gaur hemen adierazi nahi duguna, zera da, deabruak ere euskaraz bazekiela. Beraz, ez zuen izan inongo eragozpenik. Hala behar ere Pierre Lancre epailaritzat jarri zen kriminal harentzat, bere ustez euskara deabruen hizkuntza zenez gero. Hark uxatu zituen akelarre zalean, 1609. urtean, eta laster ziren hemen sorgin hots ugariak. Bi urte barru, Jaizkibel mendiko Santa Barbara ermitaren inguruan, San Joan jaietan eman zuten ihiza eta han atxilotuak epaitegira. Akelarre hartan partaide zen ala ez, egia aitortu edo zigorra, beste aukerarik ez zuten sorgintzat salatuak urkamenditik libratu nahi bazuten.

⁽²⁾ X. Arbelbide, *Piarres Lafitte, bere bizia* (1986), 19. orrialdean.

Hondarribiko Udal-agiritegian aurkitu zituen Serapio Mujikak epaiketa hartako paperak⁽³⁾ eta horietan agertzen denez, akelarrean parte hartu zuen Isabel García 13 urteko neskatoak, epailarien aurrean aitortu zuenez, hiru adardun deabrua agertu zitzaizela eta, meza beltz hartan, zenbait sere-
moniaren ondotik, deabrua gaskoinez mintzo zitzaizela Donostia eta Pasaiakoei, eta euskaraz Irun eta Hendaiakoei.

Hara non deabrua euskaraz mintzo zen, bertan bildurik zeuden hendaia eta irundar guziek ulertzeko eran. Hala izanik, txukun erabili beharko zuen euskara gurea. Hemeretzigarren mendearen erdialdera fama edaturik zegoenez, Irun inguruetan egiten omen zen euskararik hoberena. Hala zion Luis de Usoz y Río nafar protestanteak Jacob Graberg de Hemso jaunari Alemaniara igorri zion gutun hartan, 1842ko irailaren 14an, Iztuetaren idazkeraz zenbait eritzi ematen: "Le acusan los guipuzcoanos de falta de pureza en el lenguaje, y de mezclar voces del vascuence francés, del vizcaíno, u otros dialectos, y no usar sólo del vascuence puro que se habla en las cernanías de Irún"⁽⁴⁾.

Esangabe doa, Hondarribian bertan, kalean bederen, garai haretan gaskoina zela nagusi; gaur egun gaztelera bezalatsu. Eta, nagusi jarraituko du, euskara baztertu arte. Baldin euskaldunok gure mintzairaren erabilera bizkortzen ez badugu: Euskaldunari euskaraz, ikurtzat hartuz.

⁽³⁾ S. Múgica, "Los Gascones en Guipúzcoa", *Homenaje a Carmelo de Eche-garay* (1928). Hemen jasotzen dugunaren aipamena 11. orrialdean dator.

⁽⁴⁾ L. de Usoz y Río, *Antología* (1986an E. Cobo-ren sarrera eta hautaketaz argitaratua). Ikus 171. orrialdean.

20.

ITSAS-KONTSULA HONDARRIBIAN

Antzina bazen, Kofradiaren izendapenez, Itsas-kontsula (Consul de Mar). Bere egiteko nagusia zen portua zaintzearen arduraz gainera arrantzaleen arteko auzi eta iskanbilak zuzentzeko arartekotza betetzea; gaur egun ere hain premiazko bete beharra deritzaiguna.

Inork ezin dezake zalantzan jarri Hondarribiaren historian arratza izan dela bertako ogibiderik jatorrena eta nagusia. Horregatik, gazteluarekin batean, balearen arrantza izan zen Kontzejuaren zigilua, 1297, urtetik gutienez.

Bizimodu horren antolaketak egokitze premia sortu ziren 1361. urtean Kofradia, arrantza anaitasunean arautzeko pentsatua. 1566. urteko Kofradi Ordenantza berriek lehen kapituluan aitortzen zuenez.

Lehenik Santa Maria eliz nagusiko San Pedro kaperan biltzen zirenean oturuntza ere bertan egiten zuten. Baina, jandean gehiegiak gizonen mihinak gaiztotzen omen eta 1482an, artean Hondarribiko eliza Baionako apezpikutegi-

koa zen garian, debekatu zitzaion kofradi bazkariak egitea, leku sakratuari bere errespetua gorde beharrez. Gero, 1631an, Iruñako apezpikuak agindu bera berretsi zuen.

Kontu egin dezagun 1412. urtean gremioek hartu zuten erabakiari: portuaren garbiketaz eta ontziak oztoporik ez izateko neurriak finkatuz. Gure egunotan ere horren premia larria nabari zaigu, ordukoa baino handiagoa agian, eta haiek arduradun Kontsul bat izendatzera behartu ziren.

1566. urteko Ordenantzak argi eta garbi dakarte, urtero Kofradiburu Maiordomo edo Abad zeritzana izendatzeaz batera beste zenbait kargu banatzen zirela: seineru, bentero, guarda-ofiziala, talailaria, kaperaua eta, bereziki, Kontsula. Horrela irauin zuten Kofradiako izendapenak XVI. mendetik XVIII.aren azkenera arte. Ikus kargu horien ardura zehatzak honako liburu hauetan: Jose Manuel Imazen *La industria pesquera en Guipuzcoa al final del s. XVI* (1944) eta Josu Iñaki Erkorekaren *Análisis histórico-institucional de las Cofradías de mareantes del País Vasco* (1991).

Oraindik argitara berri dugun Erkorekaren liburuan irakurtzen dugunez, 1566ko Ordenantzen arabera, Hondarribian bi ziren Jueces Cónsules de Mar izendatzen zituztenak. Ordurako aski hedatua zen nonbait, zeren agirien arabera, lehenagotik ba omen ziren ardura berdinekoak, Instruman zeritzaienak Plentzian eta Bermeon 1524. urteko agirietan agertzen denez. Mundakan orde, ahozkerazko aldakuntzaz, Instruman-en orde Ustruman zeritzaion, 1755. urtean. Pertsonaia guziok zuten eginkizun berdintsua, portuaz arduratzea eta marinelen arteko auzien arartekotza betetzea. Hala ere, Bermeokoek bazuten aginte berezi bat, Kofradia-tik izendatuarren, zinegotzi bezala eseritzen omen zen Kontzejuan (Udalean).

Hondarribian eta Donostian "Juez Consul de Mar" erabiltzen zen ofizialki. Izendapenerako, pertsona jatorra izatea eskatzen zen eta, horrez gainera, gizabidez dohaintsua,

"...arraigado e abonado de buena conducta...". Hautapen bakoitzean hiru gizon jator aurkezten omen ziren eta horietariko bat botoetara hautetsi.

Kontsulak etxea ere bazuen nonbait, talailariak edo seiñeruak bezala. Horren lekuko dugu Hondarribian Kontsulak deritzan baserria, gaurko ahozkeraz Konsolenea maizago entzuten dena, baina 1787. urtean Floridablanca-ren aginduz egin zen zentsoan *Consolenea* bezala datorrena eta Gipuzkoako Diputazioak 1857an egin zuen *Nomenclátor* hartan *Consulaenea* izenez agertzen dena.

Kontsulak ziren, baina ez epaileak. Auzitan ziren bi alderdiak entzun ondotik bakebideak jartzeko arartekotza betetzen zuten, eta premiazko zenean biak aurrez-aurre jarritz. Eta, *polita da jakitea*, Ordenantzak zer zioten: jan-edanen ondotik Kontsulak parterik ez hartzea, adimena eta zentzua ahul bihurtzen direlako; beraz, egoera horretan ezin ziren arartekari egiten jarri: "...despues de yantado ni bebido...", zeren horrek portaera aldatzen bai zien gizonen, "...las voluntades de las personas después de comido y bebido los juicios son mutables...", hala zioten 1482ko gremio bileran erabaki zenez. Baina auzia Epaitegira eramaten bazen, orduan Kontsulak ez zuen aurrean egoterik. Zentzukoa den bezala, eginkizun hori epailean esku gelditzen zen.

Esan bezala, beraien betebeharrak nagusiak bi ziren: Kofradien edo kofradikideen artean lanaren ekintzaz edo beste zerbaitegatik sortzen ziren auziak bakebidera eramatea eta portuaren egoera zaintzea. Inoiz, itsasontziburu edo patroia eta marinelen arteko haserreak konpontzea ere bai.

Gaur ordea, holako Kontsul edo Instruman gisako bat berpiztuko balitz, gauza beharrezkoa denez gero, Ombudsmanen erara ekologiak ere arduratu beharra izango luke. Esate baterako, portuan ezik Bidasoa guzian uretara botatzen diren orio zikinak eta zakarrak arduraz zaindu beharko lituzke. Zeren horrek arrantzari kalte handia egiten bai dio.

Arrainak ez bai du nahi ur kutsaturik. Ingurugiroan oreka galtzen denean, arraina gutitu eta urrundu. Antzerako kaltea dakarte marea-beheti denean inondikako begiramenik gabe txirlak hartzeak; txirla hoiek urari substantzia emanaz arraintzat janaria sortzen denez. Aire-giroak bezala, urak ere bere oreka eskatzen du arrainik biziko bada.

Itsas-kontsulak baluke gaur lanik aski, bereziki arrantzalean onerako ingurugiroa zaindu dezan. Eta oroi historia zehar arrantza izan dela eta oraindik ere badela hondarribiaren bizibiderik jatorrena.

21.

JUSTIZ ETA BERE KONDAIRA

Duela hogei eta hamahiru urte Mediaborda baserriko Tomas Ugartek honako kondaira hau kontatu zion Nils M. Holmer sueziar hizkuntzalariari:

"Espaini'ko erregea etorri zan egun batean Gaizkibel'ko mendira eizara. Eta eizian zabilela egin zen brumarekin galdu. Ta gero bueltaka zabilela, gertatu zen etxe ori bilatzea. Ta gero etxe ortan gelditu zen. Lo egiten etxe orretan zegon. Bizi zen neska gazte eder bat. Eta galdetu zuen nola esaten zen euskaraz "muy hermosa" ta esan zioten: *Guztiz ederra*. Eta gero egun batzuek pasatuta gero erregeak esan zion erregalo bat egingo ziola ta galdetzeko nai zuen dina lur. Eta ura eman zion." Baina, testu horren azpikaldean Holmer-ek beste honako ohar bat gehitzen dio, esanaz: "Este fue uno de los reyes de Navarra, probablemente Sancho Abarca".⁽¹⁾

⁽¹⁾ Nils M. Holmer, *El idioma vasco hablado* (1964), 110. orrialdean.

Hizkuntz ikerketa zen Holmer jaunaren helburua, Hondarribia inguru hauetan ibili zenean eta *El idioma vasco hablado* (1964) liburuan bildurik eman zuen bere lana. Liburu berean dator kondaira horren beste bertsio bat ere, baina bigarrena Pepita Etxebeste izeneko Justizko alabak kontatua, eta bada aldakuntzarik beste horrekin. Hara hemen:

"Bizi omen zen famili bat ta gero aitaki neska eder bat. Ta etorri omen zan errege bat eizira ta etxera etorri omen zan Santxo Abarka. Eta neska orrentzat enamoratu omen zan, gustatu omen zan. Seme bat izan omen zuten. Eta gero erregeak gauz asko eskeini omen zion. Eta gero neskak esan omen zuen lehengo gauzak aski zituela. Erregeak esan omen zion teilatuaren gainera igotzeko eta andik ikusten zituen terreno denak beretzako. - Zu guztiz ederra zera."⁽²⁾

Ez zen lehen aldikoz Justizko kondaira literaturan sartzen zena, zeren Pierre Lhande zuberoar jesuita euskaltzaleak *Mirentchu* (1930) zeritzan eleberriaren 9. orrialdean jaso bai zuen Nafarroako errege Santxo Abarka eta Justizko alabarena eta eleberri hortako pertsonaia naguziari Guztizederra eman zion izentzat, eleberriaren pasartean inguru horretan hasten zirenez. Baina Lhande ere ez zen kondaira hori aipatzen zutenetarik lehena, 1930 eko urte berean Conde de Llobregat-ek argitaratu eman zuen *Fuenterrabia. Noticias históricas*-en lehen kapituluaren ere badator eta liburu hau oso irakurria izan zen 1942an berargitaratu zenetik. Hala ere, zer dago egizkorik kondaira hortan?

Ikus ditzagun agirien argira:

Ikertu dudan alde guzietatik, kondaira horren aipamenik zaharrena, Justiz baserrian oraindik gordetzen duten aitonen semetzako eskuizkribu batean dator. Errege Felipe III.aren denboran noblezako arma agiriak ematen ardura-

⁽²⁾ Holmer, aipatutako liburuan, 158. or.

tzen zen Diego de Urbinak 1613. urtean idatzia da. Hamabi urte geroago argitaratu zen Lope Martínez de Isasti lezoarraren *Compendio Historil de Guipúzcoa*, eta apenaz eman zion garrantzirik Diego de Urbinaren agiri horri, honako aipamen soil hau baizik: "Los de este linage vienen de un hijo del Rey D. Sancho Abarca de Navarra: del cual dicen y escriben que andando á caza en la sierra de Jaizquivel, fué á posar en esta casa, de cuya doncella (que era muy hermosa) se enamoró, y hubo en ella un hijo varon, de quien descien-den los de Justiz, segun certifica el Rey de armas."⁽³⁾. Gero, gure mende honetan Serapio Mujika, Garcia Carraffa anaiak eta aipatu dudan Llobregat kondeak indartua izan da beraien aipamenez⁽⁴⁾. Baina, Joseph de Moret historiagileak ezer ez zuen aipatu 1684an argitara eman zuen *Annales del Reyno de Navarra* zeritzan obraren X. liburukia Santxo Abarkari osorik eskainiarren.

Dena dela, kontutan hartu beharrezkoak dira: Errege Santxo Abarkagandik Felipe III.era seirehun urte baino gehiagoko igaro zirela. Hamazazpigarren mendean fantasia asko erabiltzen zela aitonenseme agiriak ematerakoan, edo-nolako historiak asmatuz noblezaren agiriak lortzeko; eta, azkenik, izena bera dugu salatari, zeren Justizek ez bai du ezer ikustekorik "gutziz"ekin.

Holako kondari politak beti dira jendearen gustagarri, eta gustagarri bezain engainagarri. Eta, fantasiak ere bere indarra du gizartean. Fantasiatzko uste horren lagungarri dator Isastik zioen honako hau ere: "la casa solar antigua y armera

⁽³⁾ Lope Martínez de Isasti, *Compendio Historial de Guipúzcoa* (1625), 137. or.

⁽⁴⁾ S. Múgica, *Geografía General del País Vasco-Navarro*, Vol. *Guipúzcoa*, 758. or.

A. y A. García Carraffa, *El Solar Vasco-Navarro*, IV. liburukia, 302. or.
Conde de Llobregat, *Fuenterrabia. Noticias históricas* (Segunda edición), 10.or.

de Justiz en el Promontorio de Oleaso, sierra de Aizquivel en Término redondo. Los de este linage fueron los primeros pobladores de Fuenterrabia, nobles hijosdalgo y familia extendida: y no se halla en toda Cantabria otra casa de este nombre.⁽⁵⁾

Baina, Justiz, Erdi Aroan izenetatik sortu ziren patronimiko horietakoa dugu. Hasierako J, I edo Y bezala ere irakur daiteke. Nafarroan ezaguna den Justi eta Monasterio de Yuste ditugu izen horren lekuko, Z atzizkia ordea, patronimiko horietan hain ugari diren *-iz* eta *-ez* atzizkiaren kidekoa baizik ez da, Koldo Mitxelenak *Apellidos vascos*-en hain ongi adierazi zigun bezala⁽⁶⁾.

⁽⁵⁾ Isasti, aipatutako liburuan, 458. or.

⁽⁶⁾ Luis Michelena, *Apellidos vascos* (1953), 76. or.

22.

EMAKUMEAK SALGAI?

Justo Garate zenak Oliver Goldsmith-en *The Vicar Wakefield* (1766) eleberriko elkarrizketa baten zati bat jasotzen zuen bere oharrak erantsiz *Viajeros extranjeros en Vasconia* (1942) liburuaren lehen kapituluan, Britania eta Estatu Batuetako bidailarik aztertzean, 32-34. orrialdeetan, eleberri horren pasarte batetik honako hau jaso zuen:

"Baina jauna - erantzun zion Moisesek -, eta nik ez ditut ezagutzen European emazte gaienezat bi merkatu baizik: Ranelagh Ingalaterran eta Espainian Hondarribia baizik. Espainiako merkatua urtean behin baizik ez da izaten, baina gure emazteki inglesak edozein gautan lortu genezazke".

"Orduan bere amak esan zuen: "Arrazoi duzu nere seme. Ingalterra zaharra munduko tokirik egokiena da gizonek emaztea lortzeko".

"Eta bikarioak bere aldeti: "Eta emazteak beren senarrak zaintzeko edo zerbitzeko. Herbestean bada esaera zahar bat, Mantxako kanalaren gainetik zubi bat eraikiko balitz

kontinenteko dama guziak etorriko lirateke hona eta gureen adibidea hartuko lukete; zeren ez bai da Europan gure emazteekin konparaketa egitekorik".

Kontestu hortatik ulert dezakegu Hondarribian emakumeak ezkontzeko salgai jartzen zirela.

Bi ohar labur egiten dizkio Garatek: (40) garren deian, Tamesis ibai ertzean, 1803. urtean kendu zuten arte, han egiten ziren jaiak, dantzaz, kantuz eta denborarekin askatasun gehiegian erori zirenak; eta (41) garrenean, garai hartan Ingalaterran gauaz ezkontzeko ohitura omen zen Victoria erreginaren garaira arte. Hortik omen "emakume inglesak gau guzietan daude salgai", geroago isekaz erabili den esaldia.

Garatek, urtebete geroago argitara eman zuen *Cultura biológica y arte de traducir* (1943) liburuaren 213. orrialdean berriz aipatzen zuen Goldsmith-ek bere eleberrian Wakefield bikarioaren ahoan ipini zuen hura txantxetan hartuz.

Liburu horretan, itzulpenetan maiz egiten diren hutsak zorrozki salatzen ditu Justo Garatek. Adierazten zigun pasarte hortan ere Goldsmith idazleak noizbait zerbait entzun zuenetikako hutsen bat ote? Hala dirudi. Oraindik gaur egun San Pedro kalean diren andra saltzaileegatik, adierazteko kontestuan esan daiteke "emakumeak saltzen" (saltzen ari); baina, gaizki ulertze bat dirudi, ez beraien buruak salgai, noski; baizik, seguruenik emakumeak arrain saltzen.

Oliver Goldsmith (1730-1774), irlandar jatorrizkoa zen, famili oso apalekoa eta Dublingo Trinity College-n hiru urtez ikasle zelarik, 1747an unibertsitarien protesta batean partaide zelako bota zuten eta geroztik ahal bezala bizi izan zen, buhame gisa, txilubita joaz, titiritero, Europa zeharrean ibiliz; gero liburu saltzaile eta zetorkionari oratuz kazetaritzan sartu zen Johnson hiztezigile ezagunari esker. Ondotik poesia, antzerkia eta eleberrigintza landu zituen. Ez zen idazle gorenetakoa, ez horixe, baina bere gaiak eta era entretenigarriak iraun du balio gehiagoko beste zenbaiten

gainetik. Esan dugun bezala, European zehar hainbat urtetan ibili zen. Horren lekuko dugu *The Traveller* (Bidailaria), 1764an argitaratua, baina eleberririk aipatuenetakoa du *The Vicar of Wakefield* (Wakefield-go Bikarioa), 1766an lehen aldiz plazaratua.

Arazoa leuntzeko, hara Justo Garatek kapitulu beraren azkenaldera, 38. orrialdean dakarrena. Hemen ordea Thomas Arnold-i Hondarribiak eragin zion zirrara dugu lekuko. Frantziako Landak eta mugazhandiko Euskal Herria igaro ondorean idatzi zuen honako hau: "Hiri atsegina iruditu zitzaidan Irun eguzkitan, eta Hondarribiaz hitz pozgarriak baizik ezin esan, hiri zahar inguruan giro egokia eta paisaia uhartze-zabal irekia da itsasora irteeran, mendi eta itsasoaren artean bidailariantzat adoreak gelaraztekoa".

Thomas Arnold (1795-1842) irakaslea Matthew Arnold poeta ospetsuaren aita zen. Eta hara hemen dabilenari inoiz gertatzen zaion hutsa: Thomas 1861ean, familiarekin Hondarribira iritsi zela dio, baina zenbaki horietan hutsen bat nabari da, zeren egilea 1842an hila bai zen eta testu hortan dioenez Matthew-ek hamazortzi urte inguru omen zituen bidaia hortan lagundu zioenean. Horrela izatera, 1840. urtea izango zen, eta ez 1861a.

23.

JUAN BAUTISTA ZULOAGA HONDARRIBIARRA, CÁDIZ-KO KATEDRALAREN ERAIKINTZAREN BULTZATZAILE

Oso ezaguna zaigu Gabriel José Zuloaga, teniente general eta Venezuelako Gobernadore izan zen hondarribiarra, nori eman zitzaion Conde de Torre-Alta titulua (ikus F. Portuk 1975garren urtean argitara eman zuten *Fuenterrabia. Notas históricas y curiosidades hasta 1969* liburuaren 34. orrialdea). Baina ez zen hain ezaguna bere anaia zuen Juan Bautista Zuloaga, Cádiz-ko eliz-kabildo barrutian "maestrescuela" zena. Bedonen berri ematen digu Andaluziako egotaldian hainbeste ikerlan egin zituen Jose Garmendia Arruabarrenak EuskalERRIAREN Adiskideen Elkarteak argitara berri duen buletinean (ikus "Juan Bautista de Zuloaga", 2000. urteko *Bol. R. S. B. de los Amigos del País*, LVI. liburu-kiko lehen alearen 159-166 orrialdeetan).

Lehenago ere eskainia nuen "Hondarribiko merkatariak XVIII. mendean Cadizen" zeritzan artikulua Jose Garmen-

diaren beste ikerlan batean oinarriturik. Ikus aurtengo marxoko *Hondarribia* aldizkariaren, 112. zenbakiko 20-21. orrialdeetan.

Gaurko artikulu hontan ordea, hor aipatzen dudanean oinarriturik, bertan agertu dituen zenbait berri eskainiko ditut. Zeren komenigarria iruditzen bai zait Hondarribiak historian zehar eman dituen gizon ospetsuen artean sartzeko.

Gabriel Jose eta Juan Bautista, bi anaiok ziren Hondarribiko Pedro Inazio Zuloaga eta Bergarako Josefa Maizaren semeak. Beraien, osabak zituzten Casadevantearrak eta horietako batek deiturik nonbait Juan Bautista joan omen zen Cádizera. Hango kabildo barrutian, Juan Bautista Zuloaga, Santa Kruz Katedral zaharreko "maestre-escuela" izatera heldu bai zen. Lezo kapitainak 1626an sorturiko Cristo de la Humildad y Paciencia hermandadearen inguruan Indietarako merkataritzan aritzen ziren harreman estuak zituelarik.

Baina, ospe berezia emango zion ekintzetarik aipagarriena noski Vicente Acero arkitektoak neoklasiko estilo eraz diseinatu zuen katedral berriaren eraikuntza bultzaraztean datza. Zimentarria 1722ko maiatzaren 3an jarri zen, baina geldu iraun zuen, Juan Bautista Zuloagak 1724ko urrian Madrileko Korteen eta erregeren onezpena lortu arte. Eraikuntza 1838an bukatu eta 1883an konsagratua izan zen.

Horrez gainera, bere ekintzen ospea hain handia zenez, 1725ean Korteetako diputatu izendatua izan zen. Urte bereko urriaren 21ean Madrileren joan zen. Berakin zeramazkiela zenbait ministroren gutunak eta Toledoko Artzapezpikuairen onezpena. Eta horrela lortu zuen, Real Orden delakoa, 1726ko azaroaren 25ean, Cádizko merkataritzaren hobekuntzarako, itsas-handik zetozten ontzieengandiko zerga berezia eta horren laguntzari beste lan asko burutuko zituen.

Lan horietarako ez zitzaion falta izan han bertan ziren euskaldunen laguntzarik. Eta hauei esker parte hartu zuen

Cádizko San Fernandon Colegio de la Enseñanza-ren sorruntza aurrera eramateko.

1758ko martxoaren 30ean sinatu zuen bere hilburukoa, ezarri bere gorpua apez ezaugarritzko jantziz Katedralean hobiratzeko eta 200 errezuzko mezak emateko 60 vellón errial haietakoak utzi zituen elizkizunetarako aginduaz, eta Elizbarrutirako beste zenbait eskaintza bere ondasunetarik. Bere sorterriaz ere ez zen aitzu eta agintzen zuen, 128 laurdeneko 1.000 eskudo bere jatorrizko ("mi patria" bere hitzetan) Hondarribiko elizaren apaingarrietarako.

Aldi berean, gainerako tresna eta altzariak Hondarribiko hirian ziren behartsuen artean banatzea agintzen zuen.

Juan Bautistak, gipuzkoartasuna ere barne zeraman, zeren Elizbarrutiko erregeletan jarri bai zuen: urtero, uztailaren 31an, San Inazio egunez, jaia izatea eta prozesioz ospatzea.

Eta, nola ez, bere anai Gabriel Joserekin harreman estuak mantentzen zituen, 1737-1747. urte bitartean Venezuelatik idatzi zizkion gutunak erakusten dutenez.

Katedral berriaren ondoan mantentzen den Katedral zaharrean hobiratu zuten, Cádiz-ek duen monumenturik ederrenaren eraikuntza bere gogoz eta ekintzaz bultzatu zuen Juan Bautista Zuloaga hondarribiarrak.

24.

HONDARRIBIKO MERKATARIAK XVIII. MENDEAN CADIZ-en

Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País - Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko azken *Boletín*-ean (LV, 2.alean, 1999,) agertu du Jose Garmendia Arruabarrenak lan jakingarri bat, Cadiz-en XVIII. mendeko testamentari artxibategian aurkitu dituen hondarribiar merkatarieri buruzkoa. Ikus *Boletín* horren 475-477. orrialdeetan. Ez da ikertzaile horren lehen lana, zeren lehenago ere Sevilla-ko artxibategietatik lan ederrik eskaini zigun.

Garai hortan Cadiz-en merkataritzan zebiltzanak, beraien jaiotz tokiak kontutan harturik, 58 omen ziren bizkaitarrak, beste 58 gipuzkoarrak, 30 nafarrak eta 10 arabarrak.

Horiek, Ameriketarako salmentak zituzten oinarri eta merezi du hemen berain berri ematea, testamenduetan agertzen diren bezala jarritz. Han bertan datoz agiriaren xehetasunak, baina aspergarri ez egiteko, agirion gainerako xehetasun horiek ez ditut aipatuko, zehatz jakin nahi duenak bertara jo ezinik ez bai du.

Esan beharrik ez dut gehienek Hondarribia bertako deiturak dituztela. Eta hemen, nahasterik ez sortzeko, izen-deiturok garai hartako grafian dauden bezelaxe transkribatzen ditut.

Beretarik lehena, Miguel Antonio **Ariasmendi** da, 1750. urteko uztailaren 30ean egin zuen testamentuaren arabera. Nonbait, deitura hori gaizki jaso da. Seguruenik Arizmendi izan zitekeen, bere ondotik aipatzen denaren bezala.

Bigarrena, hiru urte geroago, **Agustín Arizmendi** da, 1753ko uztailaren 19an.

Ondotik datoz beste honako hauek:

Manuel Antonio **Aznares**, 1757ko urtarrilaren 9an. Indietako merkataritzan matrikulaturik agertzen omen zen 1736. urtean. Deitura Bortserrietakoa izan behar du.

Francisco de **Echaleku**, 1753ko azaroaren 20an. Baina, Cadiz-en omen zen 1707. Deitura hau ere Bortserrietakoa dela esango nuke.

Juan Francisco **Echeverría Añorga**, 1752ko maiatzaren 6an.

Josefa Antonia **Gayoso**, 1775eko azaroaren 2an. Gabriel de **Gavoso** agertzen omen zen matrikulaturik 1730ean. Hemen ere, deiturak idaztean, okerren bat dago.

Pedro Felipe **Goicoechea**, 1758ko apirilaren 3an. Itsasontziko kapitaina zen eta "Cofradía vasca"koa 1692-1724. urteetan.

Domingo **Sorondo**, 1755eko urriaren 13an. Esan beharrik ez dut Sorondo deitura hondarribiarra dela.

Juan Antonio **Sorondo**, 1753ko azaroaren 25ean.

Juan Ignacio **Sorondo**, 1750eko apirilaren 4an.

Juan Antonio **Zabaleta**, 1758ko azaroaren 25ean.

Juan Bautista **Zuloaga**, kalonjea eta Torre-Alta kondearen anaia, 1758ko martxoaren 30ean. Izatez, Torre-Alta markesa zen eta bere ondotikoak, Aristegi deiturakoekin, Llobregat konde tituludunak.

Horien ondotik Irungo bi eta Pasaiako lau datoz.

Juan Baurista Zuloagaren beste aipamenbat dator, 1738koa, *Boletín* berean, 480. orrialdean, Euskal Herritarrak Cadiz-en biltzen ziren Hermandad de la Humildad y Paciencia zeritzan elizaren arduradun bezala.

Bi mende t'erdiko agiriak direnez, oraindik horrelako deiturok dituzten zenbaiti, behar bada ez zaio hain nekeza izango arbasoen agirietatik loturaren bat aurkitzea. Dena dela, beti dira interesgarriak horrelako agiriak.

Eta hemendik bijoaz gure eskerrak Jose Garmendia Arruabarrena jaunarentzat, bere lanok gure historiarako hain baliagarriak ditugunez.

25.

HONDARRIBIAK JAIOTZARI

Urteko aro seinalatuetan herri kulturaren oroitzapenezko dena, herriaren ondare denez, komeni zaigu iraunaraztea, mendez mende tokian tokiko balioak gordetzeko. Irrati eta telebistaren bidez eredu bakarretara garamatzate han hemenka kanta ber-berak hedatuz. Gure esaera zaharrak dioenez: beti bat, beti bat, txori txarraren kanta.

Beraz, txorixarraren kanta gerta ez dadin, itzuli gaitezcan herri bakoitza bere era zaharra berpiztera eta berritzerik etortzekotan, betor era jatorretan oinarritutakotik. Horrela, Eguberrietan bikain lagunduko genuke Lizardi zenaren gogoa:

soina zahar; berri gogoa;

azal horizka, muin betirakoa.

Gure folkloreaken aberasgarri, nire ustez, hori suspertzea komeni zaigu eta horren nahaiak narama Hondarribiak Jaiotza nola aurkezten zuen adieraztera, aspaldi jasotako zatien

bidez. Nork daki horrela jokatzuz, geroan zitu hobean jasozten ez ote diguten lagunduko ?

Nils M. Holmer, Lund Unibertsitateko irakasleak, duela berrogei urte pasautxo gure hizkuntzaren ikerketaz hemen egin zituen bilketa haietan, bertan kantatzen ziren bi billantzikoren bertsoak jaso zituen Mediaborda baserriko Lino Ugartegandik, *El idioma vasco hablado*, (1964) liburuan datozenez. Haren bilketa hizkuntzalaritzakoa zenez, ez zuen doinurik jaso, baina hara hor bi bertso Jesusen Jaiotza aipatzen dutenak:

*Bada don Gaspar,
Bestea Meltxor,
Irugarrena Baltaxar.
Oriek denak.
Bazekiten eternidadea nola zan:
Ala bear zan, ala izan zan.
Jesus Maria, bear du izan.*

*Errian zenbait galai gazte,
Kantuz gera atera
Atseginaz poz aundi batez
Gaur zuek ematera
Obetoago kantatuko degu.
Gaur baino askoz ere
Jaungoiko'k gabon digula
Datorren urteraino.*

Argi dago bigarrena behintzat errondan kantatzekoa dela. Azkuek XX. mende haseran jaso zuenean kontarizko eta errondakoa nahasirik aurkitu zituen eta, gainera, zati batean Bizkaiko kutsuz. Hori ez dabatere harritzekoa, itsasoa bide denez elkarrenganako harremanak lortzeko.

Hondarribiko Higinio Salaberrik Azkueri kontatua da, eta ikus dezakegunez, bigarrenko bertsoa hain hedatua den "Hator, hator !..." delakoaren zati bat da eta hirugarrena neronek Eibarkotzat bildu nuenarena. Baina, hara hor doinu eta guzti Azkuek *Cancionero popular vasco*-ren 1142. orrialdean datorren bezala:

*Urriaren biruan
ginaden atera,
egualdi ona zelako,
gure biajera,
Santanderren barrena
azkar pasa gera,
bainan bazan zeregin
bandikan aurrera.*

*Gabon gabon pasa dezagun
Aita ta Amaren aldean,
ekusiko degu aita farrez,
ama ere bai txit kontentuz tuluntun.*

*Bai eta neuk ere zelango tragua!
lehendanik esanez Jesus:
arriba yarriba, altzate la pata
goazen Espainiara Frantzia lagata.*

URRIAREN HIRUAN

80. *Andante mosso*

Ur - i - a - ren i - ru - an gi -
na - den a - te - ra, e - gualdion a za - la - ko, gu -
re bi - a - je - ra, San - tanderen bañ - en - a az -
kar pa - sa ge - ra, bai - nan ba - zan ter e - gin

Più mosso

an - dik an aur - e - ra. Ga - bon ga -
bon pa - sa de - za - gun Ai - ta ta A - marenal - de - an, e -

Allegro molto *Allegretto*

ku - si - ko de - gu ai - tafar - ez,
a - maere bai txit kon - ten - tuz tutuntun.

Allegro molto

Bai e - ta neuk e - re ze - lan - go tra - gu - a!

Meno mosso

len - dan ik e - san - ez Je - sus:

Allegro molto

a - rri bay a - rri - ba, ál - tza - te la po - tu
goaz en Espa - ni - a - ra Frantzi - a la - ga - ta.

26.

O EGUBERRI-GAUA

*Marie Louise Guimon Ford irakasleari,
Elizondoko kantaldia oroituz.*

Duela urte batzuk Hendaiako kantari talde batek argitaratu zuen diska batean "O Eguberri-gaua" herrikantatzat; baina badakigu herrikantatzat erabiltzen direnak ere noiz-bait egileren bat izan zutela, denborarekin ahoz-aho batetik bestera erabiliaz bere jatorri zehatzaren lekukotasuna galduarren.

"O Eguberri-gaua" bertsoz hasten den honek ere bazuen bere egilea, lehen aldiz Ziburuko Joanes Etxeberri idazle aipatuak 1630garren urtean *Noelak* zeritzan liburuan argitaraturik agertzen baita.

Liburu horren berrargitaratzea adiskide Xabier Aranburu hondarribiarrai zor diogu, 1970ean bere zuzendaritzapean zeraman Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicacio-

nes, S.A. zeritzan argialetxe hartan A. Lino Akesolo zenaren hitzaurre jakingarriz plazaratu bai zuen.

Esan beharra dut 1983an Hondarribiara bizilekuz aldadu nintzenean ohartu nintzela hemengo zahar batzurenzat, Hendaia koentzat bezala, kanta ezaguna zela eta gaztaroan Eguberriz maiz kantatua.

Aurtengo udaran Elizondon, pintura erakusketa ikus ondorean, Marin aizpekin beren baratzean bildu ginelarik, han zen Ezpeletako Marie Louise Guimon irakaslea ere. Eta honek erakutsi zizkigun Lapurdiko mintzairaren edertasunak ete bere ohoretan lapurterazko zenbait kanta gogoratu nizkiolarik uste gabeko kantari taldea osatu genuen han. J. B. Elizanbururen "Ikusten duzu goizean" delakotik "Iragan besta biharamunean" delakora arte eten gabe jardun ginen, Horien artean J. Etxeberriren "O Eguberri-gaua" ere. Ohartu nintzen kantok baztandarrentzat ez zirela arrotz, bereziki "O Eguberri-gaua", baina Marie Louise lapurtarra izaki eta bera zen kanta horien bertsorik gehien zekizkiena. Geroztik idatziz ere igorri dizkit.

Hemen Hondarribian garai batean zaharragoek Eguberriz kantatu izan duten hau pozzgarri litzaiguke gazteagoek berentzat hartu eta berpiztuz iraunaraziko baluteke, gure herri honek bere erroak ez ditzan gal.

Arestian aipatu dudan *Noelak* liburuaren 54-55. orrialdeetan dator kanta bere osotasunean, Joanes Etxeberriek "Nola Salbatzaillea sorthu zen gauean gauza guztiak boztu ziren" izenburupean eman zuena da, guztira hamalau bertsok osatzen dute eta, norbaitzurik luzeegi ez iruditzeko, bertatik ondoko zortzirak hautatu ditut. Hara hemen:

*O Eguberri-gaua,
bozkariozko gaua:
allegeratzen duzu
bibotzean kristaua.*

*Mundu guztia duzu
zorionez betbetzen:
zergatik baitiozu
Salbatzaillea ekhartzen.*

*Gau illhunean ezta
ageri iguzkirik:
hunetan dakusagu
mirakuluz ilkhirik.*

*O gau desiratua,
zuzia duzu piztu,
zeñak mundu guztia
behar baitu argitu.*

*Arrañak ere iauzi
ziren paguz urean:
abreak basoan eta
egaziñak airean.*

*Gauza guztiak dire
gau hunetan pagutzen:
orobat egitera
gaituzte gonbidatzen.*

*Berzerik eztao
deus ere ihardetsi
haur batek dituela
baizen ixillarazi.*

*Ixildu behar zuten,
guk ordainez kantatu,
zorionean dela
Iainko-Semea sortbu.*

27.

GABON KANTAK HONDARRIBIAN

Lehenago ere hemengo Gabon kantaz aritua naiz. Baina oraingo honetan beste bi kantaren adabakiak dakarzkit. Adabakiak diot, Sunbillan eta Beran kantatzen zirenen alda-ki edo barianteak direnez gero.

Eusko Ikaskuntzak Aita Donostiaren *Cancionero vasco* delako obraren VII. liburukian, 1994. urtean argitaratuan, besteak beste, honako bi Gabon kanta datoz XX. mende hasieran Hondarribian bilduak: bata "Dios te salve, ongi eto-ri" eta bestea "Alabatua, bedeinkatua" izenburuz, 540 eta 541 orrialdeetan.

Hara hemen doinuz eta bertsoz han datorrenaren arabera:

Dios te sal-ve, on-gi e-to-rri,
 Ga-bon Jain-ko-ak die-la. Le-gi-a--
 -re-kin kun-pli de-za-gun ur-te be-
 -rri-ren bez-pe-ra.

*"Dios te salve", ongi etorri,
 Gabon Jainkoak diela.
 Legiarekin kunpli dezagun
 Urte berriren bezpera.*

Hau da 1920. urtean A. Modesto Lekunberrikoak jaso zuenaren arabera.

Bigarrena ordea, bi bertsoz, hiru urte lehenago jaso zuen A. Xabier Sangotzakoak. Biltzaile biok, Aita Kaputxi-noak, noski. Eta Aita Donostiari eman zizkiten bildutako kantok.

Eta, hona hemen doinu eta bi bertsoak:

Solo (declamado)



A-l-a-b-a-t-u-a, be-dein-ka-tu-a ai! Sa-kra-
-men-tu sain-du-a, Pe-ka-tu-a-ren man-txa-rik

Coro Lento



ga-be ze-ña dan kon-ze-bi-tu-a. Dios te sal-
-ve on-gi e-to-rri Ga-bon Jain-ko-ak di-e-
-la, le-ge-a re-kin kon-pli de-za gun
ur-te be-rr-i-ren bez-pe-ran.

*Alabatua, bedeinkatua
Ai! Sakramentu saindua,
Pekatuaren mantxarik gabe
Zeña dan konzebitua.*

*Dios te salve ongi etorri
Gabon Jainkoak diela,
Legearikin konpli dezagun
Urteberriren bezperan.*

28.

HONDARRIBIKO ALABEGANDIK IDAROKITAKO KANTAK

Mende honen hasieran lau Diputazioen artean euskal kanten bilketazko saria antolatu zuten. Doinu eta letraz mila eta bat aurkeztu zituen R. M. Azkueri eman zitzaion lehen saria eta Aita Donostiaren bildumari aipamen berezia. Handik laster argitaratu zuen Azkuek *Cancionero popular vasco* izenburuz gure herri literaturaren aberasgarri zetorren kanta bilduma, jeneroz sailkaturik.

Horien artean bada amoriozko kanta polit bat Hondarribiko alabegandik idarokia. Ez dakigu bere egilea nor zen, baina zalantzarik gabe esan dezakegu marinel maiteminduren batek egina zela, hemendik Zumaiaraino zabaldu zenez.

Lehendabizi hemen Zenon Ayestaranengandik jaso aadieraziko dugu. Hara hemen bere doinuz:

Alllegretto

Hon-darr-i-bi - a herri-txi-ki - a
 barr-u-an-pla-za za-bal-a, a largunbat-ek
 bai omendi-tu e-derrak hi-ru a-la-ba.
 Zun e-ta zun I-sabela Manuela, Margarita zun e-ta
 zun e-ta zun pe-lo lar-go ta zun.

*Hondarribia herri txikia,
 barruan plaza zabala,
 alargun batek bai omen ditu
 ederrak hiru alaba.
 Zun eta zun, Isabel, Manuela,
 Margarita zun eta zun eta zun,
pelo largo ta zun.*

Hondarribiara Ayestaran etorri zen Zumaian Frantziska Erkiziagandik ahoz jasoaren aldaeratzat ekarriz. Hala ematen du Azkuek eta hala dirudi. Gainera, Zumaian bilduak hiru bertso ditu eta Hondarribian bertan jasoak bat baizik ez. Lehen bertsoan nabari den desberdintasunik nabarmenena, doinuarenaz gainera, azken lerroko "*pelo largo* ta zun", zumaiarrarenean "Peru larga ta jun" delarik. Argi erakusten du nahi eta ezinaren amorioak eraginiko kanta zela, ondoko bertsoetan ikusiko dugunez.

Okinaren alabak zirela aditzera emango digu eta kortesiaz egin zion eskaria pobrea izateagatik ukatzeaz ogi berotan kaudala jateko aukera galdu zuen maitemindu gizarajoak.

Hara bere doinua eta gainerako beste bi bertsoak, zuzun edo zoz-zoz errepika kendurik:

The musical score is written for piano in 2/8 time. The first system is marked 'Lento' and the second system is marked 'Andante'. The score consists of two staves, treble and bass clef, with a key signature of one flat. The first system has 8 measures, and the second system has 8 measures, with a 3/4 time signature change at the end.

*Hondarribia herri txikia,
erdian plaza zabala,
alargun batek hor omen dauzka
ederrak biru alaba.
Zon, zon, zon, Isabela, Manuela,
Margarita zon eta zon eta zun,
Peru larga ta jun,
Peru larga ta jun.*

*Kortesiakin eskatu nion
bat eman behar zidala.
Errespuesta aditu nuan
"mutil pobrea nintzala".
Zon, zon, zon,...*

*Mutil pobrea banintzan ere
zu okin baten alaba,
ogi berotan jango genduan
zurekin neure kaudala.
Zon, zon, zon,...*

Azkueren kantategi horretan, alderantziz, ogibidezkoen edo ofiziozkoen sailean datorren Hondarribiko dendariarena dator. Dendariak nonbait ez zuen izan okinaren alaben aukerarik. Dirua bai, baina senargairik ez. Hara koittaduari egin zioten kanta:

*Dendari bat bada gure auzoan,
irabazten baitu ofizioan;
bere orratzez, bere hariez irabazten du;
badu diru, boltsa badu, aberats da;
senar on bat baizik horrek eztu falta.*

Hor ba, zein gaizki banatua den munduko ondasuna. Hala erakusten bai digute Hondarribiko kantok.

29.

“AURTIXOA SEASKAN” KANTARI ZENBAIT OHAR

Gerraondoko ekintzetan, gazte ginelarik, bateratsu ezagutu nituen "Aurtxoa seaskan" deritzan kanta eta Klaudio Sagartzazu "Satarka" zenaren *Txinpartak* olerki liburua. Hori aski zen denbora latz haietan, egilea ezagutzeko berezikiko zioa sortzeko nire gogoan. Ni kaxkagorra izaki eta zein egun zorionsua igaro nuen Madalena inguruan Satarka, Bordari eta hirurok mahaikide bildurik izan genuen hitzaspertuan. Bi olerkari hondarribiarrok ezagutzean egin zitzaidan hiri hau hunkigarri.

Geroztik, bi olerkari zenduen oroitza oso atsegingarria egin zait. Horregatik, Elgoibarko euskara mintegikoek elkar lanean eskoletarako atera zuten hirugarren liburuan, *Euskal Hizkuntza* eta *Literatura* zeritzanean, Satarkaren irudia eta kanta hura irazkindurik ikusteak poz handia eman zidan.

Egileen artean, Elgoibarko A. Alberdi, I. Garmendia, A. Ugarteburu eta M. Villasanterekin batean hiri honetan bizi den Markos Balentziaga dator, behar bada honi esker sartua Satarka. Olerkariaren lanak eta gizentasunez zenbait ohar interesgarri dakartzki eta Luis Mariano Irundarrari atsegin izatez gainera bere kanten erreperatorioan toki berezia ematera iritsi zirela dio.

Olerkia, Txinpartak liburuzan argitaratua zen, 1922. urtean, baina doinua gerrate garai inguruan ezarri zioten. J. Olaizola aipatzen da hor doinu erasle, baina ziurtasunez azalduko badugu, Olaizola bi anaiak izan zuten beren partea. Doinua Gabrieli zor zaio eta armonizatzea Joseri. 1937-1939. urteetan euskal kulturaren enbajada gisa Eusko Jaurlaritzak Europa eta Amerika zehar Gabriel Olaizolaren zuzendaritzapean igorri zuen Eresoinka taldea, bere historia J. A. Arana Martijak agertua da izenburu hori daraman liburuan, eta bertan ikus ditzakegu kanten egitarauetan behin eta berriz "Aurtxo seaskan" zerrendaturik.

Baina, gutik dakitena da, Satarkaren anai Txomin tenor bikaina zela eta hau zela ahots bakarrean lehen aldiz plazaratu zuena, piano laguntzaz. Geroztik norik ez ote du ezagutzen Euskal Herrietan eta hemendik kanpo?

Olerkariaren eraginak, bere seaska kantaren bidez, musikarien bihotzak irabazi zituen, doinua jartzetik era askotara aurkeztera arte. Hara hemen hitzez-hitz Txinpartak-ren hamairu eta hamalau orrialdeetan datorrena:

*Aurtxo polita
Seaskan dago,
Zapi zuritan
Txit bero...
Amonak dio:
Ene potxolo!
Arren egin ba,
Lo-lo, lo...*

Dlin-dlan, dlin-dlan...

*Ai biotzeko
Maite, kutuna,
Begi argien
Zoruna;
Ez da ludian
Inir ere nik
Bainon geiago nai
Zaitunik.*

Dlin-dlan, dlin-dlan...

*Gotzontxu eder,
Zoragarriak
Egan dabilta
Gañean;
Irri-barreka,
Laztan ta agurka
Laguntza egin
Naiean.*

Dlin-dlan, dlin-dlan...

*Txakur aundia
Etorriko da
Zuk ez ba'dezu
Egiten lo.
Orregatik ba
Ene potxolo !
Egin aguro
Lo-lo, lo...*

Dlin-dlan, dlin-dlan...

30.

OFIZIO ETA TITULUDUN ETXE IZENAK HONDARRIBIAN

Euskal Herrian, antzinako adibideen lekukotasunetara joaz, antroponimia, patronimia eta toponimiak adierazpen egokiak eskaintzen dizkigute iragana aztertzeko, era berean, oikonimiak etxe eta deituren jatorrizko nortasunak eskaintzen dizkigu ikergai.

Hondarribiko oikonimiaz behin baino gehiagotan arduratu naiz, adibidetzat kale kaskotik kanpora aurkitu genezazkeen etxe izenik gehienak, baserriak noski: Pertsona izena, jatorrizko deiturarena edo lekuizenetikakoak aurkitu ditzazkegu maizenik; baina, horiez gainera, badira titulu edo ofiziozkoak ere. Besteei ezer kentzeke, azken oikonimo hauek, benetan interesgarriak historian zehar nor zein zen jakiteko eta aldi berean izen hori noiztik datorren. Horien lehen agiriak hatzematea gauza zaila baldin bada ere, horretan ahalegindu gara.

Lantxo honetan, bildu ahal izan ditudan ofizio eta titulu-dunen berri emango dut. Aldez aurretik argi utzi beharrez-

koa zait oraintsura arte gurasoengandik semeetara belaunik belaungo ordezkotzaz erabiltzen zirela ofizioak eta etxe batek holako izena daramanean pentsa genezakeela jatorriz zetorkien ofizioaren jabe zirela. Tituluak ere, ikasketetakoak ezik, belaunik belaun jarraitzen zuten eta oraindik ere jarraitzen dute.

Jaizkibel mendian agertzen zaizkigu zenbait harrobi, nondik ateratzen zen hondar-harria (bertako hizkeran *mimarria* deritzen zaiona). Harri mota hori, etxegintzan zein elizak erakitzeko hain estimagarria zen garaian, harginik ez zen faltako Hondarribian. Horren lekukorik aski bada agiri zaharretan. Baina, norbait bazen garairen batean ofizio hortan bestek baino trebeagoa edo berezitasun nabarmenak erakutsi zituen, doain horiegatik etxe bat izendatzen bai da **Argiñenea**. 1787. urtean Floridablanca kondearen aginduz egin zen zentsoan eta Diputazioak 1857an argitaratu zuen *Nomenclátor de la Provincia de Guipúzcoa* katalogazioan, bietan dator *Arguiñenea*. Hondarribiko Udalak 1969 osatu zuen baserri zerrendetan ere hola agertzen da.

Arotz ofiziodunaren etxea dugu ordea **Arotzena**; 1787an Floridablaca-ren aginduzko zentsoaren zerrendan *Arozena* eta 1857. urtean Diputazioak argitaratu zuen *Nomenclátor...* liburuan *Arotsena* bezala aurkitzen ditugu. Hortik ikus, behar bada, ordurako nahasten zirela **z** eta **s**-ren erabilerak gure herri hontan. Elizan bataioen lehen liburuan agertzen dira XVI. mendearen azkenaldera *Arostegui* eta *Arosteguieta* deiturak daramatzatenak, baina ezin genezake ziurtatu Arotzena baserriarekin ezer ikustekorik duten.

Gaur egun *Balestenea* izenez ezagutzen dena, **Ballestaria-nea** zen 1787ko zentsoaren zerrendan, eta *Ballestanea* 1857an Gipuzkoako Diputazioak argitaratu zuen *Nomenclátor* hartan. Ballestaginaren etxea zalantzarik gabe. Baina, ballesta, armarena ala zalgurdiarena ote zen? Azken hau seguruenik. Dena dela, hor dugu ofiziodun baten izenaren lekuko.

Oso ezaguna zaigu **Batxillerenea** ere, 1787ko zentsoa hartan *Bachillerenea* bezala agertzen zaiguna. Gaur egun, zerbait ikasiak diren guzietan dute batxiller titulua, baina hemezortzigarren mendean ez zen nornahi. Isastik 1625ean idatzi zuen *Compendio historial de Guipúzcoa* liburuaren 454. orrialdean, Batxiller ziren bost hondarribiarren izen-deiturak ematen ditu, ordena honetan: Migel Olaberria, Pedro Zuloaga, Gabriel Abendaño, Juan Otxoa de Altxakoa eta Migel de la Borda (hau Laborda bezala irakurtzekoa da). Azkenagatik bakarrik zioen nortzuren ondotik kargua hartu zuen eta aldi berean, “que hoy vive” ezarriz. Horrek aditzera ematen digunez, nonbait, besteak ordurako hilak zirela. Horietakoren bategandik har zezakean basarri etxeak Batxillerenea izentzat. Inor gehitzekotan, behar bada 1516. urtean hemen bertan bizi izan zen Batxiller Joan Martínez de Zaldibia tolosar historiagilea edo izan daiteke. Pertsonaia ospetsu hau *Suma de la cosas cantábricas y guipuzcoanas*-en egilea genuen. Liburua 1560ean Gipuzkoako Batzarrai eskaini zion, baina historiagile askok eskuartean izanarren — gure betidaniko kultura ahuleziagatik edo — ez zuen izan inprimatuta argitaratzeko zoririk Fausto Arozenak bere sarreraz eta oharrez 1944an plazaratu arte.

Orain hain ezaguna zaigun *Biskundi* auzoak, bere izena, lehen toki hartan zen etxe batetik hartua du. Etxe hura, 1857. urtean **Viskundinea** bezala agertzen da probintziako *Nomenclátor* hartan eta, zalantzarik gabe, bizkonderen baten etxea zela erakusten du.

Ttun-ttun joleak emango zion izena **Danboliñenea**-ri. Hau ere, gutxienez, hamazortzigarren mendetik datorkigu, 1787an *Tanboliñenea* eta 1857an *Danboliñenea* agertzen denez.

1787an **Herreronea** eta 1857an *Erreronea* agertzen zaiguna, behar bada, ofiziokoa ez ezik deituratikakoa izan daiteke, jatorriz deitura bera ere ofiziotik sortua izanarren,

zeren 1638rako Hondarribian bertan agertzen bai da deitura hori, Migel de Aguinaga y Herrero. Handik hasia ote? Oroigarai haietan erraz egiten zutela lehen deitura bigarrenagatik trukatzea.

Edonork dakien bezala, Hondarribiko baserri baten izena **Ipiztiku** da. Bat batean edonorri izen arraroa edo bitxia irudituko zaio. Etxe horren lehen berria Isasti lezoar historiagileak eman zigun 1625. urtean idatzi zuen *Compendio historial...* liburuan, “Castezar ó *Ipizticu*” izendatuz. Gaur egun Lapurdi aldean erabiltzen den Ipiztiku (= Obispo, gure egunotako berrikerian, Gotzaia). Axularrek 1653an argitaratu zuen *Gero* liburuaren “Gomendiozko karta” haretan Bertrand de Echaus apezpikuari era honetan egiten zion eskaintza: “...çuc ere Baionako Ipizticu cinenean”, esakuntza horren muinean esan nahia nabari da. Ubillos gipuzkoar idazleak ere hala erabili zuen 1785ean argitaratu zuen *Christau doctrin berriecarlea* zeritzan liburuan; baina, gure egunokarte, baita Nazario Oleagak ere Euskaltzaindiko idazkari zenean, berrikerietara jo gabe erabili zuen erakunde honen batzar agirietan. 1857ko *Nomenclátor*-ean agertzen denez berriz, Hondarribiko bi etxek zeramaten izen hori, bata *Ipizticu* eta besteak *Ipizticunea*. Argi dago lehenengoa dela jatorra eta bigarrena handik alde zuen familikoren batek eraikia. F. Porturen *Fuenterrabía. Notas históricas y curiosidades* (1975) liburuan aurkituko ditugu biak, sagardotegiak aipatzen dituen 306. orrialdean; bi etxeotan bai ziren sagardotegiak 1934. urtea baino lehen. *Ipiztiku* Arkoll goiti Jaizubia aldera eta *Ipiztikunea* Madalen-gainetik Akartegi partean. Migel de Lizardi *Ipizticu* herrikoseme jatorren artean agertzen da 1638. urteko zerrendan. Guk aipatzen dugun baserria ipiztikuren baten egoitza edo jabegoa zen noski eta ziurkiena da deitura hortik sortzea.

Bertako semeetarik bat bazen XVI. mendean ipiztiku izatera iritsi zena, Cristobal de Rojas y Sandoval, zeinengandik datorren hirian “Calle del Obispo” eta baita ere ditekeena da

baserriak pertsonaia horrekin zer ikusirik edukitzea. Pertsona horri buruz, ikus *Hondarribia* aldizkarian argitaratu nuen “Cristobal de Rojas y Sandoval (1502-1580)” idazlana (44. zenb., 16-17. orr., 1991, iraila).

Kaikuegi, etxe izentzat “*Caicuegui* de Arcoll” bezala dakar Isasti berak 1625ean idatzi zuen *Compendio historial...* haren 91. orrialdean. Oroi, antzina gauza bera adierazteko: **-(t)egi, etxe** bera baino maizago agertzen dela agiri zaharretan. Hortik pentsa ditzakegu kaikugile tradizioa zuten familiarena zela etxe hori. Gainera, famili honen armarriak bost kaiku ahuspez daramazki. *Caicuegui*, 1787an Floridablanca-ren zentsoan ere badator. Baina, deituraren aspaldiagoko agiriak ezagutzen dira F. Porturen liburuan. Eta, deituretan lehena Fermin Olaskoaga adiskideari zor diot, berak elizako lehen bataio liburutik jaso ahal izan dituenak lekuko, han agertzen zaizkigu, Gabriel *Caycuegui* 1565eko abenduaren 2an bataiatua, eta Juanes Otace *Caicuegui* 1585eko azaroaren 28an. Ondotik beste asko datoz. Gipuzkoako gizon ospetsuen artean agertzen du Isastik, aipatutako liburu horren 334. orrialdean. “Doctor Martin de *Caicuegui* y Arana, colegial y catedrático en Oñate. Natural de Fuenterrabía”. Eta Fausto Arozenaren *Diccionario biográfico vasco*, vol. I Guipúzcoa (1963) delakoan datorrenez, 1623an Oñatiko Unibertsitatean Erretore omen zen.

Konsul zenaren etxeak ere, bere izentzat hartu zuen, **Konsulanea**, 1787ko zentso hartan agertzen denez. Orain *Consolonea* bezala agertzen da (beharbada ahozkatzean hala erabiliko zuten), baina 1857ko *Nomenclátor* haren zerrendan ere argi dator, *Consulaenea*.

XVI. mendetik XIX.era arte, Itsas-Kofradiak izendaturik, bi “Jueces Cónsules de Mar” izaten ziren arartekotza betetzeko, Hondarribiko 1566. urteko Ordenantzak jasotzen duteenez, horien egitekoa zen, portuko gorabeherak zaindu eta auziak konpondu. Horiegandik ote dator Konsulanea etxea?

Daitekeena. Bizkaiko zenbait portutan Instruman deitzen zitzaien itsas-kontsul hoiei. Hortaz idatzi nuen "Itsas-kontsula Hondarribian" zeritzan artikulua *Hondarribia* aldizkarian (46. zenb., 38. or., 1992, iraila).

Telleria, 1787ko zerrendan aipatzen da, baserri etxe hori hutsik zegoela aditzera emanaz, baina 1857ko *Nomenclátor* haren etxe zerrendan berriz dator. Geroztik galdua da non-bait. Egia esan, Telleria, ofizio bera baino areago zen lantegia, baina tellagina edo tellaginak ere bazirela adierazten digu.

Horietarik ohartuko gara etxe izen bakoitzak zernolako adibideak ematen dituen, deiturentzat ez ezik biztanleen ogibide eta ekintzak ezagutzeko. Beroiei esker, ulert errazago egingo zaizkigu oikonomiak ondare bezala historiarentzat eskaintzen dizkigun adibide jakingarriak.

31.

IPIZTIKU

Edonork dakien bezala, Hondarribiko baserri baten izena da Ipiztiku. Bat batean begiratuz, izen arraroa edo bitxia iruditzen zaigu. Etxe horren lehen berria Isastik eman zigun 1625. urtean idatzi zuen liburuan, "Castezar ó Ipizticu" izendatuz. Handik laster, 1638. urtean hiriari jarri zioten hesian, barnean ziren seme jatorren artean agertzen zaigu Miguel de Lizardi Ipisticu. Beraz, badirudi etxeaz gainera deituratzat ere erabilia zela. Baina euskal deituren zerrendak eta ikerketak egin dituztenen liburuetan ez da agertzen Ipiztikurik.

Ipiztiku lehen aldiz entzun nuenean, oso bitxia iruditu zitzaidan. Gure egunotan hain arruntak ez diren hitzak ordea, beharrezko zaigu agiri zaharretan oinarriturik aztertea. Orain, usterik gutien nuenean, hara non aurkitu dudan izen hori Ubillos idazlearen *Christau doctriñ berri-ecarlea* (1785) liburuko 105-106. orrialdeetan eta honako hau irakur daiteke: "eliz bacotzean Ipizticu edo Obispo bat", eta ondortik beste honako hau: "Aita Santua deritzana, Jaicoac ala nai

ta da Ipizticu guzien lenengoa". Ondoko orrialdeetan ere beste honako hauek irakur daitezke: 108. orrialdean, "Apostoluac eracutsi zuena igaro zan lenengo Ipizticu-etara" eta 176.ean berriz "...hondra ditzagula Ipizticuac edo Obispuac".

Hara hor argi eta garbi Ipiztikuren esan nahia. Bertatik, ohartu nintzen Axularrek 1653. urtean argitara eman zuen *Gero* liburuan datorren "Gomendiozco carta" haretan Bertrand de Echaus apezpikuari egin zion eskaintzan esaten zuenaz: "...çuc ere Baionaco Ipizticu cinenean" esaldiaren muinean nuela hitz hori. Aldiz, liburuaren barnean, 393. orrialdean berriz aipatuko zuela lehen hain bitxia zitzaidan hitz hori "Hugo Ipizticu" hura aipatzean.

1857. urtean bildu eta 1864an Gipuzkoako Diputazioak argitara eman zuen *Nomenclátor de la Provincia de Guipúzcoa* hartan Hondarribiko bi etxek zeramaten izen hori, bata "Ipisticu" eta bestea "Ipisticunea". Argi dago lehenengoa zela zaharra eta bigarrena handik alde zuen familikoren batek gero eraikia. Florentino Porturen *Fuenterrabia. Notas históricas y curiosidades* (1975) deritzan liburuaren 306. orrialdean, sagardotegiak aipatzean, aurkituko ditugu biak. Bi etxeotan bai ziren sagardotegiak 1934. urtea baino lehen. Ipiztiku Arkolla goitik Jaizubia aldera eta Ipiztikunea Madalen gainekaldetik Akartegi aldera.

Gero, *Hondarribia* aldizkariaren 9. zenbakian (1986ko abenduak, 2. orrialdean) irakurri nuenez egungo ahozkeraz *Epiztei* erabiltzen omen da. Baina era jatorra, zalantzarik gabe, *Ipiztiku* dugu.

Hondarribian bada Apezpiku kalea (Calle del Obispo), bertako hizkera jatorrean Ipiztiku hobeto letorkiona. Kale horren izena bertako seme ospetsu baten oroitzapenean jarria da, Cristobal de Rojas Sandoval y Aliaga (1502-1580), bere garaian Ipiztiku izan zena Oviedo, Badajoz eta Córdoban, Trentoko Kontsilioaren bigarren aldian partaide izana

eta Sevillan Artzapezpikui zelarik hila, lehenik Valladolid-eko Cigales-en eta gero Lermako San Pedron hobiratua izan zena.

Baina Hondarribiko baserriaren izena hura Ipiztuku egin baino lehenagokoa dela esango nuke, zeren izen hori agi-rietan lehen aldiz hark hogetiru urte baizik ez zituenean aurkitzen bai da.

32.

HUTSAREN GAINEAN HUTS: ELIAS, ELIZA

Toki-izen jatorreri buruz bada oraindik gaur egun ahoz erabiltzen dena beste gabe onartzearen eritzia duenik, gure arbasoegandiko ondare diren toki-izenen kaltetan.

Guk ordea, esan nahia hutsaltzen duena onartzerik nahi ez. Mendez-mende zuzen erabilia noizbait gaizki ahozkatzez aldatu dena ez dugu uste onar daitekenik, bestela historia ukatzen ari gara eta aldi berean deiturak bihurrikatzez urruntzea eta hizkuntza bera hausten, zatitzen eta pikortzen.

Arazoa ez da beti uste bezain ximplea. Inoiz ahozkeraz datorkigun eboluzioa neurri batean onartu beharrezkoa zaigu, baina ez deformaturik hutsal bihurtuko den neurrian. Bestela, akabo gure hizkuntza.

Zuzen jokatzeko, aburuak jarri eta arauak mugatu behar ditugu eta, azken erabakiak hartzeko, ahozkerazkoa eta agiri zaharretakoa begiratu eta aintzat hartuz, ahal den neurrian finkapen ziurrak egin.

Hondarribia aldizkariaren 8. zenbakiko 9. orrialdean, gaztelarazko Montaña bezala erabiltzen den auzoaren izen jatorra *Kornutz* zen, eta ez alardeko konpañia batean agertzen den Mendi. Agiririk zaharretan *Cornoz* zen, garai haretan, euskal grafiaren erabilerarik ezagutzen ez zutelako, baina gure hizkuntzaren legez, *Kornotz* behardu izan. XVII. mendean ordea, *Cornuz* zein *Cornus* bezala maiz agertzen da. Bestalde, *Cornoz* deitura oso ezaguna zen XV eta XVII. mendeetan. Gai hau zehatzago ikusteko, begira liburu honen lehen partean datorren “Kornotz, erromar jatorrizko lekuizena”.

Izen hori daraman baserriaren ondoan badira beste bi, gaur egun bata guztiz eroria eta bestea erortzen. Ba, horiek, ahoz Pekunia eta Muxenia bezala ezagutzen dira; baina Floridablanca-ren aginduz 1787. urtean lehen aldiz egin zen zentso hartan *Peruconea* eta *Murisenea* bezala agertzen dira. Eta Gipuzkoako Diputazioak 1857an bilduz argitaratu zuen *Nomenclátor* hartan *Peruquenea* eta *Musenea*. Ahoz iritsi zaizkigunak ordea ez dute ezeren antzik, ez zentzurik, ez da ere euskarazkoak direnaren itxurarik ere.

Uste dut adibiderik aski dela nola bildu behar diren jakiteko. Dena dela, aditzera eman nahi nuke, 1986. urtean Gasteizen Euskaltzaindiak antolaturiko hitzaldietan agertu nuela lan bat, Gipuzkoan bilketarako arauak eta adibideak eskainiz. Jasorik dator *Onomasticon Vasconiae* saileko 4. alean, *I Onomastika Jardunaldien agiriak Toponimia* liburuan (1991). Ikus 249-277. orrialdeetan.

Oso jakina denez eta beti kontutan hartu beharrezkoa, Hondarribia aldean, etxe izena, pertsona-biztanlearenari -*nea* (beste leku batzutan -*rena*) atzizkia erasten zaiola izendapenez, gerora batzutan -*nia* bihurtua. Asmorik hoberenakin ere kalterik egin nahi ez badugu, hori ere kontutan hartu beharrezkoa zaigu.

Aspaldiko urteetan gauza hauek axolarik gabe erabili dira eta beserri izenak zerrendetan biltzean arinegi jokatu

da, hizkuntzaren kaltetan eta deiturak beren era jatorretatik etenaz.

Auzo, baserri eta toki-izenak behar bezala erabiltzeko kontzientzia hartu beharra dugu, historiaren eta arkeologjiaren azterketarako naiz hizkuntzaren onerako lagungarri direnez gero. Egin diren okerrak eta hutsak hain dira handiak, gezurra badirudi ere, Jaizkibel mendian lehengizonen azternategiak aurkitzean lan gutiago eman zidan bertako izenak jasotzeak baino.

Izenon garrantzia nolakoa den jakiteko, adibide gisa, hara hemen neroni gertatua:

Mendizalea eta arkeoloji zalea izaki eta Hondarribira etorri nintzenean, Udalak 1969an egin zuen 1:10.000 eskaladun mapa batez jabetu nintzen toki-izenen arabera neure arloan ikuskatzeko. Eta, hara, Jaizubia auzoan *Eliz-garay*, *Eliz-azpi* eta *Eliz-berri* erromes tokiaren susmoa hartu eta bertara jo nuen ermita arrastorik ote zen. Baina, huts!

Diputazioak 1857an etxe zerrendaz argitaratu zuen *Nomenclátor* hura hartu nuenean, handik ohartu nintzen *Eliz* horiek *Elias* zirela: *Elias-garaikoa*, *Elias-azpi* eta *Elias-berri*. Eta izkribu zaharretan ere hala ziren, gero ikusi dudanez. Gehiago da, bertako biztanle zaharrek oroitzen ziren izen jatorra *Elias* zela eta ez *Eliz*.

Zer gertatu da hor? Azken bokal edo fonema *a* erortzea eta *s* eta *z* nahastea, inguru hauetan maiz gertatzen den bezala.

Kontu hortan, iturri jatorretara ez joateagatik halako lanak irten dira. Adibidez, har dezagun Iñaki Linazasorearen *Caseríos de Guipúzcoa* (1974) eta holako hutsez beterik aurkituko dugu. Hondarribiko zerrendan, ikutu batzuk gora-behera, hor oinarritu zen Etxaburu'tar Jose Mari "Kaminazpi" nire adiskide mina *Ondarribiako kondaira* (1986) deritzan liburuaren 152-159. orrialdeetan dakarren zerrenda osatzeko eta horregatik erori zen hainbeste hutsetan.

Baina kultur ondarea zaintzeko bakoitzari berea eman behar zaio, izkribu edo idazki zaharretan datorrenaren alde eta ez azken belaunaldietako ahozko erabilera bihurriari jaramon eginaz. Beraz, *Elias-garaikoa*, *Elias-azpikoa* eta *Elias-berri* erabiltzea hobeto egingo genuke.

33.

CRISTOBAL DE ROJAS Y SANDOVAL (1502-1580)

Sevillako Artzapezpikura iritsi zen Kristobal Roxas eta Sandoval, gure herrian guti ezagutzen den pertsonaia dugu, bertan jaio zelako monumentu bat ez ezik, XVI. mendetik hiriaren hesi edo murre barnean kale batek ere bere izena edukiarren.

Nor zen Ipiztiku hura, Esteban Garibai arrasatear kronikagileak 1571. urtean "Antigüedades del valle de Oyarzun..." delako gutuna Sebastian Lartaun jaunari idatzi ziona (ikus *Euskal Erria*, VII, 1882, 25-28. orrialdeetan argitaratua) eta urte berean Amberesen *Compendio Historial...* argitaratzean eskaintza egin ziona).

Luis Cervera Vera-k Sandovaldarrei buruz eman zuen genealogiara jo beharrean gaude, zeinetan aurkitzen diren XV. mendetik Sandoval leinu guduzalearen berriak. Baina, gure Ipiztiku zenaren aitak, Bernardo Sandoval y Roxas (geroago Rojas), Denia-ko bigarren markesa, Errege Katolo-

koengandik Lerma-ko konde titulua jaso zuen hark, ez zuen gudurik gogoko eta jauregiko bizitza opa zuen ondorengoen-tzat. Franziska Enríquez errege Fernandoren lehengusinare-kin ezkondua eta 1504. urtetik erregeren maiordomo izenda-tuak ez zen harrizkoa jauregietako giroa maiteago izatea.

Garai haietako kronikagileen eritziz, gizalege aldetik, por-taera zalantzarria zuen Bernardok. Dena dela, bere semeet-arik bik elizgizon bidea hautatu zuten, Diego Jaén-en *deán* (dekano) izatera iritsi zenak eta gure Kristobal, ipiztikutzatik Sevillako artzapeztikura iritsiko zenak. Ondotik beste batzuk jarraitu zieten, aipagarrien direlarik Bernardo Rojas y Sando-val Espainiako *Cardenal primado* izatera heldu zena eta Pru-dentzio Sandoval y Rojas Iruñeko Ipiztikua.

Denia-ko markes eta Lerma-ko konde zen Bernardo, Hondarribiara etorri zen errege Felipe lehenarekin, "El Her-moso" zeritzana, eta Juana la Loca-ren etorrera zain, eta ego-taldi hartan eduki zuen semea Hondarribian, 1502. urteko uztailaren 26an, Kristobal izenez bataiatu zutena. Bere ama, Dominga Alzega hondarribiarra, famili ezagun eta jatorreko alaba. Beraz, seme naturala deritzaienetakoa dugu Kristobal.

Alcalá de Henares-ko Unibertsitatean egin zituen ikaske-tak eta Teologian doktoradutza egin ondorean irakasle igaro zen San Ildefonso ikastetxe nagusira.

Karlos V. enperadoreak bere jakintasun eta bizitza zin-tzoaren berri jakin zuenean kaperautzat hartu zuen, harat-honat berakin eramanez. Ratisbonan Oviedoko Ipiztikutza-rako aurkeztu zion Aulki Santa gorenari. Horrela hartu zuen Ipiztiku izendapena.

Oviedotik hurrengo Badajoz eta Córdoban bete zuen ipiztikutza. Trentoko Kontsilioan egon zen 1552. urtean eta Toledokoan buru egin zuen 1565ean.

Bere babesean hartu zuen Prudentzio Sandoval iloba, etxean lekua egiteaz gainera, ikastaroak bideratuz. Eta, hara

non, Esteban Garibai hil zenean, errege Felipe III.ak kronista izendatu, haren lekua betetzeko. Geroago Iruñako Ipiztiku aipagarria izatera iritsi zen Prudentzio, eta inoiz ez zuen ahaztuko bere eskertza. Burgosko Artxibategian, Lerma-ko agirietan aitortzen denez: "... el ilustrisimo y reberendisimo señor don Cristoval de Rojas y Sandoval, su señor tio que fue de su excelencia, y arçobispo de la Santa yglesia de la ciudad de Sevilla, de buena memoria, por averle criado y alimentado en su cassa, y a los estudios como tal, su deudo,..." (A.H.P., Lerma, *Pedro Lozano*, 1614, fol. 774).

Uste dut, Prudentzio Rojas y Sandoval Ipiztikua eta Bernardo de Sandoval y Rojas Espainiako Kardenal nagusiaren izen eta bizitzak zerbait nahasturik edo agertzen direla J. Goñi Gaztanbideren *Historia de los obispos de Pamplona*-ren IV. liburukian. Zeren Lerma-ko leinu haretan Bernardo izenekorik anitz bazen, baina Prudentzio bat baizik ez. Lehengusu Kardenalaz gainera, oroi Iruñeko Ipiztikutegiaren *Constituciones Synodales* delakoaren biltzailea izen bereko iloba zela. Gainera, Prudentzioren iloba hori, oinordeko izendatu zuenez, auziak sortu zizkion Ipiztikutegiari.

Ohar hoiien ondotik, jo dezadan berriz hondarribiar ipiztikuarengana: Kristobal, osaba, Sevillako Artzapezpiku 1571an izendatua izan zena. Haren agintaritzapean aipatzen diren ekintza nagusiak: Santa Teresaren sorketazko eliza sakralizatzea, 1576an. Bi urte geroago, Alonso de Maeda-ren zuzendaritzapean Antiguako Amaren irudia, horman freskoz pintaturikoa, katedraleko kapera batetara aldatu, Ebanjelio aldera, eta 1579an San Frantziskoaren gorpu ustelgabea Andra Mariaren kapera eginberrira aldatu.

Baita ere, aipagarria da, bere agintaritzapean oraindik ohi zen *liturgia antigua hispalense*, hiru mendetan iraun zuena, *orden romano* era berriko ospakuntzaz aldatu zuela.

Korogibel ingurua buka eta hornitu ondorean, 1580. urtean, Badajoz-era joan zen, errege Felipe II.aren Gordean

zenbait hilabetez zerbitzera. Handik, gurasoen etxe eta hazienda bisitatzera abiatu zen, eta bidean zihoala, Cigales deritzan herrixkan hil zen, Valladolidetik hurbil, 1580. urteko azaroaren 20an.

Lerma-ko Kolejiata hartan eraiki zioten estatua eder bat, arte balio paregabekoa brontze urreztatuaz egina, Artzapezpikuaren irudia otoizketan aurkeztuz: Pompeo Leoni-k egin zuen moldearen arabera Lesmes Fernández del Moral-ek bukatua, 1606. urtean.

BIBLIOGRAFIA.-

Vicente Castañeda, *El cronista fray Prudencio de Sandoval. Nuevas noticias biográficas*. Madrid, 1929, p. 13.

Luis Cervera Vera, *La Iglesia Colegial de San Pedro en Lerma*. Burgos, 1981, pp.18, 52 y 119.

José Goñi Gaztambide, *Historia de los obispos de Pamplona*, t. IV, 1985, p. 555.

José Alonso Morgado, *Prelados sevillanos o Episcopología de la Santa iglesia Metropolitana y patriarcal de Sevilla*, 1899-1904, p. 446.

Serapio Múgica, *Geografía General del País Vasco-Navarro*, Vol. Guipúzcoa, Barcelona, 1910-1916, p. 758.

Carlos Seco Serrano, "Vida y obra de fray Prudencio de Sandoval", *Biblioteca de Autores Españoles*, t. LXXX, Madrid, 1955, p. VII.

Luis de Uránzu, *Lo que el río vio (Biografía del río Bidasoa)*, San Sebastián, 1955, p. 143.

Silvestre Velasco Pérez, *Aranda. Memorias de mi villa y de mi Parroquia*. Madrid, 1925.

34.

FRANZISKO ISASI ETA BESTE BI ISASIAR MUGAKO GUDUETAN

Franzisko Isasi jesuita eta ingeniaria, Eibarren jaio zen 1605. urtean, zenbait aldiz aipatzen du Joseph Moret historiagileak *Sitio de Fuenterrabia* (1654) liburuan, Hondarribiari 1638. urtean frantsesak jarri zioten hesi aipatu hartatik hamasei urtera hain zuzen, gertakari haietako une larrietan defentsarako murrak berrizatze eta indartzez ausart jokatu zuelako.

Aipatzen ez duena zera da, Antonio Isasi almirantea osaba zuela eta ahideko Diego Sarmiento Isasi Gipuzkoako gudarosteen koronela. Baina hau, liburu hortan, maizenik Diego Isasi bezala dakar, bigarren deitura soilez.

Gregorio Mujikak bere *Monografía histórica de la Villa de Eibar* (1910), liburuaren 252. orrialdean adierazten digunez, Eibarko Markeskua jauregiko hiru Isasik izan zuten 1638ko hesi hartan partaidetza. Eta seguruenik Antoniok edo Diegok deitua izango zen Franzisko defentsarako

murruean lanetarako. Langintza hoiem berri ematen du Florentino Portuk *Fuenterrabía. Notas históricas y curiosidades hasta 1969* (1975) deritzan liburuaren 265. orrialdean (1989. urtean argitaratu zen bigarren edizioan 398. orrialdean berriz datorrena). Gainera dio, Franzisko Isasik, 1639. urteko irailaren 8tik ezagutzen den ospakuntzari bere predikuaekin eman ziola hasiera.

Dena dela, Franzisko Isasiri buruz ez dakigu gauza askorik, F. Arozenak *Diccionario biográfico vasco* (vol. Gipuzkoa) haren 117. orrialdean eibartartzat jotzen du, historiagileek hala ziotelako. Familiaz bai noski, baina bertan jaio zenik ez dakigu. Nik neuk ere, hoiei jarraituz, aipatzen nuen Euskal Herriko Erret Adiskideen sarrerako hitzaldian (ikus, *Bol. R. S. B. A. P.*, XXXIII, 1977, 556. or.).

Jatorri hortako Isasiarren familian eman zen gizonik ospetsuena Juan Isasi zen noski, errege Felipe IV.aren semeen maisua, Quevedo idazlearen adiskide mina eta honek Sandoval torrean gogozkontra eduki zutenean idatzitako gutunetan, lagun ona goresteaz gainera, hark ematen zizkion berriak arduratsu jarraitzen zituela dirudi, bereziki Bidasoaren muga inguruetako auzi eta borrokak zirela eta (ikus, Francisco de Quevedo, *Obras completas*, 1960, II. tomoko, 938-939, 944-945 eta 952-953. orrialdeak). Gai hortaz aspaldi idatzi nuen *Eibar* aldizkarian, 1964. urtean abendu zentzuan.

Diego Sarmiento Isasi koronela 1636an gipuzkoar tropen buru Urruñara sartzean, alde batetik soldaduak indarkeriz egin zituzten gehiegikeriak eta ondotik emakumeak hain basati, Quevedok hor azaltzen ditu 644-945. orrialdeetan. Gerora ordea, 1638ko hesiaz hainbeste idatzi dutenek holarik aipatzen ez dutenarren. Hara hitzez-hitz zer zioen Quevedok: "...los guipuzcoanos pasado el río Andaia, a pesar de los franceses, con el agua a los pechos. Luego tomaron el lugar de Urruña, entrando los hombres por una

puerta a cuchilladas, y trescientas mujeres que los seguían por otra con asadones y piedras y palos, y éstas hicieron grande estrago, saquearon el lugar y le pusieron fuego. Pesóle al coronel don Diego de Isasi, mandólas retirar y que no siguiesen”.

Bakoitzak atera ditzala kontuak gertakari horietaz.

1521eko gudua eta 1638koa ez ziren gauza bera. Lehenngoan nafarrak berena izan zen Bidasoa parte hau berreskuratu nahi izan zuten, bertako askoren laguntzaz, “Gaztelako erregeen menperatze hura eta XVI. mendeko gudua” zeritzan artikulu hartan azaldu nuenez (ikus, *Hondarribia* aldizkaria, 74. zenb., 18. or.). Gerora, giputzak gaztelako erregeen eraginez, mugaren bi alderdietako euskaldunen artean gorrotoa biziagotzen ahalegindu ziren. Baita ere, esan behar da, aukera hori Nafarroa eta Biarnoko Henrike IV.a, Joana Albreten semea, Frantziako errege egiteak bide eman zuela.

Topikoak berez iraunkorrek izaki. Mugazandikoei hugonote izatetik leporatu zitzairen zama oraindik hor zeramaten eta edonolako zigorra libre zen, garaiko gaztelarren politikari komeni zitzaiolako noski. Baina historiari ere bere mugak jarri behar zaizkio eta ziur dakiguna da Herrike IV.a 1593an Frantziako errege izendatzean, “Parisek meza bat ongi merezia du” esanaz katoliko bihurtu zela. Beraz, ez zegoen erlijio aldetiko desberdintasunik, bai ordea politikagatik lehendiko itzal hari iraunarazi nahia.

Pierre d’Lancrek, 1609.ean, Lapurdi eta Baxenabarreko hainbat emakume euskaldun sutan erre zituen Bordelen, ulertu ezin zuten hizkuntzan sorgintzat epaiturik, hugonoteak (calvinistak) izateaz gainera deabru hizkuntzan mintzaten omen ziren. Aldi berean, beren buruak gorde nahirik 1610.ean mugaren alde honetara ihesi zetozten emakumeentzat hemen ere sorgin-ihiza ireki zuten (ikus, liburu honetan: “Sorginak Hondarribian?”).

Baina, arestiak esan dudanez, ezer gutxi dakigu Franzisko Isasiren bizitzaz. Hondarribiko murrak berriztatuz gero, 1646. urtean, Eibarko udalaren eskariz San Andres parrokiako kapera eta torregintzaren egitura eta eraikuntza lana eman zitzaien berari eta Inazio Antsola Markin-Etxebarriko hargin-maisuari. Franzisko Isasiren proiektoa onartu zen, nork kanpantorreari konopial erako silueta berezia eman zion. Aldiz, I. Antsolaren harlanduzko eraikuntza lanak bere seme Joan Antsola Ibarguen arkitektoak jarraitu zituen, torrea 1656. urterako eraikia zen eta eskatu zitzaien lan guzia 1662.enean bukatu.

Oraintsu, I. Zendoia Etxanizek argitara berri du Joan Antsolari buruzko iker lan zehatz bat (ikus, "Algunas obras de Juan de Ansola, Maestro Arquitecto del siglo XVII, en Guipúzcoa", *Bol. R. S. B. A. P.*, LII, 1996, 373-405. orr.), baina ez du ezer gehitzen Franzisko Isasiri buruzkoan.

35.

A. JARDINE HONDARRIBITIK IGAROTZEAN

Alexander Jardine inglesari buruz gauza guti dakigu, Woolwich-eko Royal Military Academy-koa zela eta graduetan teniente koroneleraino iritsi zela. Bere azken urteetan, 1779tik 1795era Inglaterrako kontsul izan zela La Coruña (A Cruña) hirian eta Portugalen hil 1799ko uztailen.

Bere ibilietaz *Letters from Barbary, France, Spain, Portugal, etc.* argitara eman zuen 1788. urtean, handik bi urtera alemanera itzuliko zen lana eta duela urte batzuk, Espainiari dagokion parte soilik, F. J. Mayan-ek gazteleraz eman zuen *Los curiosos impertinentes viajeros ingleses por España* izenburudun bilduma hartan, Editora Nacionalek argitaratua. Liburuaren 132-134. orrialdeetan dator Alexander Jardine jaunak Euskal Herriaz idatzi zuena. Baina guzia ez zuen zehatz itzuli, maizenik zioena adieraziz baizik; zuzen itzultitako zati batzuk ordea kaxotx edo komilla artean datoz itzultzaileak bere ohar pertsonalak ezarriz.

1779. urtean, Coruñara etorri zenean, Bidasoatik Galiziarainoko bidaiaz idatzi zuen.

Hondarribiara iristean, frantsesek jarritako gudu-hesien aurka hain kementsu eutsi zion hiri hau abandonatu xamarra iruditu zitzaion; baina gure herriaz orokorki agertu zuen gogoetaz zioen: “Penintsulako libertateen azken gordelekua da eta lehengo eragina oraindik nabari zaigu bere izaeran, industria eta hiritarregan, gobernatzaile eta gobernatu guzien onerako. Baina, español legislatzaile batzuk, gehiegiko arretaz hasiak dira bertako egoera nahasten eta gobernatzailea bultzaraziz jende hau libreegia dela eta, dagoen egoera dotrina hortara makurtu nahi dutela dirudi, aurrerakuntzen errezeluz, bidegabetasunez eta zeken jokatu.”

Oroi hemen oraindik Foruak indarrean zeuden garaia zela. Beste mende erdi bat iraungo zuten, zeren 1837.eko irailaren 16an Konstituzio berriko Gorteen Dekretuz kendu ziren Batzar Nagusiak eta Foru Diputazioak. Horrez gainera, aduanak Ebrotik itsas ertzera eta Bidasoara aldatzeko agindua eman zen. Ordurarte Frantziapean zen Euskal Herri partearen mugetara ekarri zuten, Bidasoa bertara, euskaldunon artean lehendik eraiki zuten muga hertsia jarritz.

Jardine jaunak Hondarribitik zuzenean Pasaiako bidea hartu zuen Donostiaruntza joateko eta handik Bergarara errepidez. Pasaia atsegina iruditu zitzaion. Gipuzkoan zehar, bide inguruetan zenbait gaztelu eta jauregi galzorian aurkitzeaz horien berritze gogoaz azaltzen zuen.

Euskal Herriaren adiskideak, Real Sociedad de los Amigos del País-koek, han ari ziren Bergarako Erret Mintegi (Real Seminario de Vergara) ospetsuan zientzia eta aurrerapena helburu zituztelarik. Hura bisitatzean biziki goraipatzen du Xabier Munibe Peñaforida kondea bere laguntzaileekin egiten ari zen arte eta ofiziozko iker lana. Mirezgarria zeritzon aitonenseme noble haren borondatea, klase maila desberdintasuna alde batera utziz herriaren aldeko aurrerakuntzetara gorputz eta arimaz emana ikusteaz eta izan zuen elkarrizketan Peñafloidak zioena oroitarazten du, “ohi ez bezalako

atsegina zela herri hauetan, behar bezala apreziatzen ez daki-guna noski, bertakoentzak hain naturala denezkero”.

Bertako herikideentzat hain naturala izate hori, Jardine-
rentzat ez zen noski ulerterreza izango, baina hemen,
foruek berez zekarten babesaren arabera bertako jatorrizko
guziak ziren aitonenseme (hidalgo) eta honegatik jokutzen
zen beste zenbait herritan baino era demokratikoagoan.

Handik Bilbora abiatu zen, non ezagutu zuen Anziola ola-
gizona, kaiñoiak mailuz irabiatuz fabrikatzen zituena. Bere
aberkide Bowles zaharra ere agurtu zuen eta honek aitortu
zioenez, uste baino zoriontsuago aurkitzen zela hemen. Admi-
nistrarritza orotarikoa omen, libertatean bizi diren herririk
gehienak bezala, non klase guziak beren eragimena duten.

Hori zen harek ere Foruak indarrean zeuden garaian aur-
kitzen zuen egoera. Probintzia hauetako bideak obra onak
omen ziren, gainerako probintzien lotsagarriak. Eta neurri
handi batean bertako politikari zor zitziola.

Baina Bowles jaunak beste honako hau ere agertu zion,
zoritarrez, Eliza geroago eta gehiago sartzen ari omen zen
bertako administrarritzan eta hori ez zuela ongi ikusten, den-
boraren buruan kaltegarri baizik.

Jardine-ren ustez, Inglaterrarekinko merkataritza gutxi-
tuz zihoan Espainiako gobernuaren axolakabez. Bilbon mer-
katari lonja bakar bat baizik ez omen zen gelditzen, Espainia
guziko bakarra. Lehenagoko denboretan, hemen bertan
gehiago omen ziren eta beste zenbait hiriburutan ziren lon-
jak bezala itxi omen zituzten. Merkatarari harremana alde bien
ekonomiaren ongari ikusten zuen eta besterik ezean gober-
namenduaren aurka izango bazen ere hiritarrek eusten aha-
legindu beharrezko auzia zeritzon.

Aurrerago, 138garren orrialdean irakur daitekenez, Gaz-
telako bide txarrak ibiliaz, Euskal Herriko kaltzada bikainak
oroitarazten zituen.

36.

**BANDOLEROTZATIK DANTZA-
BILTZAILERA, PRESONDEGIAN
KONTZEEZIZ MAITEMINDURIK**

*Maite bat maitatzen dut maitagarria,
begi ederra du ta guztiz argia,
daukat urruti,
bainã ezin kendu det buruti,
aren itxura.
Saldu al baliteke pisura
urriaren truke,
nork erosi faltako ez luke.*

Jose Manterola donostiarrak *Cancionero Vasco* (1877) bildumaren lehen liburukian argitaratu zuenean ezer guti zekien egile zen Iztuetaren bizitzaz. Gaur oraindik ere ez dakigu gauza askorik. Baina maitasunez gainezka idatzitako bertso horietan ezkutuko misteriorik nabari da.

Misterio hortan argitasuna ematera lagunduko zigun gutun bat bada, duela urte guti berargitaratua. Luis de Usoz y Río nafar protestantearen *Antologia*, Eugenio Cobo-k prestatuak 1986an Madrilan argitaratua, Pléroma argitaletxeak “Clásicos del Protestantismo” sailean. Bertan dator, 169. orrialdean, Mitxelena *Historia de la Literatura Vasca* (1960) liburuan aipatzen zigun gutuna, Iztuetaren gaztaroko bandolero bizitza salatzen duena. Bi urte lehenago (1958) A. Irigaray midikuak Euskalerrriaren Adiskideak Elkarteko buletinean emana zuen Luis de Osozen gutun hori.

Gutuna, 1842an J. Graberg Hemso jaunari Alemaniara idatzia zen, Iztuetaren *Gipuzkoako dantzak* (1842) liburua igorritz. Non agertzen zuen egile zen Juan Inazio Iztuetaren bidelapurtzazko ogibidea, esanaz: “Iztueta, que fue en principio ladrón de caminos o bandolero: robaba en compañía de un hermano suyo...”, eta harriturik zegoen holako gaizkile bati liburua argitaratzen uzteaz, beraiek Biblia Sainduaren zabalkunderako eragozpena baizik aurkitzen ez zuten garaian. Baina Usozek apenaz zekien ezer Iztuetarenaren kritika gisa Frai Bartolomek bizkaitarrak barreiatu zituen gatz-ospinduez.

Anaia atxilotu zutenean, meatxuz eta zenbait mesederen truke, Juan Inazio preso hartzen lagundu omen zuen. Nork pentsa holakorik? Harrigarria baderitzagu ere, gertakari horren ondorioz sortu zen “Kontzeziri” eskainia den kanta hori; sentipenez beterik baina hala-holako hizkeraz. Bere doinu politik lagundu dio euskaldunon ahoetan gure denboretara arte iraunaraztea eta hori ere bada zerbait. Dantzen liburuak ordea, gaiaren aldetiko balioak ditu eta uka ezinezkoa zaigu horri esker salbatu direla ohizko folkloreaken zati asko, eraskinez eman zigun doinuenak musika jator asko salbatu zituen bezala.

Dantzen hirugarren zatiaren erdialdera “Ondarribia andia” eta “Ondarribia txikia” zeritzaien berri ematen du,

zebat dantzari, konpaz taxurak eta puntuak zehatz-mehatz adiaraziz. Gaur egun inork ba ote dakizki dantza horiek ? Beste dantza batzuk iraun dute, baina Hondarribikoez apez-naz dakigu Iztueta biltzailearen bizitzaz adina.

Ezer guti horren barnean, hara hor, Azpeitin sei urtez preso zergatik eduki zuten: bideetako lapurketa horiegatik, presondegian ezagutu zuen Kontzezi kuttuna, apezaren neskamea zelarik haurdun gelditu ondorean, haur jaio berria hil zuelako, han bertan preso zegoena. Horrela izan zuten elkar ezagutzeko aukera. Iztuetaren bihotza, bandole-roa izanagatik ere, sentibera izaki eta hunkiturik aurkitu zen. Baina: "hogeita lau leguaz nago aparte, bitartean badauzkat miloi bat ate..." zioen sentiberatasunak eraginik, tristuraz egingo zituen maitasunezko bertso haiek, tartean esanaz: "Egunaz argi gutxi, gauean ilun, kontsuelorik ez da neretzat inñun".

Poesiagintzarako ikasia ez bazen ere, irudimena bizkortu zitzaion, bere maitemintasuna erromantiko giroan murgildurik.

Bere bizitzaz, bertso horiek ematen digute argibidezko zirrikiturik eta azkenengoak ordea gaizkilegoaren damuarena:

*Esperantzetan bizi, maite gozoa;
noizbait kunplituko da gure plazoa;
eta orduan...
gauza txarrik ez hartu buruan,
lengoai utzi;
ez degu pasatzen pena gutxi
preso sei urtez
onduko gaituzte nere ustez.*

37.

W. von HUMBOLDT JAIZKIBEL GAILURREAN

Euskal Herritik igaro diren bidailari arrotzen artean aipamen berezia merezi du Wilhelm von Humboldt prusiarrak. Postdam hirian jaio zen 1767. urtean, argien aldi hura gailendurik aurkitzen zen garaian. Jakintzaz ongi horniturik, filologiaz, literaturaren kritikaz eta politikaz kezkaturik bizitu zen. Ahalmen handiko gizona izaki eta burutu zituen lan guzietan doain sendoa erakutsi zuen; horregatik, Berlin-en Unibertsitatea sortu zuen gizonari ez da gauza erraza bere jakintza zabalean mugak jartzea.

Gure Euskal Herri hau zehar bi bidaia egin zituen, lehena 1799. urtean eta bigarrena 1801ean. Euskal hizkuntza zaharrean antzinako epika-poema garrantzitsuren bat aurkitzeko ilusioz etorri zen nonbait, baina gizon hark bere burua liluratzera ino aurkitu zuena gure hizkuntzaren berezitasuna izan zen.

Horrek eraman zuen azterketara. Axular eta Leizarragaren testuak ezagutzeaz gainera, harreman zuzenak izan zituen Astarloa eta Mogelekina.

Historiaz ordea Oihenart eta Moret-en lanez gainera Landazuriren geografia zitzaion atsegin. Azken hau Prestamero gasteiztar apaiz jakitunari esker, norekin izan zituen harremanak. Hargatik, bidaietzat idatzi zuena hizkuntz eta historiaz ondo hornituriko eskuizkribuetan bikain lekukoturik jasotzen zuen.

J. Ch. Adelung-en *Mithridates* delako hizkuntz katalogo ospetsuari zuzenketak eta gehigarriak egin zituzten euskarari buruzkoan. Ordutikakoa dugu mundu zabalean gure hizkuntzaganako ospea. Gainera, hemen hasi zen lan horri ekialdekoen ikerketaz jarraitu zuen eta, zientzia gisa, A. Farinelli-ren ustez, lehen aldiz indarrean jarri zuen hizkuntzen arteko konparaketa eta hizkuntzek bere baitarik darabaten nortasun berezia herrien psikologia eta izakera ezagutzeko ahalmena.

Lanok, bere anai Alejandro, Kosmos lanaren egile zenak bildu zituen jakitunei ezagutarazteko.

Eskuizkribu horietan bazen bat *Reiseskizzen aus Biscaya* deritzana, euskaldunei buruzkoa, aipatu ditudan bidaien inguruan bildu zituen berriekin osatua. Horren itzulpenak M. Unamuno, T. Aranzadi eta J. Garate jaunei zor dizkiogu. Berezi Justo Garate nire adiskide nuenaren itzulpen eta azterketarik sakonenak; 1933. urtean, alde batetik Eusko Ikaskuntzaren aldizkarian *Mithridates* haren euskarari buruzko parte osoaren itzulpena oharrez eta Humboldt-ek Euskal Herriari buruz egin zituen lanen ikerketa zehatz hura Bizkaiko Diputazioak argitaratu zionetik gaur arte eten gabe jarraitu bai du gehigarriak erantsiz. Horren lekuko ditugu Espainia eta Amerikari buruzko saio lanak, lehenik Unamunok egin zuen itzulpen eta azterketaren gainean zuzenketaz eta oharrez Espasa-Calpek "Austral" sailean 1951. urtean

argitaratua eta ondorean zenbait gutun azaltzeaz. Benetan lan nekegaitza Justo Garatek Humboldt-i eskaini ziona.

Baina goazen gure inguru honen oroitzapenetan idatzi zuenera. Bidaian hemendik igarotzean Jaizkibel mendiari jo zion begia. Donibane Lohizunen egun batzutan atsedenal-dia eginda etorri zen Urruña eta Hendaiatik Bidasoaz honuntza.

Hendaiatik aurrez-aurre Hondarribia agertzen zaio Txingudi aldeko uretan ispilu antzera isladatuz bere eliza handia eta gatzelua, bere ingurua, muinoan, etxe multzoz eraikia. Iluna eta tristea iruditu zitzaion. Gibeletik mendi altuak ageriz, Higer muturretik Jaizkibel gailurrera arte, zuhaitzik gabe gorri, inarrez. Nire ustez, orduan ere inarra baino ziurrago otatzaz betea. Giro horretan nabaritzen du kanpai hotsa mezatarara deiaz.

Honako argitasun hauek eman zituen: Hendaia eta Hondarribiko biztanleek elkarren artean eguneroko harremanetan bizi dira. Herri berdinekotzat sentitzen direlako, hizkuntza berdina mintzatuz, euskalki diferentzia tipien gainetik; bi aldeak beste erresuma batzutako muga biztanleek baino elkartuago bizi dira. Zakarkeria zeritzon herriak horrela zatitzeari, berez elkarren kide naturalak direnei muga gorrotagarria jartzeagatik. Bertakoek ez bai dute erraz ulertzen kasualitatez bi Estadutan zatituak direla beraien gogo, harreman eta sentipenak kontutan hartu gabe, beren joera eta interesen kontra jarri zitzaizen muga.

Ondotik, izenaren etimologia ematen digu, bere iritzia-
ren arabera. Hondarribiari itsasorantz duen latsaho hondar-
tsutik zetorkiola bere izena. Baina *bondar-ibaia* etimolo-
gian oinarritzen zen, *bondar-ibia* beharrez. Hala ere, garai
hartarako ez zebilen hain oker. Bizkaiko Ondarroaren esan-
nahi berekotzat hartu zuen, gerorantz espainol eta frantsez
erak gaizki bihurtu eta nahasi zutenarren.

Bidasoa pasatu zuen. Hendaiatik hain ilun eta tristea iru-
ditu zitzaion hiri barnera sartzeke, Amuterren eskubialdetik,
ibai ertzetik gora, lurren barnekaldetik Arkollara dijoan bide
batetik abiatuz. Bidearen ezkerraldera, azpikaldetik, haltz
eta lizardiak eta zenbait baratx utziz, Allerru barrenetik
zeharka zijoan kaltzadaz goraka. Handik ikusten zuen hiria-
ren hesi-zerka hautsia, 1794.ean frantsezak egin zuten hon-
damendia oraindik nabari zela. Amezti batetik Jaizkibel gai-
lurpera hurbiltzeaz, zaldiak utzi eta oinez, baserritar gazte-
txo bat gidari hartuz, gailurreraino igo ziren.

Bockelmann zuen lagun eta baserritar gaztetxoak euska-
ra besterik ez zekienez Humboldt bera ahalegintzen zen
zekien apurrarekin, baina alperrik, gaztetxoa maiz "eztakit"
ihardetsi beharrean aurkitzen zenez.

Igoera neketsuak ondo merezi zuen. Goitik itsasaldeko
ikuspegi ederrari so, berekiko gogoetak azaldu zituen, ber-
tan, begiek inolako trabarik gabe lasai, eguerdi beroan, itsa-
so bare eta baztergabea uhartze urruti lausoan bista galtzen
delarik, eta mendiaren eremu soilean itsasoaren iduriz lurra,
zerua zein itsasoa era berean bakardadea sakonagotzen
dutelarik, Bere ustez, nolako zirrara eragingo zien erromar
haiei ikuspegi honek, beraien Mediterraneotik itsas-golko
bakarti honetara etorritz, oihanak zear giro latzaren nekeak
gaindituz, gizon basatien ahotsak entzumen toki-izen guti
batzurekin batean; *Vasconia*-ren parte menditsua eta oihan-
tsuak eman bai zion, berak zioenez, *Olarso* edo *Oearso*
izentzat. Zeren, Pliniok aipatzen zuen *Oeaso* Jaizkibel hau
izango zen ustea agertzen du. Gailurretik itsasalderako biz-
karrak ikusiala adierazi zituen, geroago Victor Hugok egin-
go zuen baino hobeto, noski, batez ere zentzu gehiagore-
kin. Ez dira asko uhartze horri so holako adierazpenak egin
dituztenak.

Berriz bideratuz, Lezo aldera abiatu ziren, gero handik
Errenderiatik Donostiaruntza jarraitzeko.

38.

JOANES ETXEBERRI SARAkoa

Joanes Etxeberri Sarakoa Hondarribian mediku izan zen 1722tik 1725era arte. Horren arabera on zaigula uste dut aldizkari honetan zenbait berri eskaintzea.

1668. urtean Lapurdiko Saran jaioa zen. Berak zioenez, ohoregarri zitzaien Axularrek erabilitako pontean bataiatua izateari. Medikuntza ikaskuntzak Frantzian eginak zituen eta ofizio hortaz bere lehen lana sorterrian bete zuen, non ezkondu zen Maria Issasgaraterekin. Baina 1716an Nafarroako Berara aldatu zen, herriko mediku. Han, soldata kobratu ahal izateko eragozpenak izaten zituen, batez ere atzerapenak zirela eta. Eta Hondarribiko Udala interesatu zen hiri hontako mediku zerbitzuak betetzeko. 1722. urteko agirietan agertzen denez, Pedro Etxebeste, soldata jartzearen kontrako azaldu zen Gaztelako "protomedicato" zelakoak atzeritarrik onartzen ez zuelako. Hala ere, batzorde bat eratu zen epainagusi gisa eta Felipe Alkaiagaren babesari esker lortu zen onarpena eta hemen iraun zuen hiru urtez.

Gero, Azkoitian aukera hobea eskaini zitzaionez, hara aldatu zen 1726ko Urte berri egunez. Eta Azkoitian hil zen 1749. urtean.

Agiri denez, Hondarribiko hiri honetan bikain bete omen zuen bere medikuntzazko egitekoa. Aldiz, Azkoitian kexaz ziren azken urteetan, zahartzarora baserrietara mugitzea kostatzen zitzaiolako.

Baina bazuen beste jakintzarik ere: euskararekin kezkatua zen, gure hizkuntzaren etorkizunez arduratzen zen eta ardura hori Lapurdiko agintariei adierazi zien *Lau-Urdiri Gomendiozko Karta edo Gutuna* (Baiona, 1718) zeritzan liburua argitaratuz.

Gainera, euskara ez ezik, latina, frantsesa eta gaztelera ongi zekizkin. Bere euskararen maisutzat zituen Axular, Haranburu eta Harizmendi euskal idazleak.

Euskal idazleez hainbeste arduratu zen Julio Urkixo bere bizitza eta lanak ikurtzeaz jabetu zen. Nonbait, bazekien inoiz argitaragabeko idazkiak zituela, bibliografiaz arduratzen zirenen aipamenetatik eta Zarauzko Franziskotarren artxibategian hainbat eskuizkribu aurkitu zituen. Bestalde, mediku izan zen hirietako artxibategiak arakatu zituen. Hemendik Serapio Muxikaren laguntza ona izan zuen.

Hortik sortu zitzaion J. Urkixori *Obras vascongadas del Doctor labortano Joannes D'Etcheberri* (1907) Parisen argitaratu zuen liburu mardula, bere sarrera eta oharrez, lortu ahal izan zituen eskuizkribuak inprimatuz. Liburuaren sarre-rako hortan XXIII-XXVI. orrialdeetan dator Hondarribiko egotaldiari dagokiona eta XXVIII-XXXVIII.etan Hondarribiko Udal Artxiboan J. Etxeberriri buruzko agiriak bereziki aipatzen dira. Non ikus daiteken 1720ko apirilean arduartu zirela Etxeberri ekartzeaz eta 1722ko irailaren 2an hitzarmenak sinatu. Gero Etxeberriren medikuntzazko zenbait oroit-idazki eta abar.

Hiru liburu gotor dira Urkixuren sarrerako horren ondotik datozenak: *Laburdiri eskuararen hatsapenak* (1712), *Eskual-Herriari eta eskualdun guztiei eskuarazko hatsapenak latin ikasteko* (1712) eta *Lau-urdiri Gomendiozko Karta edo Gutuna* (1718). Baina, Larramendik bere *Diccionario Trilingüe* haren hitzaurrean aipatzen zuen bere esku izan zuela lau hizkuntzetan burutu zuen hiztegia bat, oraindik inon aurkitu ez dena. Hiztegegintza hori Etxeberri berak ere aipatzen du *Lau-urdiri Gomendiozko...* hortan, ondotik ikusiko dugunez.

Bere euskaltzaletasunaren agiritzat, hara hemen Laburdiriko agintariei gomendioz esaten zizkienetariko hitz batzuk:

“Eskualdunak gauza guztietan bere burua ezagutzera eman-arazten duela; nahiz doan (dijoan) Franziara, edo Espainiara, edo Indietako zein nahi den partetara, eta preza-tua, non Mundu guztiak bertze leinu, eta gendaki guztien gainetik nahiago baitu eskualduna bere aldean.

“Hauk guztiak hunela ikusirik: ezin nagoke erran gabe, zein axola guti eta arta apurra izatu duten eskualdunek bere eskuaraz, eta deusez-ere baldin egin ahal badakie erantzukirik, da gauza hunetaz.

“Halakotz, bada eskualdunen pena eta neke hau ikusirik hasi nintzen eskuaraz, latinez, frantsesez eta espainolez hitz-tegi baten moldatzen; bidehartaz eskualdun guztiek eta bereziki ene hertar lapurtarrek zenbait fagore eta laguntza izan lezatenagatik; bere herritik kanporat ilki gabe, zenbait hizkuntzaren parte bederen ikasteko...”

Eta, era honetara bukatzen du bere gomendioa:

“Eta baldin ene obra bere baitan ez bada ona, sinets zazue bederen, ona dela Theologoaren erregelaren eredura: *Quidquid agant homines, intentio judicat omnes*. Zernahi dagiten gizonak, intenzinoak neurtzentu hekien obrak, eta hala jaunak sinets zazue betiere naizela borondate eta bihotz on batekin. Zuen zerbitzari tipiena eta obligatuena”.

Aipatu dudan Julio Urkixoren liburu hori salgai ez dagoenez, Etxeberriren bizitza eta laneri buruz zerbait zehatzago jakin nahi duenak, ikus L. Villasanteren *Historia de la Literatura Vasca* (1961) 101-107. orrialdeetan. Edo liburu beronen bigarren argitalpenean (1979) 103-109. orrialdeak. Gainera, bertan dioenez, egilearen ustetan, Kardaberazek *Euskeraren berri onak* (1898) liburuaren 17-18. orrialdeetan euskara-latin ikasketaz egiten duen aipamen gomendagarria izan daitake Etxeberri Sarakoagandik jasotako irizpideetarikoa, esaten duelarik: "Ikusten deguna da: gazteak Latin gramatika ikasten dutenean, naiz Gaztelaniaz, naiz Franzesez, naiz Euskaraz hitz egiten dute, eta hori eragozten ez diete. Gramatikako Maisu famatu bat gure egunean zan. Latin gauzak ere Euskaraz erakusten zituena: eta Franzes Euskaldunai Gramatikako erregelak Euskaraz adierazi, eta erakusten diezkate. Hala ez Eskolan, eta ez Gramatikan Euskara behin ere utzi behar ezta".

Egungo euskaltzaleontzat ere ezagutzea merezi duten lanak, ezpairik gabe.

39.

BIDASOA, MARTIN HIRIBARRENEN POEMAN

Martin Hiribarren azkaindarrak 1853an argitaratu zuen *Eskaldunac* zeritzan poema eta lan horren 94-95. orrialdeetan dator Bidasoa. Merezi du lerro hauetan berrargitaratzea, zeren harentzat ere, guretariko askorentzat bezala, bertakoen gogozkontra sortu baizen Bidasoa muga, J. Mariana eta E. Garibai historiagileek hala uste ez bazuten ere. Horregatik, harentzat, hemengo kontrabanda anaiarteko merkatari-tza baizik ez zen.

Oraingo grafiatik hain urrun ez bazebilen ere, gaurkotuaz jartzen dut; baina gainerakoan ber-berak idatzi zuen bezala. Hara hemen:

BIDASOA

Bidasoa Beratik doha itsasorat,
Frantzia eskuin utziz iguzki alderat.
Sinetsi behar bada aita Mariana,

Ur hori izan behar bi erresumena.
Badakit Garibaik zer duen erazi;
Adimendua behar ametsentzat nausi:
Ez duke Espainolak Bidasoa bere,
Eta ez luke hori nahi behar ere:
Ageri du erdian irla aipatua,
Aski errege handiz mugarri hartua.
Itsasotik arraina heldu da murruka,
Guziei da biltzea zein geiagoka.
Sarentzat direnean tokiak xuhurrik,
Hedatu behar dire elkar aditurik.
Aski pirpira bada muga inguruan,
Beldurrez behaztapa gardak ilunbetan,
Eman gabe auzoak elkarri harrika:
Bertzelako behar da Eskaldun fereka.
Egin bezate orok lainoki arrantza,
Guti balio luke eginik azantza:
Paris eta Madrilek egorriren jaunak,
Klikatzeko astiroz gizendu arrainak.

* * *

Dohatsuago dire, Biriatu zolan,
Egin dezaketenak ixilik bere lan.
Izokin ala xarbo, zer nahi badute,
Azukre ala kafe han sortzen zaiote;
Kontrabanda ederrik badoha gainetik;
Ez dire urrats oro izokinen gatik.

M. Hiribarren 1810ean sortua zen, hogetahiru urte zituelarik ordenatu zen apez eta Bardozen bikario izana, 1865ean Baionako katedralean ohorezko kalonje izendatu zuten. *Eskaldunac* ez zuen bere idazlan bakarra, urte berean argitaratu bai duen *Montebideoko berriak* zeritzan liburuxka eta 1858an *Eskaraz egia* deituko zuen apologia. Nahiko gazte hil zen, 1866. urtean.

40.

VICTOR HUGO JAIZKIBELEN EUSKARAZ

Victor Hugo idazle erromantikoaren euskararekiko aha-
leginak Jaizkibelen, nire ustez, aipagarriak dira. Batzutan
borondatea ez da guti eta hori erakutsi zuen Victor Hugo
idazle aipatuak Pasaian igaro zituen egunetan, gure hizkun-
tzaz ikasi zuen apurra, Jaizkibelen artzainekin erabiltzean.

Bere garaian ospe handia lortu zuen idazle erromantiko
honek oroitzapen atsegin eta iraunkorrak eraman zituen
Euskal Herritik. 1843. urteko uzailean agertu zen hemen,
karlisten gerrateak utzi zigun hondamenaren ondorioak
ageri agerian zeudenean.

Frantziako Besanzónen 1802an jaioa zen Victor Hugo,
literaturan *Odak* (1822) zeritzan poemekin klasiko bihurtu-
ko zena. Gero, beste zenbait eleberriren artean, *Les Misé-
rables* (1862) zeritzanakin gorengo mailak artuko zituena.

Pasaia nola ikusi zuen ondo asko adierazi zigun Fausto
Arozena zenak *El País Vasco visto desde fuera* (1949) liburu
bikain haren 94-95. orrialdeetan.

1843ko bidaia haietatik sortu zitzaion Hugori *Pirineoak* deituko zuen liburua. Urte hartako uztailaren 23an Bordele-tik Baionara iritsi zen eta handik bi egunera Miarritze bisita-tu eta 28rako Donostiaruntza abiatu. Bidart eta Donibane Lohizun artean ezagutu zuen Euskal Herriko gurdia, zeinen ardatzaren doinu xistukari liluragarria aditzeaz harriturik gelditu zen. Baina hizkuntzarekikoa ez zen gutiagorako.

Inguruak ezagutu ondorean, Pasaia atsegingarria iruditu zitzaion nonbait eta bertako ostatu batean kokatu zen.

Abuztuaren 4an Jaizkibel aldera oinez abiatu zen. Gainak hartzean, ordu biterdiak aldera, itsas bazterrari so inguruko ikuspegiak adieraziz zioen, uhinak plantainetan nola apartsu hausten ziren, itsasoa ilun eta haize azkarrez aurkitzen zela-rik. Artzai batek euskaraz esan omen zion, “eguraldi gaiztoa”. Ortzea bel eta uhinen azalean ostarreak nabari. Urrutian arrantzale belaontzi bat larri Hondarribiko Bidasoa badiara sartu nahirik. Seirak aldera gailurrera heltzean, uhartze edo osertz zabalak begiratu, mendiak nabari Orreagaraino, ezke-rraldetik Bilboraino itsasoa eta eskubitik Baionaraino.

Zazpiretan gaztelu baten murrutan (hesietan) aurkitzen zela zioen. Ez dakigu Arando ala San Hendrikekoaz ari zen. Inguruan kamamilaz beteriko zelai bat omen zen. Hemen ere, artzai bat agertu omen zitzaion eta berak euskaraz agur-tu: “Jainkoa berorrerekin”. Eta, nonbait, harriturik edo urrundu omen zitzaion. Gero, lagunekin agertu eta haietako bat beragana hurbildu; elkarri zorrotz begira adi egon ondo-rean guziak oihuka aldendu omen ziren: “Ahuatlacouata ! ahuatlacouata !” (*Au balakoa da* esan nahi ote zuten ? Edo Justo Garatek zioen *Au alakua da ta*).

Biharamunean berriz ere mendira irten zen. Pasaia-ira itzultzean, arropa garbiketari ari ziren bi neskarengana hur-biltzean, hoietako batek frantsez txar batean esan omen zion: “Jauna, menditik al zatoz ?”. Eta Hugok euskaraz eran-tzun: “Bai, bixo nekeza” (ziurrenik, *Bai, bidetxo keneza*

esan nahiko zion), eta bi neskok barreari eman ziotela zioen.

Neska bata ileoria eta bestea ilebelzduna, baina biak omen ziren politikak. Gainera, gona gorritz eta kortse urdinez, euskaldunek hain maite dituzten koloreak, esango digu. Elkarrizketaren ondorioz jakin zuen ez zirela burgesak, Pasaiaiko batelerak baizik.

Abuztuaren 6an, mendiak zehar iritsi zen Lezora eta andra zahartxo bati eliza ikusteko, "giltza" galdetu zion euskaraz. Jakingarriak dira elizaz eman zituen aburuak.

Abuztuaren 11.ean Tolosatik zehar heldu zen Iruñera, geroago Pirineoetan barneratzeko.

Ondorean mendiko artzai txabola batean azaltzen du bere burua, non zen zehaztasunik asan gabe. Hala ere, badi-rudi Aezkoan edo izango zela. Non aipatzen zituen euskarazko zenbait hitzen ezaguerak, erderazkoekin parekatuz: *Zuec, Guc, Nun, Emen, Cembat, Lau, Adiskidea*.

Baina, Jaizkibelen erabili zituen esaldi haiek, hogeta hiru urte geroago *Itsasoko langileak* (1866) zeritzan eleberrian berriz erabiliko zituen itsas-gizon pertsonai euskaldunen ahoetan.

Ez dago esan beharrik, bere egonaldi haren denbora laburrean, hemen bertan sortu eta bizi diren askok baino arreta gehiago jarri zuela gure hizkuntza jatorrari buruzkoan. Gero, J. Vinson, H. Gavel eta G. Lacombe euskalariak, bakoitzak bere aldetik, zenbait lan argitaratu zituzten Victor Hugo idazleak bildu eta erabili zituen euskarazko hitz eta esaldiei buruz. Guillaumie-Reicher andereak ere lan ederra agertu zigun, argitaratuak eskuizkribuekin konparaketak eginaz. Lan guzi hoiei zenbait ohar eta zuzenketa egin zizkion Justo Garatek, Eneko Mitxelena izenpean, *Viajeros extranjeros en Vasconia* (Buenos Aires, 1942) liburuan. Liburu hau berrargitaratu zuen Buenos Aires-ko Editorial

Vasca "Ekin" etxe berean, 1989. urtean. Ikus gai hau 174-184 orrialdeetan.

Esan beharrik ez dut hizkuntzaz gainera beste zenbait iritzi ere agertu zituela Victor Hugok Euskal Herriari buruz, hoietako batean zioenez, koloreetan euskaldunok urdina eta gorria genituela gogozkoen, eta ondotik J. Garatek gaineratzen du Inazio Zuloaga eibartar pintoreak ere gauza bera zioela.

Zorionean betoz holako bidailariak!

41.

FRANCIS JAMMES, OLERKARI NATURAZALEA

Iragan 1988.ean bete ziren berrogetahamar urte Francis Jammes poeta naturazalea hil zela. Gutik dakite ordea Jammesek zenbat maite zuen Euskal Herria. Pirineo garaiko Tournay hirian jaio zen, baina urte batzuk Biarnoko Orthezen bizi ondorean Lapurdiko Hazparnera etorri zen eta bertan bizi hil arte.

Bere bizitza zuen Hazparneko Eihartzea deritzan etxea, gaur egun, museo gisa jarria dena. Zeren, Frantzia guzian ez ezik mundu zabalean ere ospe handia eman zioten, besteak beste, *Clara d'Ellébeuse* eleberriak eta *Les Géorgiques crétiennes* poemak eman zioten ospe hori.

Bere gaztaroan naturazale eta André Guide-ren adiskidea zen, baina Paul Claudel-ek eragin handia izan zuen beregan eta katoliko zintzo bihurtu zen.

Hala ere, bere gaztarotikako naturaleza zaletasunak ez zuen mugarik eta maite zituen abereak gizakiak adina.

Horien artean, astoari eskaini zizkion poemak oso ezagunak dira. Eta, parte batean hala zioen:

“Makila eskuan bidez-bide abiatuko naiz, bidatza zabale-
tik, nere lagun astoei esateko: *Francis Jammes naiz eta*
paradisura noa, zeren ez bai da inpernurik Jainko onaren
erresuman”.

“Eta esango diet: *Zatozte, zeruko lagun eztiok, abere*
gaixo maiteok zuon belarri begaztada zakarrez euliak kol-
pez astinduz eta erleak...”

Aita Inda Belokeko Beneditar abataren ustez, F. Jammes-
ek astoari egin zizkion poesiak Juan Ramón Jiménez-engan
bere eragina izan zuten eta hortik *Platero y yo* idaztearen
etorria.

Eta, nola ez, Bidasoa inguru hau biziki maite zuen.
Horregatik, bere poemetan aipatua da. Nonbait, gogoko
zuen Hendaiako Broca ostatuan egotaldiak egitea, eta atse-
gin zitzaion Hondarribiko arrantzale giroa, bere pasealekue-
tarik bat San Pedro kalea zehar Faro alderako bidea bai zen.
Hortarako bazuen beste arrazoirik ere. Bere bi alaba Damas
de Saint-Maur ikastetxean zituen.

Bere idazlanetarik, *Les Robinsons basque* eta *Le Mariage*
basque ditu gureganako maitasuna agertzen dutenetarik
aipagarrienak.

Bidasoa aldeko lili txanbelinak, bertako fresal usaia,...
zein maitagarriak ziren Francis Jammes bezalako Natura
zalearentzat.

Gaztaroan poeta naturalista ez ezik naturista ere izan
zenak, ikus daitekenez, bere katolokotasunean ere joera
hori kutsaturik zeraman. Lapurdin, egunsentiak berak
zekarkion argi berriarekin gaztetako txertoarekikoa eta zen-
bait poema ditu horren lekuko. Hara *Les Géorgiques chré-*
tiennes-ko adibide bat:

*Zoriontsua bura, hegaztada kementsuz,
kanta argitsu gorenetera lasai abia abal duena.*

.....

*Biziaz boga eta erraz ulertu lilien
bizkuntza eta gauza isilena.*

Baztertzen zituen Natura libertatearen ukatzaile iduritzen
zitzaizkionak eta kemenez kantatzen agertuko zuen:

*Nik ez dut jarriko ziliziorik gerrian
zeren Jainkoarentzat iraingarri da
haragia torturatzea.*

*Nire bihotzak emakumeak hautatuko
bukaera gabeko Anjelusean.*

*Nik ez ditut miresten gona arrez estaltzen direnak,
edertasuna ezkutatzea Jainkoa iraintzeko denez.*

Poema horiek, bere "gogozain" zuen Paul Claudel jaunari
apenaz egin zioten graziarik eta gutun gogorra idatzi zion,
poesia erromantiko arinez naturismoa nahasi zuelako. Gai-
nera Jainkoaren iraingarri zer zen adieraziz.

Dena dela, hor zeuden F. Jammes olerkari bikainaren
bihotzetiko emaitzak.

Orthez-go Association Francis Jammes delako elkarteak
bere ohorez ospakisunak prestatu zituenez 1988ko ekain-
aren 15etik irailaren 15era arte, eta ondotik Hazparneko
Eihartzera eramatea oso legezkoa izan zen.

HONDARRIBIA, AITA ARANA AZKOITIARRAREN EGUNARIAN

Gure artean, lehenagoko hainbeste euskal idazleren lanak etenik gabe ikertu dituen Patxi Altuna euskaltzain langile bikainak, oraingo honetan *Iker - 12*-rekin eskaini digu, "Aita Aranaren Egunaria" deritzana. Ohi duen bezala, oharrez aberats eta txukun argitaratua. Egia esan, ezin gutiagorik espero hain langila eta ikertzaile zorrotzagandik. Lehen orrialdeetan A. Aranaren bizitzari buruzkoa dakar, gero lanaren eduki orokorra adierazteko.

Aita Jose Inazio Arana, Azkoitian sortua zen 1838ko maiatzaren 26an. Arantzazun eta beste zenbait tokitan ikasketak egin ondorean, 1854 sartu zen Loiolako jesuitetan eta Oñan hil zen 1896. urtean.

Liburuán zehar badira Hondarribiaren aipamen interesgarriak, hemen zituen lagunak eta horiengana egin zituen

bidaietan oinarritzen delarik hain zuzen. Horregatik, gaur, guzientzat on deritzait bertan zer zioen *Hondarribia* aldizkari honetan ezagutaraztea.

Liburuaren 31. orrialdean, 1867an idatzia, adiskide mina zuen Aita Garagarza hondarribiarrarekiko harremanak eta ibilerak aipatzen ditu:

“Denetan adiskideena Aita Garagarza du, Hondarribiako semea, 1833an jaioa, apaiz egin da gero Laguardian 1861ean sartua; 1872an egin zituen azken botoak, ez ordea Profesio itzaltsuko lauak, baizik hiru soilak. Idazteko ongi dohatua, sermoilari eta gogojardun emaile bikaina. Honekin ateratzen da batez ere Aita Arana, baina ez urrutiko hirietara. Izan berria da Zamoran eta Palentzian abuztuaren bete-betean sermoiak egiten, eta hara ez dio lagundu, noski; hark halere Zamoratik eskutitz bat egin dio. Aldiz Elgoibarra elkarrekin joan ziren Pazkoetan; han egin omen zen “solemnemente la aparición de Jesús resucitado con máquinas “ad hoc”, baile de ángeles durante el canto de la Gloria, etc.”. Azpeitian kartzelako gatibuak bisitatzera laguntzen dio; Zarautza oso lagunak dituen Narrosko Markes-markesak, Guakiko Kondesa, Villahermosoko Dukea, Alzurutarrak, Agirretarrak, Legarratarrak ikustera ere sarritan.”

“Beste batean Lasartera joan behar Aita Galarzak gogojardunak mojei ematera eta, Orion geldialdi bat egiten dute, oso ezaguna duten erretore jaun Makatzaga, “que tiene el libro *Jesusen Biotza*” Mendibururena, bisitatzeko, eta Azkue pinta-tzailea, gero Loiolan lan batzuk egingo dituen, ere bai”.

1870.ean Zarautzen zelarik, 45. orrialdean, lehenik kexaz eta gero zenbait ohar adieraziz, honako hau agertzen du:

“Hondarribian legez kontra egin ziren kleroaren kontrako Biltzarrak, Gipuzkoako 36 edo 40 biltzarkidek salatuak. Arrue Gregoriok argitara eman duen beste liburuxka *Baser-ritarren etxeko eskola* deritzana. Zazpi lagunek batera Hendaiara egiten duten txangoa d'Abbadieren gatzelua ezagu-

tzeko eta Arantzazun egiten dituen zortzi eguneko gogojardunak. Azken biok berri xehegoa merezi dutelakoan gaude”.

A. Arana, osasunez hain sendo ez izanarren, bidaizalea zen nonbait. 1875. urrian adierazten du, 70-71. orrialdeetan irakur daitekenez:

“Ibilaldi batzuk egiteko giro ederra dago behintzat eta hala Donibaneko mendietara igotzen diren batean, Hondarribia eta Abbadie ikusi ez ezik. Aizkibelko kanoi-dunbadak ere entzuten omen dituzte”.

Handik bi urtera berriz, 89. orrialdean dakarrenaren arabera:

“Beste egun batean Hendaia, Hondarribia eta Guadalupe, eta Rameritarren etxera. Han dira Dauliako Apezpikua, Eriz, Zurbano, Zabala; bidean lagunak eta ezagunak agurtuz heldu dira.

Melitón Rameri eta bere familiarekin harremanak zituenez, 1878. urtean berriz ere han da, beraien laguntzaz Guadalupeko Andra Mariari bisita eginaz:

“Hedaiara eta Hondarribira txango bat lau lagunekin egin: “embarque de Bidasoa con la familia de Rameri a las 7,30. Subida a Nuestra Señora de Guadalupe... Vuelta por Fuenterrabía, parroquia. Comida en casa de Rameri a las 5, D. Melitón Rameri y familia”.

Baina, Hondarribiko erretore zen Ollo jaunarekin ere lagun zen. 1879. urtean berriz etorri zenekoa dugu beste honako aipamen hau:

“Aita Aranaren lagun zahar Jose Joakin Ollo, Hondarribiko erretorea, eta honen lagun Rameri jaunak, Prudencio eta Liborio, Erramu igande ingururako erdi txango erdi erromesaldi bat paratzen ari zaizkio Aranari. Hau prest dago eta beste jesuita bat eramango du berarekin, Aita Saenz. Bitarte-

an bihotzak berotzen joateko “Guadalupeko Ama Birjinari euskarazko otoitza” igortzen die. Ez pentsa, halere, Arana-ren osasuna batere hobetu dela; oraintxe ere hiru hilabeteen hiru egunetan utzi du gaitzak meza gabe eta uda bitartean beste lau. Batez beste hilean meza bat galtzen du goiti-beheiti.

“Baina gogo suharrez ekiten dio egitasmoari Erramu igande bezperan. Poyannetik 5,30etan abiatu eta Akizen barrena Baionara 12,30etan; hemendik 5,30etako trenean Hendaiara 7,15etan. Han zeuzkaten zain Rameri familiako zortzi lagun. Erramu igande goizean Hendaiako parrokiari entzun eta 10,30etan Bidasoan barrena txalupa batean Hondarribira Rameri bi anaiak, Elena Olaskoaga eta bi jesuitak. Han erretore jaun Jose Joakin Olloren etxera bazkaltzera eta kafea hartzera esanak eta beste hiru apaiz: Angel Berrotaran, Zabala eta Artola. Arratsaldean denak batera Guadalupeko Santutegira: “en el monte Aizquibel de Oleasso” bezperak eta elizkentak, Gurutzeari “Gurutzepie” deritzana eta Ama Birjinari “Mantupie”. Dena euskaraz. Bi mila pertsona hortxe-hortxe”.

“Ostegun-ostiraletan ohiko prozesio eta elizkizunetara doaz batera eta “vascófilo” eta maisu omen den Otaegui jauna ezagutzen du. Larunbatean itzuliari ekiten diote txalupan Hendaiara joanik, handik segitzen trenez Donibanera eta Ziburura Rameri jaunekin. Hauei ondoko hilabeteetan, eta gero ere bai, sarri egingo dizkie eskutitzak, eta haiek hari are sarriago. Bi herri horietan bisita piloa egiten du: Macarna familia ugaria, Olaskoaga jauna, Elenaren aita, Lardizabal Inazio, Josefina emaztea, Pinarko Kondesa, Berako apaiza, Tirso Olazabal eta abar. Trenean Hendaiara eta gaua Rame-riren etxean”.

1882. urtean, 142. orrialdean agertzen denez, A. Sebastian Mendiburu oiartzuarraren mendeurrena zela eta, beste honako aipamen hau jasotzen da:

“Oiartzun-inguruko apaizak ez daude geldirik, gogatsu eta maratz baizik mendeurreneko omenaldian esku hartze-ko (“carta de Prudencio Ramos con copia del Sr. Vicario de Fuenterrabía sobre los sacerdotes del Arciprestazgo en el Centenario Mendiburu”).

Bertsogintzarako doain bereziak zituen Aita Aranak eta 1884garren urtean, *Iker-12*-ren 177. orrialdean datorrenez:

“Inazio Aldalurri Jesusen Bihotzarekiko 6 zortziko handi igortzen dizkio behin eta Jose Joakin Ollori Hondarribira Ama Birjina Iturrikoaren zortzi eta Pedro Migel Urruzunok berari beste batean lau. Bartzelonatik (Lauria, nº 46, 2º izda.), han ikasten ari ziren garaian, eskutitz bat idatzi zioten Aranari bere antzinako ikasle Luis eta Sabino Aranak, “anai bilbotarrak” urtarrilaren 14an”.

Urte bereko berriak emanaz, Guadalupe-ko iturriaren bendizioa aipatzen dute, *Iker - 12*ko 378. orrialdean.

J. J. Ollo Hondarribiko erretorari A. Aranak igorri zizkion zortzi bertso haiek, Ama Birjina Iturrikoarenak zortziko nagusian eginak. Guadalupen ireki zuten iturri berriari buruzkoak dira. Bedeinkazioaren kronika argitaratu zuen Klaudio Otaegik *Euskal-Erria*, XI.eko (1884) 523-526 orrialdeetan, bertatik honako hau jasoaz:

“Kantatu dituzte Aita Aranaren koplak egokiak, zeñai baldizkien para musika, On Klaudio Jauregik, igaz uri onetako euskal-pestetan saritua izandu zan, emen jaiotako ume erneak, zeña baitago ikasten Madrid-en”. Hemen dugu bi egileen lekukotasuna, Hondarribian sinatua, non jaio zen Jauregi musikua (1864-1930). Partitura, bertsoekin *Euskal-Erria*n argitaratu zen. Zortziko nagusian aita Aranak idatzita-ko bertsook hala hasten dira: “Ongi etorri danok kristabak / Birjiña Amaren aurrera”. Kanta honen bigarren zatia- ren partitura R. M. Azkuek berriz eman zigun *Euskaltzale* aldizka- rian, eta ale berean aita Aranaren “Guadalupe-mendiko

Kantaera. Mantupea eta Gurutzepea izenburuko bertso sorta, 20 zortziko haundietan”.

J. A. Arana Martijak liburuaren Epilogoan zenbait ohar eskaintzen dizkigu. Bere bigarren partitura R. M. Azkue berriz argitaratua ikus *Euskalzaile* III. zenb. 292-293. orrialdeetan, eta ale berean A. Aranaren “Guadalupe-mendiko Kantaera. Mantupea eta Gurutzepea” izenburuzko bertso sorta zortziko nagusian.

43.

EUSKAL HERRIA PIERRE LOTI-ren IKUSPEGIZ

Idazle bezala hain ospetsua izatera heldu zen Pierre Loti nork ez du ezagutzen? Frantziako Rochefort-sur-Mer hirian jaioa zen 1850. urtean, baina bere bataiozko izen-deitura jatorrak Julien Viaud zituen.

Munduan zehar Frantziako marinaren ofizial bezala egin zituen ibilaldiak bere idazkietan azalduak zituen, batez ere Asia aldekoak ditu ibilaldirik bitxienak, oroitidazkietan zein eleberrietan txukun agertu zituenak erakusten dizkigutenez. Bere eleberrietako pertsonaien irudiak beti bikain aurkeztu zituen *Pêcheur d'Islande* hartan Jan arrantzalea bezala edo *Aziyadé* zein *Madame Chrysanthème* kuttunak, Rarahú eta abar.

“Javelot” zeritzan itsasontziaren arduraz etorri zen Bida-soa aldera 1891. urtean, Hendaiako Durruti sendagilearen “Bakar etxea”n bizitza kokatzeko. Lehenik ez zuen gogoko izan inguru hau, baina denboraren buruan eta D’Abbadie

anderearen laguntzaz gure Euskal Herri honen ezagutza egin zuen eta hemen igaro zituen bere bizitzako azken urteak, 1923ko ekainaren 10ean “Bakar etxea” hortan hil zen arte.

Bere ustez, Duhourcau-k zioenari jarraituz, Baskonia oso berezia zen bere inguruan anaikide dituen Frantziako Biar-no, Bigorre eta mugazemendiko partearekin. Euskal Herriak gordetzen bai zituen bere baitan indoeuropear zibilizazioa-ren oinarrizko elementuak, arbasoen etxea inguruari bat eginik bere arrazaren izpiritu jatorrez, bere aldare eta hila-biak, bere ohiturak, lanbideak, jolasak eta hizkuntza, argita-ra azaldu gabe, mendeak zehar biziaz.

***Ramuntcho* eleberraren zoria.-**

Pierre Lotik *Ramuntcho* (Paris, 1896) eleberria Euskal Herria ezagutzen lagundu zion D'Abbadie andereari esker-tuz eskaini zion. Ordurako idazle ospetsua zen, bereziki sor-kaldeko Ekialdeaz idatzi zituen eleberriegatik. Haien erara, hemen ere, paisaiaz gainera herriaren ohiturak azaltzen ditu bere argudioan, baina Ramuntxo oinarri duelarik.

Iparragirreren hitzak hartuz, 1908. urtean, idatzi zuen “Adio Euskalerrria!” artikulua hartan aitortzen zuenez, bere adiskide Otharre azkaindar pilotariarekin ikasi zituen pilota eta kontrabandutzaren gora-beherak, baita hortarako muga inguruan erabiltzen zituzten bideak ezagutu ere, maiz Tam-bul zeritzan bere zaldi gaztearen gainean.

Ramuntxo pertsonaia honen bizitzaren ingurutzat Azkai-ne eta Bidasoaren bazterrak dira, bere ekintza nagusia, egu-nez pilotari eta gauez kontrabadugintza, amaganako eztimi-na zein Graziosa andereñoarekiko maitemindura hor ditu eleberrri atsegin horrek.

Aspaldi irakurri nuen *Ramuntcho*, Barcelonako Editorial Cervantes-ek 1944an “Los príncipes de la Literatura” sail har-tan argitaratua, Manuel de Montoliu zenak itzulia. Atsegin

irakurri ere, gure herriaz ezer guti argitaratzen zen garaian. Geroago aurkitu dut hura baino lehenagoko beste itzulpen bat, Thomas Nelson and Sons, Ltd. argitaletxeak mendearen hasieran Edimburgo-n (Escocia) argitara emana, Condesa de Pardo Bazán-en hitzaurrez eta, berriz irakurtzean konturatu nintzen lehendik nuena frankistek zentsuratua izan zela. Harritzekoa benetan Pierre Loti frantsez idazle ospetsuaren testua ere errespetatu eza.

Bilbon, La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxeak 1973an argitaratua, zorionez, Edimburgo-n argitaratuaz baliatu zen, Pardo Bazán-en hitzaurreari Luis Castresanarena gehituz. Frantsesez edo gazteleraz, Bidasoa inguruko edonorrentzat irakurgai egokia iruditzen zait.

Ramuntxok bere ama gipuzkoarra zuen eta soldadutza egiteko garaian Frantzian edo Espainian egitea hautatzeko eskubidea zuenez gero, galdetu zitzaionean non egin nahi zuen, amak Frantzian naturalizatzea eskatzen zion; berak ordea, berdin zitzaiola, zein batean edo zein bestean, bera izatez euskalduna zelako.

Hara horren lekukotasunezko adibide bat, 1944ko argitalpen horrek, bere V. parteari dagokionez (66. orrialdetik) non kendu zion, frantsez jatorrizko testuari honako hau:

“— *Vrai, c'est ton idée ?... Eh bien, tant mieux, car c'est la mienne aussi. Oh ! mon Dieu, Français ou Espagnol, moi, ça m'est égal. A ta volonté, tu m'entends ! J'aime autant lun que l'autre: je suis Basque comme toi, comme nous sommes tous; le reste, m'en fiche ! Mais, pour ce qui est d'être soldat quelque part, de ce côté-ci de la frontière ou de l'autre, oui, je préfère ça; d'abord on a l'air d'un lâche quand on s'esquive: et puis, c'est une chose qui me plaira, pour te dire franchement. Ça et voir du pays, c'est mon affaire tout à fait !*”.

Gezurra dirudi hori kendu beharra. Baina, izan ere, ondo pentsaturik, euskara hiltzora eraman zuten militar horientzat ez bai zen Euskal Herririk.

Beste uste batekoa zen gure herria ezagutzera eta maitatzera iritsi zen Pierre Loti idazlea, 1908. urtean Hendaian "L'agonie de l'Euskalerra" idatzi zuena. Militarra zen, baina horrez gainera liberal eta humanista. Bestalde gogoan eduki idazle hau mundu guzian zehar asko ibilia zelako ikasi zuela herri bakoitza bere era natural eta jatorrean errespetatzen.

***L'Pays Basque* deritzan liburua.-**

Beti zaigu jakingarri kanpotarrek nola ikusten dituzten gure parajeak eta herriaren ohiturak. Hara nondik etorri zitzaikun beste aukera bat.

Frantziako idazleek, Claude Farrère buru zela, 1930. urteko irailean Pierre Loti zenaren oroitzapenez "Bakar etxea"n iragarria jarri zutenean erabaki zuten nonbait zendu berria genuen idazleak Euskal Herriaren ikuspegiz argitaratu zituen artikuluak liburu batean bildurik argitaratzea. Horrela sortu zen *L'Pays Basque*, gero Vicente Clavel-ek gaztelerara itzulia eta berak egin zion hitzaurrez, 1936an Barcelonako Editorial Cervantes argitaletxeak *El País Vasco* izenpean plazaratua. Edonorrentzat izango zen liburu irakurgarria. Tamaletz, urte berean gerra sortu zen eta behar adina zabalkunde ez izateaz gainera, gerra ondorengo giroak suntsitu zuen.

Izan ere, orduan, Cervantes argitaletxearen helbidea Avenida 14 de Abril zena, *Ramuncho* 1944an argitaratu zuenean Avenida del Generalísimo Franco izatera bihurtu bai zen.

Baina, hori gora-behera, *El País Vasco* liburu harek, zorionez, ez zuen izan zentsuragandiko aldakuntzarik ez kenketarik. Horretan *Ramuncho* eleberriak baino zori hobea izan zuen.

Liburuko lehen artikulua 1892koa du, non aurkezten duen laburki gure inguruaren adierazpena. Bere ondotik, bilobak laztandu zuen amona, kontakizun hunkigarria.

“Bakar etxea”ren aurrez-aurre Bidasoaz harandik Amuteko kaputxinoen elizan Gauon gauezko meza xehetasunez adierazten du, antzinako kantak nola erabiltzen zituzten eta abar.

1892ko urriaren 25ean Loiola bisitatu zuenekoan. Trenez joan zen Zumarragara eta, han eraman zuen uste gabea, Brasildik ekarritako papagayo bat balkoiko kaiola batean euskaraz mintzatuz entzun zuenean. Ibaiak banantzen dituen Zumarraga eta Urretxuren artean ez zuen bereizkuntzarik egin, bigarren honetan Iparragirrereren monumentoa ikusteaz nabari denez, eta kantariaren ibilerak eta kanta aberkoiak aipatzen ditu, aldi berean gorosmenak agertuz. Bertan iragarria antzinako hizkuntzaz atzeritarrek inoiz menderatuko etzutena zela zioen. Egiazki, oraindik herri berezia iruditu zitzaion: ez Frantzia eta ez Espainiak hainbeste mendeetan berenganatu ezinezkoa zeritzaiola.

Ondoren Loiolako basilikaren arte adierazpena egiten du, bere ikusmoldeetik. Han fraile batek esan omen zion: Zuok frantsesak zarete, baina frantsez euskaldunak; beraz, ez zarete guztiz frantsezak, baizik gure aberkideak.

1887ko ekainaren batean Donibane Garazitik Luzaide zehar abiatu zen biharamunean Orreagara joan eta hango prozesioa ezagutzeko.

Isturitzeko harpeak ere ezagutu zituen. Baina urte horretako abuztuan, Donibane Lohizunen, pilota jokoaren ondoren gipuzkoar azpata-dantzak eta ondorean barkoxtarren pastoralak zorabiatu utzi zuten Pierre Loti.

Irungo San Martzialgo erromeriari eskaintzen dio beste artikulua bat. Beti bezala, bere begiek nabari zutena sentipenetara eramanez. Han, jendartean, hondarribiar neskatilak adi bezain alai jarri zuten gizona, beren perkal arrosazko

soineko apainekin humoretsu ikusteaz. Artikulu hau lehenago *Le Chateau de la Belle-au-Bois-Dormant* zeritzan liburuaren 87-102. orrialdeetan argitaratua zuen.

Bestalde, Aste Santuko prozesioa Irunen, non aipatzen dituen hamabi Apostoluak, erromarren tunikaz jantzitako hamabi arrantzalek osaturik.

Hondarribiko itsas-alkatearena ere badakar. Udaletxeko balkoitik non adierazten duen kale Nagusia, etxe blasonatuz eta balkoiak burdina forjatuzkoak, Erdi Arokoak iruditzen zitzaizkion. Itsas-alkatea arrantzaleen ermandadeko buru zela (abata nonbait); baina bertan adierazten duenez, esango nuke, itsas-kontsularekin ikustekorik bazuela. Hortaz idatzi nuen 1992. urtean, iraileko *Hondarribia* aldizkarian (46. zenb., 38. or.), gero *Esanak eta eginak* (1994) liburuaren 82-84 orrialdeetan berriz bildurik argitaratuko nuena. Baina, hemen ere esan beharra dut, nik dakidanez, bere "L'alcalde de la mer" artikulu hori *Figures et choses qui passaient* (Paris, 1921) liburuan datorrela. Besteak beste, bertan dioen gauza batek adi jartzen nau: komunitatearen (Kofradiakoa noski) kontuak euskaraz irakurtzen zituztela; berak hor zuzen dioenez: jatorririk ezagutzen ez dugun milaka urteetako hizkuntzan. Jai horren bukaeran kalez-kale betixua ateratzen omen zuten. Santa Maria elizari buruz egiten duen adierazpena ere jakingarria da. Aldi berean, Kaputxi-noen elizan Gauon gauean agiten den mezaren oroitzapena dakar. Parte hau da Hondarribiari buruzko berri bilketaz egin zuenik hoberenetakoa.

Izenez Tambul deritzen zion zaldiz Bidasoaren bazterrak bisitatzen zituen, inguruetako parajeak miakatuz, zuhaitz eta abereak aipatuz eta basoetako loreak usaindus.

Tristea da "La agonía de Euskaria" (lehenago "L'agonie de l'Euskalerría" izenpean *Le Chateau de la Belle-au-Bois-Dormant* zeritzan hartan argitaratua, Parisen, urterik gabe, 67-86. orr.). Hor agertzen du Euskal Herriak beragan izan

zuen eragina eta maitasunez egiten dituen goresmenetan eskatzen du, gure herri hau, aldakuntzarik gabe, den bezala jarraituz iraun nahiaren deia.

Bukatzeko, Iparragirre aipatuz eta bere kanta baten hasiera titulutzat hartuz: "Adio Euskalerrria !" deituko zuen artikulua dakar. Frantsesez, "Adieux au Pays Basque", bere *Reflets sur la sombre route* liburuan lehen aldiz argitaratua . Kapitulu hortan dioenez, berak usterik gabeko Euskal Herriko egonaldiak zazpi urtez iraun zuela eta haien ondotik beti itzultzeko gogoia. Poliki-poliki joan omen zen bertara zaletzen, gure herri eta mendiez. Horregatik eutsi omen zion hemen "Bakar etxea" edukitzeari, udaran atsedean aldi bat hartu ahal izateko. Hemen, alde batetik Atlantika itsaso zabala eta bestetik Pirineo mendiak uhartze urrutietan, eta bere leihoetatik begien aurrean beti Jaizkibel mendi gailur beltzarana, kezkak eragirik nekealdietan lasaitasuna ematen zioena.

Egonaldi horietan, Otharre azkaindar pilotariak oroitzen zen eta bai bisitatu ere, *Ramuntcho* eleberrirako hainbeste gai eman zioen gizona, zeinekin ibiltzen zituen gauezko kontrabandisten bide arriskugarriak. Askaine zen beretzat euskal giro jatorra egokien gordetzen zuen herria. Otharre-ekin han eta hemenka sagardotegietan gelditzen zen, non gogoz entzuten zituen Iparragirreraren kantak, aldi berean aspalditik jaietan ezagutza egin zuen jendea agurtuz.

Horregatik iruditzen zait edonorrentzat liburu irakurgarria.

44.

KLAUDIO OTAEGI HONDARRIBIKO MAISUA

XIX. mende erditik Hondarribiko maisutzat ezagutu zen Klaudio Otaegi zena, baina sortzez Zegamakoa zen, 1836. urteko urriaren 30ean jaioa. Haurtzarotik musikazale omen zen eta hamalau urterako parroko organista. Hamazortzi-kin Gasteizera joan zen maisu ikasketak egitera eta lau urteren buruan osatu zituen ikasketok. Beraz, 1854an, hogetabi urterekin, irakaskintzari lotua zen eta 1858.ean Hondarribian maisu plaza irabazi zuen. Hurrengo urtetik hil arteraino Bidasoaren hegal muturreko hiri honetan jarraitu zuen.

Berak zioenez, 1863an Luis Luziano Bonaparte printzearekin harremanetan jartzeaz eta honen eskaiz Kristau Doktrina zenbait gipuzkeraren motatan idazteaz sartu omen zen euskarazko lanetan. Geroztik, Zegamako hizkeran, Bibliaren zenbait parte itzuli zituen printzearen eskariz zegamar euskalkira; besteak beste, Ruthen liburua, Salomonen kantak, Jonasen profezia, San Markosen Ebanjelioa eta abar.

Gainera, Zegama eta inguruetakoko hiztegiño bat ere igorri zion 1868an, urte batzuk lehenago adiztegi bat ere bai. Euskaltzaindiak argitara berri duen *L. L. Bonaparte. Eskuizkribuak-argitarapenak* 75. orrialdean dakarrenez. Lanok, zoritxarez, argitaratu gabe daude.

Zegamako alargun gazte batekin esposatua zen Klaudio Otaegi. Emazte horren izen deiturak: Luzia Richard Grandmontagne, sortzez zuberoharra, Atharratzen jaioa. Euskalduna beraz. Lau seme-alaba izan zituzten, guziak Hondarribian jaioak. Honen berri eman zuen Nikolas Alzola Gerediagak Irungo *El Bidasoa* aldizkarian, 1957ko udarako zenbakietan, L. L. Bonaparteren mendeurrenez idatzi zituen lanetan. N. Alzola bera izan zen K. Otaegiren bibliografia bildu zuena eta *Egan* aldizkarian argitaratu, 1957. urteko 367-374 orr. eta 1960.koaren 144-255 orr. Printzeari egindako lan guzien xehetasuna ikus bertan, aipamenean bukaeran. Otaegi berak 1879. urteko ekainaren 28an idatzia.

L. L. Bonaparte printzea bigarren aldiz ezkondua zen eta bigarren emaztetzat Klementina Richard hartu zuen. K. Otaegiren koinata. Hau ere Atharratzekoa sortzez. Araia, Zegama eta Hondarribian bizitua, euskaraz ondo zekiena. Hurbiltasun hortatik uler dezakegu Bonapartek bere laguntzailetarik begikoena zuela Otaegi, Baztaneko Bruno Etxenikerekin batean. Biok izan ziren printzearen laguntzaile Nafarroako Aezkoa, Saraitzu eta Erronkariko hizkerak ikeritzean egin zituzten ibilaldietan. Harremanon lekuko, hara hemen Eguberriz idatzi zion eskuizkribuak jartzen zuena: "On Luis Luziano Bonaparte, Prinzipe txit argidotar eta jakintsuari opa dio urtearen sarrera on bat Otaegiko Klau-diok. Ondarribian" .

Baina, horrez gainera, denbora berean olerkiak eta ipuiak idatzi zituen, baita zenbait sari irabazi ere. Gainera, Jose Manterolari asko lagundu zion *Euskal Erria* aldizkariko lanetan.

Otaegik jaso zituen saririk aipagarrienak honako hauek ziren: 1881. urtean, Irungo Euskal Festetan, "Elkar gaitezen denok nafar-euskaldunok" olerkiarekin zilarrezko domina, eta lana Iruñeko *Euskara* aldizkarian argitaratu zioten; urte berean, Calderon de la Barca-ren mendeurrenez Donostiako Udalak antolatu zuen sariketan, "Euskal oroitza" zeritzan olerkiarekin lehen saria 1882.ean; Bilbon lehen Lore-Jokoak ospatu ziren eta lehen saritzat jarria zegoen urrezko dominez jabetu zen "Arbolari oroipena"rekin; 1883.ean, Iruñako Lore-Jokoetan saritua izan zen "Zoriontasuna" zeritzan olerkiarekin; azkenik, 1889.ean, Donostiako Euskal Jaietan saritu zuten "Amerikatik. Oroitzak eta zizpiriak" izenburudun olerkiagatik.

Lan horiek eta beste asko Donostiako *Euskal Erria* eta Iruñako *Euskara*-n ikusi zuten argia. Beretarik batzuk Hondarribiari begira egin zituen eta oroigarri zaizkigu honako hauek: "Martin Artzukoren azaña bat" (1882), "Ondarribiko txerkoari" (1883), "Ondarribiko Euskal Festak" (1883), "Guadalupeko iturriaren bendizioa" (1884), "Triste dago Jaizkibel" (1886an Jose Joakin Ollo-ren hilberriaz), "Tobera koplak" (1886), "Guadalupeko Ama Birjinari" (1887), "Aurra eta txanela" (1888) eta "Arrantzalearen bizidodua" (1889).

Eguberri garaian ez legoke gaizki bere "Gabon kantak"-ren oroitzapena, den bezala jasorik *Euskal Erria* aldizkariaren XIII. tomoko (1885) 542. orrialdean datorren arabera.

K. Otaegi, berrogeta hamalau urterekin hik zen Hondarribian bertan 1890. urteko urtarrilaren 10ean.

Bere literaturaren balioa, bere mendeko semea zenez, erromantikoa genuen. Gora-behera handiak nabari zitzaizkion, Arturo Campi3n-ek bere heriotzaz idatzi zuen lan haretan aitortzen zuenez (ikus A. Campi3n, *Euskal Erria*, XXII, 1890, 82-88 orr.). Hondarribiarrentzat ezetsua izango den uste osoa dut.

Bere erromantikotasun sentibera susmatzen da 1884an idatzi zuen “Adiskide baten oroitza” olerki hartan. Hara hemen adibidetzat hitzez-hitz jasoa:

*Dena beltz ikusten det begien aurrean;
ez det arkitzen pozik nere barrenean;
triste daukat biotza, onik ez etxean;
indarrak ere naute uzten azkenean !*

*Otzikara gisa zait gorputza mugitzen !
Bakarrik ezin egon, zer naik izututzen;
gau ta egun nago, ai ¡negarrez urtutzen!
Zer zaidala dezute uste gertatzen ?*

*Adiskide bat il zait ¡Zer adiskidea!
Ezpaitu inork gaur, ez, arkituko obea!...
Zergatik joan zatzazkit, o lagun maitea !
utzirik pena eta naigabez betea ?*

*Zer da nitzaz izango zu gabe munduan,
itzal uts bat ezpada baso eremuan ?
Ona izan ziñan-ta, zintzoen lekuan
atseden zazu lasai ¡Atsedean Zeruan!*

Berriz ere Klaudio Otaegi

1990. urteko azaroaren 24an, Hondarribiko Udalak, Euskaltzaindia partaide zuelarik, Euskaltzaeen Biltzarra eta Klaudio Otaegiren omenaldia antolatu zituen (ikus *Hondarribia* aldizkariaren 42. zenbakian egun hartako berri emateak). Bertan, Patri Urkizuren hitzaldi bikaina entzuteko aukera izan genuen, Otaegioren bizitzaz zenbait zertzelada eskainiz eta euskal literaturari hark eman zion eraginez. Literatura balioen aldetik ikuspegi ederra benetan Urkizuk txukun azaldu ziguna.

Une honetan, gogoan hartzekoa dugu Patri Urkizuk Xabier Azurmendiren laguntzarekin burutu zuen *Klaudio Otaegi olerkaria (1836-1890)* deritzan liburua, 1991ean Etor argitaletxeak plazaratua.

Aurretik adierazi dudan horrek bultzatzen nau oraingo honetan lehendik idatzi nuenaz gainera beste zenbait gehigarriz luzatzera; bere emaitzetarik pare bat ohar eginaz, gizonaren nortasuna, trebetasuna eta kemena adierazteko.

Osagarriz, gogoan har, geroztik bi irakaslek egin zuten ikerketa, *Hondarribia* (39. zenb., 13. orr.) aldizkari berean "Otaegi maixua"ri buruz argitara emana, Arma Plazako egoitza eta ondokoen berriak eskainiz.

Francisco Grandmontane idazlea, Jose R. de Uriarterekin batean Buenos Aires-en *La Vasconia* aldizkariaren sortzaila, XIX. mendean Argentinako euskaldun jatorrikoei begira egina zenaren hura, bederatzi urtez zuzendari izan zenak Hondarribian egin zituen bere lehen ikasketak osaba Klaudio Otaegirekin. Eta hara nondik zuen gure herri honen eza-gutza. Bere lumaz eman zituen hainbeste saio euskaldun herbesteratuei buruz eta haien fruitua dugu *Los inmigrantes prósperos* deritzan bilduma liburua. Izenburua, gehienentzat on zelarik, ez ordea Anjela Kerexeta Iparragirreraren alargunarentzat, han dakarren "Interviú" kapituluaren arabera.

Baina, liburu berean, "El vascuence de Buenos Aires" delako kapituluari dator osaba Klaudioaren oroitzapen ezta. Zer gutiago lehen irakaskuntzak eman zizkionarentzat? Eskuetan dudan liburua, *Los inmigrantes prósperos* deitua, 1944. urtean Aguilar-Editor etxeak Madrilen berargitaratua da eta 427. orrialdean dakar aipamen hori. Kapitulu berean, aipamen horren inguruan, Luis Luziano Bonaparte printzearen goraipe eta lanen berri ematen du. Hor dioenez, haurtzaroan ezagutu zuen Hondarribian, osaba Klaudioarengana etortzen zenean. Poliglota bezala aurkezten du, zeren hirurogetabi hizkuntzetara itzuli bait zituen Bibliaren zenbait

zati. Eta emaitzarik ederrena euskarari eskaini. Hemen, euskalkien ikerketa ezezik, beraien hizkera mota guzietara Bibliaren zatien itzulpenak egin zituenez, bertako laguntzailleekin. Laguntzaile horietatik prestuenetako bat Klaudio Otaegi zelarik.

1857. urtean ekin zion Bonaparte printzeak euskal lanei, bost urteren buruan hizkuntz atlas gisa mapa bat osatzeko. Laguntzaileen berri eman nuen Bruko Etxenikeri buruz egin nuen lan batean (ikus Euskaltzaindiaren *Euskera*, XXIV, 1980, 561-568. orr.). Baina Bonaparte printzea Euskal Herri-
ra ekartzea Klaudio Otaegiri zor diogu.

Otaegiren emaztea eta printzearen bigarren emaztea ahizpak ziren, era berean Francisco Grandmontagne aitaren arrebak, eta jatorriz Atharratzearrak. Aldiz, Otaegik Antoine d'Abbadie, artean Hendaian bizi zena, adiskide mina zuen Euskal Jaiak antolatzeari eman zionetik. Eta d'Abbadie izan zen, Klaudio Otaegiren bidez, 1856ko apirilaren 25ean Bonaparte printzearengana jo zuena, bere hizkuntz ikerketak hemen egin zitzaizkion. Horren bidez lortu genuen euskarari buruz inoiz egin den ikerketarik sakonena, gaur egungo euskalaririk gehienak hortaz ohartu ez badira ere.

Klaudio Otaegiren lana garrantzitsua delarik ere, egina-
ren adinakoa da eraginezkoa. Alde hortatik begiraturik, uka
ezinezkoa gure gizonaren emaitza euskararen historia.

A. CAMPION ETA K. OTAEGI OLEARSO MENDIAN

Historia gaien irakurketan Arturo Campion izan nuen gogozkoenetakoa, bere ikerketa zehatzak eta zentzuzko gogoetak ez bai ziren nolana hikoak. Baina artean ez nengien Hondarribiko maisu zen Klaudio Otaegi lagun mina zuenik.

Klaudio Otaegiren zenbait literatur gai han-hemenka irakurriak nituen eta bilduma egokia iruditzen zait Patri Urkizu eta Xabier Azurmendik elkarlanean buruturik 1991.ean argitaratu zuten *Klaudio Otaegi olerkaria (1836-1890)* deritzan liburua. Liburu honen 29. orrialdean aipatzen da Klaudiok A.Campioni 1887an *Euskal Erria* aldizkarian eskaini zion *Ipuia*, era honetara bukatzen zena:

“Alkartuko bagina, egiaz, betiko
Beste gisa kukuak luke laster joko.”

Gaur egun ere euskaldunoi behin eta berriz errepikarazteko esaldia deritzat.

Baina, hori baino urte bete lehenago, 36-37. orrialdeetan dator *Euskal Erria* aldizkari berean, Campionek K. Otaegiri buruz azaldu zuena. Hara hemen bere zati labur batzuk:

“Masaila inguruetakoz bizarrak, yankee moldatuak, arpegi zabal eta biziari gizatasun nabari bat azpimarratzen zioten. Bazirudin itsasoa uztekoan bere zergauzak artu eta zahar-tzarora baño lehen, arbasoen lurretara datorren itsasgizona, azken urteak atseginez itsas ertzean dastatzeko asmoz.”

Eta gero: “Menditarra zen. Aritzen, garo eta artaldean lurrekoa. Naparroaren mugan jaioa zen”. Izan ere, Klaudio Otaegi, Zegamakoa bai zen.

“Guraso arrunten seme, gaztetatik artea eta pakea maitatu zitun”.

“Bere abots ederrez jendea txunditu ohi zun herriko jaie-tan eta musika hain gogozko zitzaioz, 14 urtekin jaiote-riko organistatza irabazi zun lehiaketa baten ondorioz”.

“Bonaparte Printzearekin ibili zaneko xelebrekeriren batzuek ere kontu ohi zizkigun noizbeinka lagunartean”.

Printzeak, hala zion bein, Iruina ondoko Atarrabian bildu omen zitun hainbat apaiz euskara gauzetan jakintsu bezala ikusiak. Milaka galdera egin zizkien honek, zero nekatuak utzi zitun elizgizon gizarajoak. Hala omen zion apaiz batek: *Zorionean etzian hau osaba (Napoleon) bezala gerla egi-ten hasi: Jaungoikoa ere eramango bai zian aurretik*”.

“Beste batez Printzeak Salazarko euskalkia aztertzen ziar-dun. Jaurierriko apaizak, neskatxei ematen zien katekesia entzutera konbiratu Bonaparte”.

Neskatxek dotrinako galderei erantzun ala, Printzeak herriko euskalkien datoak hartzen zizkien.

Apaizak inuxentzi osoz hau esan omen zion Printzeari belarrira: “Ogei urtean, bakar bat ere ez da erori seigarrenean”.

Baina, K. Otaegi berak ere L. L. Bonaparte Printzeari eskaini zion olerki bat eta arestian aipaturiko *Ipuia*-ren bukaerako ideia gogotsuarekin amaitzen du. Hara zer zioen azken bertsoan:

Auxen gertatzen zaio
Euskal-erriari:
Alkartasunarekin
Ondotxo zan bizi;
Baina, umeak ziran
Aserratu eta...
Etzaiozka geroztik
Naigabeak palta.

Bestalde, P. Urkizu eta X. Azurmendik 46-48. orrialdeetan jasotzen dute Hondarribiko “Guadalupeko Ama Birjinari” buruz idatzi zuen olerkia; baina, tamalez, ez dute aipatzen K. Otaegik A. Campioni eskainia zela, Olearso mendian biek elkarrekin egin zuten ibilaldiaren oroitzaz. Olerki hori 1880ko urriaren 28an idatzi zuen eta Nafarroako, *Euskara* aldizkarian argitaratu, 1881ko lehen alearen 88-90. orrialdeetan. Eusko Ikaskuntzak lan ona burutu du 1996an Revista *Euskara*-ren sei liburukiak faksimilean argitaratzeaz. Hor dator K. Otaegiren olerki hori, izenburuaren aurretik honako hitz hauek jarritz: “Arturo Campion jaunak eta nik Olearsoko mendira egin genduan bidajearen oroitzan”.

Hor ikusten da bi euskaltzale jakitun eta, aldi berean, pakegizon eredugarriok hain gogokidez zuten elkarrenganako urbiltasuna.

Horregatik, ondo deritzat “Guadalupeko Ama Birjinari” buruz Klaudio Otaegik eginikako olerkia *Hondarribia* aldizkarian berriz argitaratzea.

GUADALUPEKO AMA BIRJIÑARI

Aurtxo biri mendian agertutakoa.
Zera Birjiña Santa Guadalupekoa;
Geroztik uri au da zorionekoa;
Zaitugulako emen, Ama maitagoa.

Zeru ta lurak baña askoz lenagotik
Jainkoaren Amatzat zeuden autaturik;
Denbora berean ez da izandu danik
Ama eta Birjiña zu beste andrerik.

Jaizkibelgo mendian Eleiz politean
Zaude usotxo baten gisa ber berean;
Pozezko goitargia !, zure esperantzan,
Dabiltz arrantzaleak itsas zabalean.

Zure Aita ezpazan kupidatu gutaz
Sabel garbi orretan Semea sortuaz,
Beti betiko giñan negar ia lantuz
Bokau pozoitu aren kutsuak iraunaz !

Ez genduen sekula iñork ikusiko
Zure Seme maitea gure onerako
Inpernuko atea itxitzen betiko
Zeruak eskeñiaz on guzientzako !

Lenengo gizonaren pekaturen bidez,
Gautxorien belotsak asi ziran ziñez,
Okerrak zetozela aditzera emanaz
Beti betiko gaua zutelako ustez:

Baña zure argiak aren itzal beltzak
Ariñ utzi zituan oso estalduak;
Saguzar eta ontzak, zulotan sartuak,
Eguzkiak betiko dauzka izutuak.

Erretxinolak eta beste egaztiak
Lenago zeuden beti gor eta tristiak,
Gero egunsentian kantari guziak
Airean daukazkite oian ta mendiak.

Itsas genasiaren betiko orruak;
Odeietan turmoiak zituzten soñuak;
Aize ekaiztuaren gaueko txistuak
Laja ziñituen, bai Ama, mututuak.

Zanpatu zionean zure oñazpiak
Luzbeli burua ai ! aren garrasiak !
Sion Santuko ate guziak itxiak
Zugandikan izandu ziran irekiak !

Tristeen poza zera, umezurtzen Ama,
Biotz guzien penak kentzen dituzuna;
Diosala egitera nator zuregana !
Laguntza eskatzera, Andre beltzarana !

Itsas zabal oetan gidarik obena;
Zeru azpian danik izar ederrena;
Gau illun ta ekaitzetan argizuzi ona
Arren itzuli itzazu begiak gugana !

Milla trapasek setas ondatuko gaitu;
Arroketan ontzia zatituko zaigu;
Arraien pazka laster izan gindezke gu;
Zure eskutikan, Ama, uzten bagaituzu !

Begiak itxututa, besoak loturik;
Alde guzietatik perillez beterik;
Amoriozko Ama, kateak autsirik,
Salbatuko al gaituzu aiñ gertoi eskutik !

Adiskiderik ez da munduan barraita;
Gorrotoa, gezurra, kutizia eta
Alkar ikus eziña etzaizkigu palta:
Ez da negargarria, Ama, gure planta ?

Ainbeste etsai gaiztori nola arpegi eman,
Arkituko ezpalitz laguntzarik zukan,
Biotz-berako Ama, aur oen onean,
Eskatuaz Jaunari zeru ederrean ?

Erregutzen dizugu, Aingeruen Ama,
Irurkidan betiko jarrita zaudena;
Semearen Ama ta Alaba Aitarena,
Amorio gozoa USO Santurena;

Erregutzen dizugu, biotz biotzetik,
Gure bitartekoa zeren ezkeroztik,
Ez gaitzatzula utzi zure mantupetik,
Zerura eraman arte ibar onetatik.

Klaudio Otaegik jarriak

Ondarribian Urrillaren 28an 1880an.

46.

P. LHANDERen BI ELEBERRI

Pierre Lhande zenak irakurgai asko idatzi zituen, eleberririk ere bai eta beren artean bi beraien gaia Hondarribian kokatuz, *Mirentchu* frantsesez eta *Yolanda* euskaraz. Ez dira hain ezagunak eta merezi du beraien berri ematea, Hondarribiko inguruak adierazteaz gainera, bertako giroaren berriak eskaintzen dizkigutenez gero.

Aita Pierre Lhande Baioanan jaioa zen 1877. urtean, baina Zuberoako Zalgizen zituen bere sustraiak. Lehen ikasketak Baionako Collège St. Bernard-en egin zituen, bigarrenak Mauleko Collège St. François-en. Filosofia Baionako Seminarioan. Gero Jesusen Konpañian sartu zen 1900. urtean eta 1910garrenean hartu zituen ordenu sakratuak. Frantzia Tolosako (Toulouse) Unibertsitatean irakasle izan zen Letra Fakultatean.

1911tik 1921era bitartean Hondarribian bizi izan zen eta gero Hernanin Jesuiten Ikastetxean irakasle. Ondotik atzerriko beste zenbait tokitan. Euskaltzaina ez ezik erakunde

honen lehen aldian idazkari ere izan zen. Bere lanetarik ezagunena *Dictionnaire Basque-Français* dugu, 1926an Parisen argitaratua. Atharratzen hil zen 1957. urtean.

Bere bizitza eta lanen berri zehatzak jakin nahi dutenek, irakur Euskaltzaindiaren bigarren aldiko *Euskera* agerkarian, bere hilberrikoaz gainera, G. Eppherre, P. Lafitte eta J. L. Davanten lanak: II, 1957, 407.or.; V, 5-19.orr.; eta XXII, 1977, 429-441. orr.).

Mirentchu (1914) eleberria Guadalupe inguruak eta bertatiko ikuspegi ederrak adiaraziz hasten da. Bertako pertsonaia nagusia Migel Guztizederra da, zeinen deitura oinarritzen den XIII. mendean Nafarroako errege Santxori erasten zaion, Justiz baserriko alabari "gutziz ederra" deitu ziolako istorio hartatik. Pertsonaiaren ibilerak eta herriminaren sentierak ditu oinarri. Esan ohi den bezala, txori bakoitzak bere kabia maite, eta Jaizkibel aldera itzultzen da. Inguru hauetako giroa xeheki adiaraziz ari da, Guadalupeko fortean soldaduak zeuden garai hartan kokaturik.

Migel horrek Goikoetxea baserriko Mirentxuganako maitasuna agertzen du, gualderuntz oroitzuz: "Nere maiteak begiak ditu gau itzalaren kolore".

Arrantzale giroa berebiziko onduen jaso du, batez ere bigarren parteko sei eta zazpigarren kapituluetan *Petit Jour* itsasontziak jasan zituen ekaitz larrialdiak biziki adieraziz, arrantzaleak oihuka direla: "Ama Guadalupekoa, salba gaitzazu!" hainbeste aldiz erregutuz. 1912. urtean gertatu zena-ren arabera. Eta gertakari horren ondotiko auzien epaitze berri zehatzak emanaz bukatzeko.

Yolanda (1921) aldiz Zeltiberia eta erromarren berriak inguru hauetara lotuz hasten da. Hamazazpigarren mendean Urdanibiako olazarretako gertakarietan oinarrituz. Eleberri labur bezain polita, bere azala Jon Zabalo "Txiki"k egina galeoi ontzi baten irudiz.

Oletako lanak eta flamendarrekiko merkataritza adieraziz. Jordaens flamendarra Urdanibiako alaba zen Yolandarekin maitemindu zen, baina ez hemengo beste norbaiten zelo edo jelsiarik gabe. Joanes Azturiaga zen jelsiaz, nork zioen: "Ez izutu ezertaz, zu, nere kuttuna; zure zai hemen dago zuk maite duzuna!".

Hortik doa eleberri honen haria. Baina eleberrian zehar inguru hauetako folkore ageriak ditu, euskal kanta, aurrezku, toberak eta abar. Hizkuntzaren aldetik ez dut esan beharrik, gipuzkera aberatsean idatzia dela.

Nik ez dakit eleberri hau nola ez den berrargitaratu. Batez ere Hondarribian euskara ikasten ari direnentzat irakurgai bikaina dela esan nezake.

Zer esanik ere ez *Mirentchu* berak ere euskarara itzulia argitaratzea ongi letorkigula.

Bi eleberriok, hain bertako giroz burutuak daudenez, herriminaren eraginez nornahiri irakurketarako zaletasuna sortaraztekoak bai dira.

TOBERAK, Lhanderen eleberrian

Pierre Lhanderen *Yolanda* (1921) eleberriaren azken kapituluan, Joanes Azturiagakoa eta Yolanda Urdanibiakoaren ezkontza ospatzeko, tobera jotzeak jartzen ditu Hondarribian. Herri honetan inork ez du egin ohitura horren bilketarik. Entzutea dudanez, mende honen hasieretan oraindik egiten omen ziren. Bada hortaz oroitzen denik Klaudio Sagartzazu “Satarka”ren famelian, zeren gurasoena bai zen Brunenia ostatua eta bertan ospatzen ziren ezkontzetan egiten omen zituzten tobera jotzeak. Eta urte horietan hemen bizi izan zen P. Lhande egitea.

Eleberriaren barnean ondo ekarria da, baina ikus ditzagun tobera kanta horiek nondikako sustraiak zituzten.

Izan ere, toberak ezagunak ziren goinafarrera hizkera egiten zen zenbait tokitan. Bereziki, ola zaharren inguruan. Alde hortatik Hondarribia bera ere ezin dezakegu baztertu.

Aita Donostiak (Jose Gonzalo Zulaika bere bataioz) Lesaka, Bera, Sunbilla, Orotz-Betelu eta Iruritan bildu zituen toberak, kantaz eta doinuz, ikus Eusko Ikaskuntzak argitaratu zuen bere *Cancionero vasco* delako bilduman, VIII, 1994, 1329-1333 orrialdeetan.

Tobera jotzearen ohiturak lehenik bildu eta aztertu zituen Manuel Lekuona zena genuen, eta bilketok bere sorterri zuen Oiartzunen eginak. Hortaz, bere lehen lana, “Las toberas. Descripción y datos históricos de ésta costumbre popular”, *Euskalerrriaren alde*, X (Nº 194), 1920, 41-53. orrialdeetan argitaratu zuen. M. Lekuonaren testu hortan oinarritu zen Azkue “Las Toberas” izenpean *Cancionero popular*

vasco-ren (1919 ?), VI. alean, 558-567. orrialdeetan. Geroago Azkue berak egiten dio beste aipamen bat *Euskalerrriaren Yakintza*-ren I. tomoan (1935), 462. orrialdean. Baina, ez batak eta ez besteak, inoiz ez dute aipatzen Hondarribian ere egiten zirenik.

Eusko Ikaskuntzak 1930ean herri arteeri buruz Bergaran antolatu zituen jardunaldietara “La poesía popular vasca” zeritzan txostena aurkeztu zuen Manuel Lekuonak. Ikus *V Congreso de Estudios Vascos. Arte popular vasco* (Donostia, 1934), non datorren 147. orrialdean toberen aipamena eta 166-167.ean jasotzen du kanta.

M. Lekuonak bildutako kantak, euskaritxoaz gainera dituen 6 bertsoetarik bat ezik, P. Lhandek *Yolanda* eleberrirako jaso zituen, bere asmoz eta gogoz euskara zerbat txukundurik. Hartu ez zuen bakarra, 5. bertsoa izan zen.

Baina beste sei bertsoei gehitu zizkien Hondarribiari zein eleberraren gaiari erantsirik, Yolanda andereñoaren korte-jatzaile ibili zen atzerriko Philippus Jordaens flamendarraren aurka jarriak.

Hara hemen Pierre Lhandek gehitu zizkienak, bere eleberriko pertsonaien ahoetan jarriz, honako bertso hauek idatziz:

“Eta horra non, zelai atzean, beste olerkari zahartzo bat dagoen, txapela eskuan. Basoko otartean dijuan ur txirriparren soñu bezain arin eta garbia dauka botza, eta honek dio”:

*Atzerriko belatza
Gipuzko'n da sartu
Hemengo uso xuri bat
Nabiz arrapatu;
Atzapar egin eta
Gorde nahi izan du.*

*Baina ebiztari gazte bat
Begiz erne zagon;
Belatzari bizitza,
Jo-ta, kendu zion
Eta uso maiteari
Azkatasuna emon.*

Hari erantzunez, "Saraarra pixkabat gogoratuta, berritz bere sailari lotu zitzaion":

*Geldi zaitezte bada
Biok elkarrekin,
Jainkoak dizuela
Betikoz atsegin:
Kabi eder horretatik
Ez itzurik egin.*

*Ta berritz Gipuzkora
Belatza baletor,
Zuk, ebiztari pixkorra,
Jo zazu, jo gogor,
Aberriko txoriak
Azke daudezten hor !*

"Eta Azturiagarrak abestu zuen":

*Ez izan beldurrikan
Adiskide zaharra.
Belatza, biburtzeko,
Oso dago txarra:
Hegak moztu dizkiot
Ta ebaki atzaparra.*

*Baina berriz hobitik
Jaikiko baledi
Gure olako gabia
Ez legoke geldi;
Burua hari lertzeko
Hor dago Urdanibi !*

Jarraituko du esanaz: “Kopla sutsu horiek aditzearekin, zelai guzian gora ! eta gorak ! altxatzen hasi ziren eta hiru pertsularien gudua ezin amaituzekoa zela zirudien”.

Nahi duenak kantatu ahal izateko, Manuel Lekuona zenak bildutakoen doinua ezartzen dut.

Bukatzeko, oroi dezadan Nikolas Ormaetxea “Orixe” berak ere, zihurrenik, horietarik argudioz hartu zuela *Euskaldunak* (1950) poemara toberak eramateko. Ikus poema liburu horren 488-491. orrialdeetan. Baina, esan beharrezkoa zait, zuzenean ez dutela ezer ikustekorik M. Lekuonak bildutakoekin; “Orixek” bere kabuz bertso berriak asmatu bai zituen.

1 *Lento*

Andante

Acelerando



47.

KLAUDIO SAGARTZAZUREN MENDEURRENEAN

1995. urtean bete zen Klaudio Sagartzazu "Satarka" hondarribiar olerkariaren mendeurrena eta ezer idatzi gabe uzterik nahi ez nuenez, *Hondarribia* aldizkariaren 61. zenbaki hartan argitaratu nuena hemen jasotzen dut.

Oraindik gazte eta euskaltzale berria nintzen Eibarren Peli gernikarraren eskutik *Txinpartak* (1922) zeritzan liburua ezagutu nuenean. Peli hura ofizioz zurgintzan ebanista horietakoa zen, abertzale sutsua zelako Gernikatik desherri-ratua zen eta dotrina liburuaren gisa erabiltzen zuen "Satarka"ren *Txinpartak*.

Peli, bere sentipenean, "Satarka"ren aberkoi olerkiekin burua bat eginik ibiltzen zen Eibarko kaleetan zehar. Askorentzat arriskutsua zen harekin ibiltzea eta maiz, ilunabarretan, bakarti ikusten nuen ahopean "Satarka"ren olerkiak kantatuz. Gerraondoak zoritxarreko bizitzara eramán zituen gizon samindu horietakoa genuen Peli zeritzan hura, fran-

kistek begitan hartua eta abertzaleak baztertua konprometi-
garria zenaren ustetan; bakarti, baina oroimenak zituen
gogozko lagun eta *Txinpartak* liburua kontsolagarri.

Klaudio Sagartzazu "Satarka"ren *Txinpartak* liburu hori
ez zion nornahiri uzten, ez horixe; zeren hain gogoko zuen
bere sentipenetako liburu bai zen. Baina, behin, niri utzi
zidan, euskaraz irakurtzeko zaletasun bizia neukala ohartu
zenean. Egia esan, euskaraz irakurri nahi eta euskarazkorik
ezer guti aurkitzen zen garaia zen hura.

Liburu ireki eta bat batean Piarres Lhanderi eskaintzen
zion "¡ Agur, oleski samurrak !", aitonaren oroitzazko oler-
kia, tartean non dakartzan hiru bertso Solferinoko itsuare-
nak, aitonagandik ikasiak eta han aitortzen du hortik sortu
zitzaiola olerkigintzarako zaletasuna. Ondotik "Aurtxo
seaskan", J. Olaizolaren musikaz ordurako ezaguna nuen
kanta. Hirugarrena "Arraunketa", ezin ba hondarribiar jator
bat itsasoaz ahantzi. Lirikan murgildurik abiatu nintzen libu-
ruaren barnera. Aberkoiak anitz dira, baina enarak, lorak eta
natura osoa ditu maite; bestalde, Victor Hugo eta Heinegan-
dik itzuliak ere bai.

"Itzea" Pio Barojari eskainia, hunkigarria baldin bada, ez
da gutxiagorako "Ama berbera", Bidasoaz bestaldeko anai
euskaldunei buruz:

*Zuek eta guk egizko Ama
Eder bakarra daukagu
Gogo guztitik, biotz-biotzez,
Bear duguna maitatu
Bear duguna maitatu...*

*Anai maiteok: batu gaitezen
Euskoak geran aldetik;
Aberri Ama, jarri dezagun
Beste guztien gainetik
Beste guztien gainetik...*

Urte batzuk geroago lortu nuen, Juan Arbelaitz liburu-zahar saltzaileari esker, *Txinpartak* liburuaz jabetzea.

Klaudio Sagartzazu "Satarka" Hondarribian jaio zen 1895. urteko urriaren 30ean eta hemen bertan hil 1971ko azaroaren 23an. 1966an Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuenez, bere hilberria ematea tokatu zitzaidan batzar batean eta *Euskera* agerkarian dator, 1972ko alearen 285. orrialdean.

Klaudio Sagartzazuk 1918 eta 1920. urteetan Donostiako olerki sariak jaso zituen, eta garai berean Nafarroa Behereko Iholdin ere bai.

Ospe handiaren jabe zen, baina gerrate eta gerraondoko isilune luzea nabaria da bere bizitzan. Isilaldia bukatu zitzaion 1957. urtean Valverde bere irudi eta Manuel Lekuonaren hitzurrez argitaratu zion *Intza begietan* plazaratzean. Bere bigarren liburua, Antonio Valverde, "Ayalde" izenordea erabiltzen zuen, marrazkietan bezala literaturan ere. Hain zuzen, 1995 hortan betetzen ziren 25 urte "Ayalde" hil zela.

Intza begietan delako honek hizlaurzko erdal itzulpena dakar. Liburua olerkiz osatua da, baina garaiaren ezaugarri, aberkoirik ez du. Euskaraganako samindurak ere ez zuten lekurik frankisten garaian.

Baina olerkariaren bihotzean beti bada zer goraipatu, zer maitatu eta zorionez bere hiriarentzat bada aski leku:

Agur, nere erri zar, Ondarribia...

Agur, Ama on ta maite-maitia !

Biotz-barruan

Gorderik dedan

Maitasun sutsu eta anitz garbia,

Ziñez agertu nai dizut gaur bertan,

Itz neurtu, gozo ta ezitsuetan.

Liburu hori argitaratetik laster egin nuen lagun Fernando Artola "Bordari", lehenagotik adiskide mina nuen bere

anai D. Rafael Artola Eibarren apez zelarik. "Bordari" k gomidatu nindun Hondarribira, "Satarka" pertsonalki ezagutu nezan eta hirurok otordu ederra egin genuen hemen, San Pedro kaleko ez dakit non, baina nire gogoan bete ez ezik asetu nuen elkarrekiko hitzaspertu hartan.

Antonio Valverde "Ayalde", besteak beste, esan dudanez, artista eta idazle bikaina izatez gainera zenbait olerki ondu zituen. Horietako bat, *Ibar ixillean* (1970), non datorren Xabier Aranburu Sagartzazu, K. Sagartzazu "Satarka" zenaren ilobari ezkontza egunez eta osabaren oroitzapenez eskaini zion olerkia, haren hasiera izan bedi artikulu honen amaiera:

*Zeruak jo baitu Udan amaia
Udazkena dator, Satarka anaia;
Agorrari dagokion garaia,
zure Udaberria bezin alaia.*

Oharra: Baina, oraingo honetan aipatu beharrezkoa iruditzen zait geroztik argitaratua den "Satarka"ren hirugarren liburua. Bere paperen artean azaldu ziren olerki argitara gabeetaz osatzen dena. Hondarribiko Udalak 1996an Elkar argitaletxearekin emana da: *Ezti-tantak* du izenburuz.

Liburu horrek, Javier Sagarzazuren irudiak ditu edergarri, hitzaurrez ni neu arduratu nintzen, argitalpen prestakera Txomin Sagarzazuri zor zaio, Xabier Aranburuk olerkariaren bizitzaz ari da eta Juan Mari Lekuonak azterketa literarioa egiten dio.

48.

FLORENTINO PORTU, HONDARRIBIKO KRONIKAGILEA

Pertsonaiaren oroitza utzi nahi nuke, hiriko historiaz zor dioguna ordaindu ezinezkoa denez. Ber-berak bere bizitzaz Ioni kontatua ikus *Hondarribia* aldizkariaren 16. zenbakian (1987), 6-7. orrialdeak.

Larogeitahamasei urte beterik hil zitzaigun Florentino Portu Iribarren hiritar leiala. Agur eta ohore gizon zintzoari eta bego, espero zuen bezala, Jaunaren lorian.

Hondarribian ikusi zuen munduko lehen argia 1898ko maiatzaren 25ean. Bertan egin zituen ikasketak apalak izaki, baina denboraren buruan bulartsu arituz hartu zituen gizon-tasunaren mailak, ekintza apalez eta herriaren alde gogotsu agertuz herikideen bihotzak eta errespetua irabaziz. Ikasketa apalak, esan dudanez, Gurutzako Alaben eskolan eta Biteri-koetan egin zituenak, Ambrosio Saseta maisuaren oroitza-pen ona betirako zitzaiola. Ikasketa apalak noski, bizitza bera ere apaltasunean eramango zuen gizonarentzat, arian

ariango lanari jarraituz, jakitunagoen gainerik jarri zen Hondarribiari buruzko historiagintzan.

Aipatu dezadan, historia agiriaren bilketaz gainera, bere hiri honentzat musika alaitasuna ere eskaini zuela, zahar-gazteen bihotzak piztuz eta poztuz. Hortarako, solfeo ikasketak egin zituen eta 1908. urtetik bertako Musika bandako izatera iritzi, eta handik sei urteren buruan txistularitza ere zintzo bete zuen.

Herriko Etxean sekretaritzan laguntzaile sartu zen hamairu urte bete orduko, bizitzan ogibidezko lehen lanpostua lortuz, eta lanerako borondaterik ez zitzaion falta, mutil arduraduna izakiz. Inguru hauetan hain oroitzapen ona utzi zuen Navas jaunaren babespean lan egin zuen, eta hau Oiartzungo udalera aldatu zenetik, Portu bera jarri zen idazkaritzako lehen arduradun eta hori ez ezik interbentoretza lana ere bete zuen. Berrogeita hamaika urtez bete zuen Udaleko langiletza, beti kementsu eta bertako historiaz kezkatu. Serapio Mujikak Udaleko artxibategia egokitzetik aukera ona eskaini zuen ikerketarako eta bide hortatik abiatu zen gizonik leialena genduen Florentino. S. Mujikaren itzala eta gidaritza beraganatuz eta artxibategiko zirrikitu guziak ikerituz lortu zituen historia lanerako iturri jatorrak. Ekintza horien fruituz, besteak beste, hor ditugu liburu argitaratuak lekuko.

Lanetik jubilatuta ondorean burutuak, berak zioenez: “Jubilatu nintzenez, pentsatzen egon nintzen, *zerbait lajatu behar diot herriari*, oroimena izateko; hainbeste urtean herriko *jendia ere nerekin beti oso ondo izandu da eta ni ere bai harekin*. Eta pentsatu nuen, *egin behar det Hondarribiko historia bildu, eta liburu bat egin*. Eta handik hasi nintzen pixkana pixkana lanian”.

Hara hor bere fruituak: *Fuenterrabia. Notas históricas y curiosidades hasta 1969*. Hondarribian bertan 1975. urtean bere kontura argitaratua. Bigarren argitalpena, zenbait alda-

kuntzarekin, Donostian 1989. urtean Gipuzkoako Foru Aldundiak Hondarribiko Udalarekin argitaratu zuen. Uhar-tze zabala erakusten digun historia orokorra benetan.

Frantsesek 1638an hiriari jarri zioten hesi harek kronika-gile asko izan zituen eta liburu ugari bada hartaz publikatu-rik. Baina Florentino Porturena agertu artio historia orokorki hartzen zuenik deus, Conde del Llobregat-en *Fuenterrabia* (1930) edo hain gogoangarri zaigun Luis de Urantzuzenaren *Lo que el río vió* (1955) kendu ezkeror.

Bestalde, handia zen Florentinok Guadalupeko Amaren-tzat ukan zuen debozioa eta elebitara eskaini zion liburu bikain bat: *Santuario de Guadalupe - Guadalupeko Ama*, Hondarribian, 1978an, F. Artola "Bordari" zenaren hitzaurrez.

Idazlan horiek handiak izanagatik ere, askozaz gehiago da Florentinok bildua. Adibidez, 1992ko ekainaren 6an, heriotza biharamunean, hileta elizkizunak ospatzean, D. Martin Iturbe erretore jaunak bere predikuan gogoarazi zigunez, 1960. urte inguruan 4 tomo handi eman zituela parroki nagusia den Asuntzioko Andra Mariaren artxibategi-
ra, eliza honi buruzko historiaren bildumaz.

Gizona, bere fruituetatik ezagun.

Aspaldi galdu zen, zoritxarrez, hirietan bertako historiaz gogoz aritzen ziren gizonak ohorez "Cronista oficial" izen-datzekeo ohitura eder bezain beharrezkoa zena. Ondotik his-toria soilaren gainean ez ezik hiriko ondasunetan Udalaren aholkulari izaten zena. Lastima Florentino horren jabe ez izatea, zeren arte-historiaz hainbeste ondasun zuen Honda-ribiak hain beharrezko duenez Udalaren kontseilari gisa.

Zer gutiagorik herriaren alde maitasunak eraginik deuse-
ren trukean lan egin duten gizonen merezimenduz? Hoka-
koei ez diruaren interesik aipa, alperrik litzake, kontzien-
tziaz leporatu zuten lana bai dute beste ezer baino lehen.
Horietarikoa genuen Florentino Portu Iribarren ere, gaztaro-

tik Hondarribiaz arduratu zena eta zahartzaroan altxor bikainik utzi ziguna.

Titulurik gabe, baina egizko izatez, horietarikoa genuen Florentino. Horregatik, izendapenik gabe ere, aurrerantzean Hondarribiaren historia igaroaz zerbait jakin nahi duten guziek kontutan hartu beharko dute Hondarribiko egiazko kronikagilea.

49.

AINGERU IRIGARAY-ren MENDEURRENEAN

Iragan ekainaren 24 eta 25ean bildu zen Euskaltzaindia Etxarri-Aranatzen, Aingeru Irigaray eta Victoriano Huizi nafar euskaltzaleen mendeurrenak ospatzeko. Lehenengoaren jaiotzako mendeurrena bere etengabeko langintza kontutan hartuz eta bigarrenaren *Gramática Bascongada* argitaratzearen ehun urteak betetzeaz.

A. Irigaray mediku eta euskaltzale bikainak euskal gaiez hainbat lan burutu bait zituen, bai euskaraz eta bai gaztele-raz. Horregatik, Euskaltzaindiak 1929an izendatu zuen urgazle eta 1941ean euskaltzain oso.

Aingeru, Bidasoako Beran jaioa zen 1899ko martxoaren 1ean. Hondarrribian mediku izan zen. Politika ez zuen hain gogoko, baina hala ere, frankisten aurrean bere euskatzaletasuna zuen pekatu nagusia eta J. M. Satrustegi jaunak ongi zioen bezala, “jauntxoek bekaizkeriek azpiorra eginik” gizonak bere burua Iruñetik aldetzera behartua ikusi zuen. Berro-

geigarren hamarkadaren haseran honera etorri beharra izan zuen, Zuloaga kaleko 10.ean, Gabriela-enea deritzan etxean kokatuz. Nonbait, gertakari hori ez zuen hartu hain gaizki, zeren Jabier Aranburu adiskideari maiz aitortu zionez, zoriontsu agertzen omen zen Joanes Etxeberri Sarakoa mediku izan zen herri hontan bere burua ikusteaz. Hiruzpalaur urte hemen egin ondorean Donostiara aldatu zen, baina bere gogoak beti jarraitu zuen Nafarroa eta Bidasoa inguru hontara begira.

Horregatik iruditzen zait *Hondarribia* aldizkari honetan, laburki bederen, on zaigula gizon ospetsuaren berri ematea.

Barcelona, Paris eta Alemaniako Friburgon egin zituen medikuntza ikastaroak. Pablo Fermin Irigaray Goizueta (1868-1949) sendagilea zuen bere aita, "Larreko" izenordez euskaraz idazten zuena. Aita honengandik jaso zuen Aingeruk euskaltzaletasunaren zuzia eta pizturik iraunarazi zion bere bizitza guziaren zehar.

Bere bizitzan, euskarak, bereziki Nafarroako euskarak, oso kezkatua zen. Min hori barnean zeraman estudiante garaian ere. Hor aurkitzen bai zuen gure herriaren nortasunik jatorrena. Horren lekuko, Justo Garate bergararra eta Fernando Zuloaga eibartarra ezagutu nituen, nortzuk behin baino gehiagotan aitortu zidaten Barcelonan elkarrekin ikasketak egin zituztelarik nola txertatuz piztu zioten euskaraganako kezka, herri bakoitzak bere sustraietatik mundu orokorrera begira jarraitu beharrezkotzat. Hola ulertzen bai zuen bere eta guzcion kulturgintza.

Aingeruk gaztetatik ekin zion gure kulturaz euskaraz zein gazteleraz idazteari. Gerra aurretik ekin zion Donostiako *Argia*, *Argiaren egutegia*, *Yakintza* eta *RIEV* (*Revista Internacional de Estudios Vascos*) aldizkarietan idatziz. Batzutan "Irular" eta gehienetan "Apat-Echebarne" izenordeak erabiliz. Gerraondoan ere bide beretik jarraitu zuen, *RIEV*, *Gure Herria*, *El Bidasoa*, *Elgar*, *Euskera*, *Herria*, *Bol. R. S. V. de los Amigos del País*, *Diario de Navarra*, *Zeruko*

Argia, *Principe de Viana*, *Fontes Linguae Vasconum* eta abarren. Lan bakoitzaren zehaztasunak Jon Bilbaoren *Eusko-Bibliographia*-n leku zabala hartzen dute, ikus besterik ez dugu IV. liburukiaren 418-419. orrialdeetan eta IX. liburukiko 580-581.etan.

Alemanetik gaztelerara itzuli zuen H. Schuchardt-en *Primitiae Linguae Vasconum* (1947); bilduma lana *Cuentos populares vascos - Euskalerriko ipuiñak* zeritzana J. M. Barandiaranen folklore lanetatik zabalkundezkoa (1957); hitzaurrez eta oharrez, *Prosistas navarros* Larreko eta Manezaundiren lanetarik (1958); *Geografía histórica de la Lengua Vasca* (elkar lanean, 1960); *Poesías populares de los vascos*, bi liburukitan, F. Michel-en lanetatik itzuliak (1962); “Esbozo bio-bibliográfico de Literatura éuskara profana” lan luze bezain ona *Príncipe de Viana* aldizkarian (1965); *Noticias y viejos textos de la “Lingua Navarrorum”* iker lana (1971); eta, *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra* deritzan beste iker lan bat (1974).

Azken liburu horretan Bidasoa inguruko zenbait ikertan azaldu zituen, horien artean: “La Botánica vasca de Lacoizqueta”, “Corsarios y balleneros. Pelot” (Hendaiaiko Etienne Pelot zenaren ekintzetan oinarrituriko lana, 139-151. orrialdeetan ikus daitekenez); “Fiestas de Mayas”, “Yoyak del Baztán” eta abar. Horiék, behar bada, bere sorterri zuen Bidasoako Bera eta Hondarria honetako egotaldiarekin ikustekorik bazuten. Gainera, *El Bidasoa* aldizkarian ere kolaboratu zuen: “Un partido internacional en Irún”, 1957an eta “Ihauteri solas”, 1959an.

Bestalde, 1969ko ekainaren 28an, Irungo Udalak irakaskintzarako antolatu zuen sariketan, “Gayarre kantari” zeritzon hizlaurko bere lana saritu zuen.

Baina, horiez gainera, bakoitzari bere kabuz euskara ikasten laguntzeko metodo antzerako liburu bat burutu zuen, *Jostatuz, mintzaira ikas* (1966) zeritzana.

Julio Urkixo Mintegiaren sortzailekide zen. Eta 1953. urtean *Egan* aldizkaria euskara hutsean hasi zenetik, bere zuzendaritzakoa zen, Antonio Arrue eta Koldo Mitxenarekin batean. Hurrengo urtetik eman zion hasiera "Naas-maas" deitu sailari, baina hortik aparte bestelako ikerlan asko agertuz. Zeren bere ardurapeko sail hori ez zen *Egan*-en betetzen zuen lan bakarra, bestelako literatura saiorik ere burutu zuen. Maite zituen bilketak, ikerlanak, kritikak, sorketak, itzulpenak eta guzti hoiien zabalkunde lanak.

Zer gehiago eskatu geniezaioke mediku bati ? Gizonen osasunez bezala arduratu bai zen gure euskararenakin. Maitasunaren eraginezko gogo kementsua agertu zuen. Eta hainbeste lan egin zuen gizonari, bere semeek heriotzako irtagarpena hautatzean, ondo egin zuten Etxahun Iruriko Ziberukoaren esaldia jartzea: "... ez bazintüdan hain maite üken oi ama Üskal-Herria".

50.

**SALBADOR ZAPIRAIN “ATAÑO”
JOAN ZAIGU**

Errenteriko Bordazar baserrian sortua zen Salvador Zapi-
rain Ezeiza, bere idazkietan “Ataño” bezala hain ezaguna
genuen idazlea. Bere azken urteak igaro dituen Hondarri-
bian hila da, 87 urte zituela, 2000. urteko urtarrilaren 2an.

Joxe bere aita eta osaba Juan Kruz bertsolariak zituen eta,
berak ere, bere lehen ekintzak bertsolari gisa eman zituen.
Hala ere, berandu baina oso kementsu hasi zen euskaraz
hizlaur idazten eta etenik gabe jarraitu du heriotzara arte.

Gaztetxo zelarik sartu zen Saturraranen eta Gasteizko
seminarioan jarraituz apezgai. Han ezagutu zituen M.
Lekuona eta J. M. Barandiaran irakasteak. Baina Filosofia
ikasketen bigarren urtean utzi zuen seminarioa.

Zortzi anai zituen eta 1936an gerra-zibila hasi zelarik, bi
anai gudariekien joan zirelako, Bordazar baserriko famili

guzia atxilotu zuten. Lehenik San Markosen eta gero Ondarretan egon zen Ataño. Han ezagutu zituen bere lehen ezbeharrak, abertzaleak zirelako bi anai fusilatu zituztenean, eta bera ere noiz hilgo zuten zai. Gero Iruñeko San Kristobalen jarraitu behar izan zuen, eta bertatik ihes egitea gertatu zenean ere heriotzatik hurbil ikusi zuen bere burua. Zenbait urte presondegian egin ondotik itzuli zen baserrira.

Ez zuen inorentzat gorrotorik eta handik laster, gogozko zuen fede zintzoari jarraituz, Kaputxinoen ordena hautatu zuen eta Donostian, Lekarotzen eta Hondarribiko komentuetan, lego mailan, oso apal emango zuen bere bizitza eredugarria.

Hautzaro eta gaztaroaren oroitzapenetan bere aitaren berriak ere idatzi zituen *Txantxagorri kantaria* (1979) deritzan liburuan eta ondotik zetorren *Txori* (1981), hitzaurrean Antonio Zabalak zioen bezala, “*Txori* esaten zioten mutil gazte baten gertaerak eta ibillerak eskeintzen dizkigu. Gai ori nundik duan, lenengo atalean ederki adierazten digu: txikitan su ondoan entzuna omen du, garai artan euskal sukaldeetan olako asko kontatzen zan eta”.

Gero, presondegiko urte ilun bezain tristeetan oinarriturik *Espetxeko negarrak* (1984) eta *Zigorpean* (1985). Bi liburu hauen erreseñak eskaini nituen *Egan* aldizkarian, 1986ko 3-4-zenbakiaren 210-213. orrialdeetan. Han nioen bezala: “Ataño”, liburu hauen egilea, maleziarik gabeko gizona nonbait, eta esperientzia izugarriak bizitzera iritsi zena. Heriotzara kondenaturik. Berak zioenez: “...utziak izan ginalako, al zutenen partetik. Nai zutenak, berriz, ezin ziteken”. Gauero atea noiz joko, patiora atera eta paretaren kontra afusillatuak izateko. Gauero, hots berdina: “*Está usted liberado, prepárese*”, esaldi maltzurra entzuteko bel-durrez, gezurrezko dei horren ondorena bai zen heriotza. Sineskaitz zaio hiltzaileak katolikoak izatea, eta salatzailea auzoa edo ahaidekoa: “*Homo homini lupus* esan zuenak, bazekien, nik orain arte ez bezala, gizonen griñaren berri.

Neri ere ederki erakutsi zidatek orain”. Eta horrela joango zen ilusioak galduz. Zeren, berak aitortzen duenez: “Beren sasoirik onenean, ogei ta zortzi eta ogeita bederlatzi urterekin, joan itun erru gabeko nere bi anaiak”. Bigarren liburu horregatik nioen: Gerrateko kronika gisa idatzi direnetan, berrogei urtetan, alde batekoak baizik ez dute izan zerbait idazteko aukera eta diktaturaz bukatzean ongi zela bestaldekoegandik ere kontatzeko bizi direnak zerbait esatea. Eta hau izan da Atañoaren bete beharra.

Han zen, San Kristobalen, 1938ko maiatzaren 22ko ihesa gertatu zenean. Kapitulu hori du bizienetakoa. Hori eta horren ondorioz datozen eraso eta ihesaren biharamuna. Ihesaren ondotik, afusillamentuez gainera neurri gogorak hartu zituzten. Hortaz zerbait bagenekien, han ziren zenbaiti ahoz entzuna. Oroitzen naiz, besteak beste, Fernando Zuloaga eibartar medikua (Inazio pintorearen iloba) han preso zelarik bere ofizioa nolabait betetzen zuela preso eta eri zirenen alde. Hala ere, zeldan zituen liburu guziak kendu zizkiotela. Bat baizik ezin omen zen eduki eta hauta zezala. Berak, eskuartean beharrezko zitzaion *Consultorio médico*-ren bi tomoak eskatu eta bat bakarrik eman, “*Cuando lea el primero ya le daremos el segundo*” esanaz. Halakoak ziren beren ustez zibilizazioa zekartenak. Ongi zioen Ataño: “Militar aien joera, jolasean dabiltzan umetxo batzuen uan. Zoritxarrez, umekeri gaixtoa”.

Handik Orduñako presondegira aldatu zuten “Ataño”. Libertatean jartzeak etorri ziren garaian ere politikak dira bere kontaerak, gailego bakar soil hura atera zenekoa adibidez, hainbeste denbora kartzelan eman ondorean nora joan etzekiela: “Nora joango nauk ? Emaztea bi aurrekin utzita sartu niñun; geroztik beste bi jaio dituk”. Edo kartzelako bikario hark uste zuena, San Pedroetan askatasuna izango zutela agintzeaz, zeruko ate zaina bazen kartzelakoan ere ikustekorik izango zuelakoan. Maila horretara jeisten bai zuten apostolua ere.

Kartzelatik irtetzean Orduñako geltokian artzai karlista bati entzuna ere ez zen txarra: "Zuek eta gu, beste katolikorik etzegok España'n". Pentsa, hil da gero, salda bero.

Horien ondotik bizitzaren oroitzapenezko beste hauek argitaratu zituen, *Eltzaorra* (1985) eta *Odol-kutsua* (1986).

Gero, aurreko liburuokin ikustekorik duten eleberrigintzari eman zion, lehena Hondarribian oinarritua da, nekazari eta arrantzale giroan, izenburuz *Maitasunaren lanak* (1988) deritzana. Ondotik, gorrotoen aurka, *Maite itzazute etsaiak* (1989) bere kristautasun garbiaren lekuko, *Aztia usnari* (1990) eta *Azkeneko saskigileak* (1991). Gure jatorriaren etorkizunez berakin zituen zalantzak eta, galderazko izenburuz, beste honako hau eman zuen, *Nora goaz?* (1994), honako bertso honekin hasten zuena:

*Lurraren pujak bideak itxi
orain inor ez baidabil,
garai bateko gurdibidea
ezin igarorik nabil.
Endalar, sasi ta piñupean
baserri xar bat or urbil,
ez txakur-zaunka, ez aur-jolasik,
ez bei marru, ez iskanbil,
bakar ta utsa nere sortetxe
maitea ain dago ixil.*

Baina, 1994ko urtarrilaren 14an berebiziko omenez Hondarribiko Udalak seme-kutun gisa hartu zuen, ohorerik ez zitzaion faltatu, eta Juan Antonio Letamendiak urte bereko maiatzean egin zion elkarrizketa bikain bat argitaratu zuen *Hondarribia* aldizkari honen 53. zenbakiaren 25-27. orrialdeetan.

Lotsaren iges (1995) deritzan eleberrian ordea, ezkongaberik haurdun gelditu zen neska gaztearen zoritxar errugaria du gai.

Hor ez ziren bukatzen bere lanak, zeren horien ondotik datoz beste batzuk ere: *Askatasun billa* (1999) eta, agian, liburugintzan hainbeste lagundu dion Antonio Zabalari esker, laster izango omen dugu *Gorrotoa ondareztat* deritzan idazlana era. Horrez gainera, Ebanjelioen arabera eginiko Jesusen bizitzazko bertsoak ere laster izango omen ditugu.

Denok dugu zer ikasirik hain bihotz oneko idazlearengandik. Emaitza oparoa benetan gure gizonak utzi diguna, bere hizkera herrikoi jatorrez da eta kontraera bikainerako trebesiaren jabe zen. Bere liburuetan hainbeste lekukotasun utzi digun Ataño nekez ahaztuko zaigu euskaldunon bihotzetan.

Ondo erakutsi du bake-bidez zenbat egin genitzaken. Eta ondo merezia zuen urtarril honen 3an Amuteko kaputxi-noek bere arimaren alde hain egoki eskaini zituzten hiletak. Goian bego.

51.

FERNANDO ARTOLA “BORDARI” ZENAREN OROITZAPENAK

Duela berrogeiren bat urte, euskal idazleok gutti ginen, baina guttiok genituen elkarrenganako lotura estuak.

Eibarren 1959ko azaroan, Euskaltzaindiaren babespean, Juan Antonio Mogel idazlearen goresmenez antolatu genituen hitzaldiak eta gerraondoko Gipuzkoako lehen Bertsolari Txapelketa. Han zen Fernando Artola “Bordari” ere, hitzaldietan entzule eta bertso txapelketan epai mahaiko. Orduan ezagutu ginen pertsonalki eta geroztik harreman estuagoak izan genituen.

Urte haietako Bertsolari Txapelketetan epaikide ibiltzen ginen eta bere asmoz hobekuntza bikainak eskaini zizkigun, bereziki, bera izan zen “kartzelakoa” asmatu zuena; gai berdin bati buruzko bertsogintza epaitzeko, bertsolariak gela batean sarturik utzi eta banan-bana atera gai berdin hartaz bertsoak egiteko. Izan ere, zer gauza hoberik bakoitzaren irudimen ahalmena neurtzeko ?

Hirurogeigarren hamarkada hartan, euskararentzako urte ilun haietan, euskal idazlerik gehienok erabiltzen genituek izenordeak geure eritziz konprometigarriak izan zitezken gaiak idazterakoan, zeren frankismo garaiko agintariek beti zeuden adi nork zer idazten zuen, eta gure Fernando zenak, “Bordari” izenordeaz gainera, “Fedea” erabiltzen zuen *Euzko-gogoa*, *Zeruko Argia*, *Aranzazu*, *Olerti* eta beste zenbait aldizkaritan.

Hamarkada haretan, Eibarren zenbait urtez egona zen Aita Santi Onaindiak, Karmelitek Zornotzan duten Larrea komentuko klausurara urtero zenbait idazleri dei egiten zizkigun eta han izaten ginen Fernando Artola eta biok urterik falda gabe. Oroitzen naiz han biltzen ginenen artean baikorrena eta umoretsuena zela gure “Bordari”, bazkalondoan zenbait istorio zelebren kontatuz eta horrez gainera bertso eta kantaz elkarren arteko giroa alaikiro piztuz.

1963. garren urtean Arantzazun bilera zabalago bat egin genuenan, Eibarren isilpean, klandestinoki, euskal gramatika ikasten jardutzen genuen talde txiki hartako adiskideekin joan nintzen, eta Fernando Artola aurkeztu nien, esanaz: - Adiskideok, jaun hau Fernando Artola “Bordari” duzute, Don Rafael Artolaren anaia.

Harrera ona egin zioten, baina inguruko asko harriturik utzi nituen, beraientzat “Bordari” hain ospetsua zenez. Baina eibartar euskaltzaleontzat, bere anai Don Rafael zen ospetsuago, bereziki euskal gramatikaz aritzen ginenontza, zeren eskergarria izan bai zen gai hartan eskaini zigun gidarizko laguntza.

Denbora haietan, handik eta hemendik isilpean lortzen nituen euskarazko liburuak arretaz irakurtzen nituen eta horietako bat izan zen Klaudio Sagartzazu “Satarka” hondarribiarraren *Txinpartak* (1922. urtean argitaraturiko olerki liburu). Eta behin agertu nion “Bordari”-ri “Satarka” ezagutzeko gogoia. Handik lasterrera deitu zidan Hondarribian elkarrekin

bazkaltzera gomitatuz. Hirurok elkarrekin izan genuen bazkalondoko jardunaldi atsegina gogoangarria zait.

Euskal literatura bizkortu nahirik prestatu eta argitaratu nuen 1968an *Escritores euskericos* liburua eta bere 42. orrialdean Fernando Artolaren fitxa dator. Baina liburu hortako bilketagatik izan nituen Euskaltzainditik hainbeste eskari erakunde-
dean kide zirenen hilberriak azaltzeko. Horien artean ezin ba falta adiskide mina izan nuen Fernando Artolarena ere, 1961. urtean Euskaltzaindiak urgazle izendatua zenez. Ikus *Euskera*, XXVIII, 1983ko bigarren alearen 541-542 orrialdeetan argitaratua. Hor gehitzen nituen bere bizitzaren beste zenbait bereiztasunen artean argitara eman zituen liburuen berriak ere.

“Bordari”, *Tomasen buruaustea*k zeritzan antzerkiaren egi-
lea genuen. Gerratean ordea, frankistegandik ihesi herbestera-
tu beharra izan zuen eta Belokeko beneditarretan aurkitu
zuen babesa. Han ezagutu zuen bere emazte izango zen Hen-
riette, nori eskaini zion *Goraintzi* (1968) olerki liburuxka.
Ondoren zetozten *Bakoitzak berea* izenpean 1982an argitara
eman zituen bi liburu mardulak. Eta urte berean bere anai
Rafaelekin elkarlanean buruturiko *Aritz beraren adarrak* zeri-
tzan liburu bikaina.

Hilberrikoan nioen bezala, Fernandok, etsimenduz eraman
zuen bere eritasun luzea, berekiko fede sendoan oinarriturik
eta neurri handi batean pozik, eternitateko zorionean Jainkoar-
en aurpegia ikusteko eta bere bizitzako Henriette maiteare-
kin laster elkartzeko esperantzan, olerkiz azaldu zuen bezala:

*Eta
Orain banoa.
Gainean dut epea
Zer poza nerea !
Banoa:
Ikustera ene begiz
Jainkoa
ta
Maitea!*

52.

**ARITZ BERAREN ADARRAK,
ATONDOARRAK**

Fernando Artola Sagarzazu "Bordari" eta Rafael Artola Sagarzazu anaiek egin zuten *Aritz beraren adarrak* zeritzan liburua. Hondarribia hiriko Udaletxeak saritua izan zen 1977. urtean, eta 1982an Auspoa Liburutegiak argitaratu zuen.

Hor agertzen dira Artola anaiak zein kontalari trebeak izan diren. Liburu horrek ez du hutsunerik eta irakurlearentzat ez du une aspergarririk. Ez horixe !

Hasten delarik hain zibila ez zen Espainiako gerra-zibil hartatik, munduko gerratea ez ezik Dien-Bien-Phura arteko gertakariak jasotzen bai ditu koronika gisa, adar bereko ziren Hondarribiako Atondoarren fameli sakabanatuaren bidez. Gora-bera guziak hemengo nornahirentzat jakingarri.

Euskara aberatsa du, bertako hitz eta esakeraz beterik. Honako bertsoz hasia da:

Ala kinkirrinera
ala zangurrunera
Aiala Lakuonakiko
jira beste aldera
San Marzial aldera.

Ondotik hitz-lauz jarraitzeko: “Neska txiki pertxanta, *Nora* bere lengusiñari atzekalde emanaz, Irun alderuntz begira jarri zaigu. Jostatzen dabilta. Eliz-atarian; pasaderan, ain xuxen. Kale nagusiko eliz-ataritik Apezpiku-kalera dijon igarobideari deitzen diogu *pasadera* Ondarribian”.

Beheraxeago berriz, haurtzaroko jostalekuz oroitzuz: “Gainera, arri-koskor, ikatz edo kisu puskaz bereala bereiz ditezke txingo-txingoka ibiltzeko baztertxoak. Jauzika, bibikoka, kapelutxuloka edota kañikakin *putxuka* jostatzeko aukera tokia. Kukuketan aritzeko, berriz... Pasadera, pasadera! Kaletar umeentzako txokorik maitagarriena!”.

Ondorioz jarraituko du ingurua adierazten: “Kale-nagusia du aparta. Ikusgarriak dira zenbait etxetako teillatu-egalak, tankeran bipil, ausartak, trentxaz xixelatuak; burnilandu sendo ugari, ola zaharretako bitxi, balkoietan”. Ondotik dator beste honako oroitza hau: “Bidasoak (aspaldiko Almitxu edo Lamitxu?) kulun-kulunka daragio Ondarribiari. Seaska oberik! Agian orregatik izango da ondarribitarra ain idurikor, ameslari ta jostakin. Atekaldean dagon Gaztelu zarreko elgorara igoko baziña, begi utsez urruneko itxasotsaskiraño elduko ziñake; laño dagoenean, berriz, doi-doi Bayonako barraraño...” Kontatzeko era trebe horrek eramango gaitu orrialderik orrialde liburuan zehar.

Baina Atondoarrek gertakariak kontatzean, beltzak eta txuriak erakutsiko dizkigu: “Aurrak erdi goserik eta gurasoak erretxinduta, okasio-biderik ez da faltako. Gerra madarikatua! Ondoren gaiztoak dakarzikik...”

Urte latz haiek ezagutzera heldu ez ziren gazteak hor aurkitu ditzazke garai hartako ibilera nekezak eta famili zati-
ketaren atsekabeak. Aldiz, tarteka-marteka pasadizo berezi-
rik ere aurkituko dugu. Adibidez, bein batian Joxe Mari eta
lagunak egundoku arrantza eginda zetoztela, alemanen
sumarino baten larritasunetik irtetzeko erabili zuen elkarriz-
keta hura lekuko:

- Patroya, nor da patroya ?
- Ni, jauna ! -Tiopilok.
- Zer zerate ? Germanofiloak ?
- Ez, jauna, ez.
- Frankofiloak ?
- Ez, jauna, ez !
- Zerzera orduan ?
- Ni, Teófilo, jauna !

Aren algarak ! Pekin'en ere entzungo ziran. Orduantxe
giñan lasaitu pittin bat". Eta, azkenik: "*Heil Hitler*" oiuka agur-
tu zituzten, eta sumarinoa berealaxe urpean zen murgildu.

Beste une batean kontaktzen dute: "Erentzin eta Gazta-
rrotx inguruak izketan balekite ! Kaximirok eta Praxkuk noiz
nai ikusten zituzten beren buruak bazter oietan. Usinan itxu-
rak egin: ixilka azpi-lan zintzoa Frantziaren alde... Ta bide-
nabar kontrabando apurra. Orrela ateratzen zuten bizimo-
dua. Areago, erreizitentzi-taldeko ziranez gero, prantses
paperak eman zizkieten".

Garai haietan nornai edonon aurkitzen zen larritasune-
tan, eta aietako batek honela zioen: "- Anai-arrebak joan
ditezenean aterako naiz. Prantses itxura onekin iñork enau
ezagutuko. Panpinot kaletik jetxi, Patxikotz-enetik Kalistro-
eneko aldapa zear, Viteri eskola atzetik Txiplau erreka
barrena, ordu erdi bat or-or Urdanibiako oianean nago.
Badakizu; Irun'go Kaletan daukate zaitxola *txapel-okerrak*.

Ortik pasa ezkerok ez dago kuidaorik. Baina, bestelako ez ustekorik ere izaten zuten, 103. orrialdean dakarrenez, Idaho-ko euskaldun batekin aurkitu zenekoa adibide.

Eta, aliatuak Normandia itsasertzetara sartzean ordea: Euzkotar gudari-saillaren buruan, Euskadiko ikurriña lau-aizetara zabalduz sartu zen Fraxku. Sekulan entzun dan “*Gernikako arbola*” gartsu ta gogotsuena odolez bustitako ondartz aietan entzun zan. Ondotik guraso eta anai-arreberri Paristik idatzi zien gutuna dator 105. orrialdean. Irakurgarria benetan.

Baina, 110-113. orrialdeak ez dira gutiagorako. Dena dela, herrimina beti argi nabari da liburruan zehar. Itzultzean, hura zen Xinforiaroren poza. Eta, 144. orrialdean, hone-la aurkezten dute liburuaren egile diren Artola anaiek:

“Andik egun gutxitara, Amabirjiña-Eguna ! Eta Alardea ! Praka txuri eta alkandora gorritan *Gora gazteak* taldekoakin ibilli zan Xinforiano Alarde-lerrokan.

“- *Titibiliti*, - *Titibiliti*... Gora Ama Guadalupekoa !

Eresi ta sutunpa
arratz eta atabal
Titibiliti soiñua !
Biribilketa alai.

Alardea bukatuta:

Arrats beheran
etxepeko sotoan
maite-miñ aunditsua.

Oraingoan egiz:

Leer zorian
Xinforiano erdi totel;
biotza aoan ia itoa,
ezin aozkatu bere asmoa”.

Azkeneko sentiberatasuna nabariz: “Zuaitz yori, eman-
korra dirudizu, ama. Ekaitzek gogor astindutako zuaitza.
Aizeerauntsiak zenbat iñarrostuago, ainbat tenkortuago,
errotuagoa izan oi da zuaitz-ondo. Eta aritz-ekurretik aritz
arbola antzo, zuk eta aitak osatu zenuten aritz-ondoak zazpi
adar eman ditu; elkar bestelakoak izanagatik ere, zuengan
erroztuak danak, danak arizkiak: Atondotarrak”.

53.

REMIJIO MENDIBURUREN “TXORIA” AURKEZTEAN

Agur, jaun-andreok:

Pozgarria da artista baten lana publikoki bere herrian ikustea. Ez da hau lehena, baina bai oso berezia.

Artista ere ez nolana hiko. Eskulturagintzan goi mailak hartu zituena eta bere sorketa lanen gailurra harturik, unerik emankorrean aski gazte joan zitzaigun Remigio Mendiburu lagun zena.

Remigiok obra bereziak eskaini zizkigun, batez ere zurezko lanetan. Gure herriko basoetan bertan hautatzen zituen gaiak eta ohitura zaharreko teknikekin baliatuz elkar bikain mihiztatuz eskultura bikainak sortzen zekiena genuen.

Bere obretariko batzuk Euskal Herriko erakundeetan ikus ditzazkegu, euskal artearen lan eredugarritzat eta gure Hondarribiaren ohoretan.

Gaur ordea, Puntalepunta jartzen den hau, lan horien erakusgarri da: **Txoria**.

Eskultura hontan ikus genezake gure artistaren asmakizun ahalmena. Zuhaitz enborearen barnetik ateratako triangelu bikoteaz, ar eta eme, lortzen zituelarik bizitzaren sorrera eredu gisa. Bata bestearen gainean jarriz eta gainerago artista berak basoan aurkituriko zurezko txoriaren irudia itsatsirik.

Txoria. Txori hegalaria Puntalepunta pausaturik. Hegalarien eredu izan nahi du. Mugaren gainetik Europaren batasunera hega egin nahian, aldi berean, historiak zatitu zigun Euskal Herriaren elkartasunez.

Horregatik jarri da hemen, gure herriaz hainbeste gauza oroigarri idatzi zituen Pierre Loti frantsez idazle ospetsuaren "Bakar etxea" aldera begira.

Hemen gordetzen da artistaren anaitasun gogoia erakutsiz, mendeen ondotik berriz ere Bidasoa Euskal Herriaren elkar lotura izan dadin.

54.

**MARTIN UGALDE,
BETI ZINTZO ETA KEMENTSU**

Martin Ugalderi hurbildik jarraitu dionak badaki beti izan dela gizon zintzo eta kementsua. Horregatik, pozez hartu da ekainaren 28an bere sorterri duen Andoainen Rikardo Arregi kazetaritza sari antolatzaileek eskaini dioten omenaldia.

Martin, mutiko zelarik hartu zuen 1936ko gerrateak, eta adin hortako beste asko bezala, zenbait urtez familiaz zatiturik noraezean ibili beharra izan zuen.

Lehenik, Donibane-Garaziko egotaldian Euskal Herriaren beste aurpegi bat ezagutzeko aukera izan zuen, sasimuga horren bestaldeko anaiena hain zuzen. Gero, bere herrira itzultzean, ez zuen aurkitu gurasorik, ez eta gogozko girorik. Frankismoaren denbora ilunak ziren. Geroago joan zen herbesteraturik zituen gurasoekin Venezuelan elkartzera.

Ibilerok ondo aprobetxatzen jakin zuen, lana eta ikasketak eten gabe jarraituz, Chicago-ko Northwestern Unibertsiti-

tatean kazetaritzan graduatu arte. Caracasera itzuli eta Creole Petroleun Corporation-en *El Farol* zeritzan aldizkariaren zuzendaritzan aritu zen.

Horrez gainera, han bertan zenbait liburu argitaratu zituen 1956tik 1966ra bitartean. Horietako batzuk sarituak gainera. Hango giroari loturiko gaiekin ipui eta kontakizunak, humanista handien erara azalduz, *Un real de sueño sobre un andamio* (1957), *La semilla vieja* (1958) *Las manos grades de la niebla* (1964) eta abar. Edo Meridako Unibersidad de los Andes-ek argitaratu zion *Cuando los peces mueren de sed* (1963). Garai haietan hain urri ginen euskal idazleok elkarrengan genuen harremanagatik eskuizkribuzko eskaintzaz igorri zizkidan eta liburu horiek arretaz irakurri nituen.

Erderazko liburuokin goi mailetako literato ospea hartu zuen Martin Ugaldek, baina inoiz ez zen ahaztu bere herriaz eta bereziki bere hizkuntzaz, zeren aldi berean euskaraz ere idazten bai zuen.

Gainera, Ana Mari emaztearen laguntzaz, aberritik urrun, seme-alabei euskaraz irakatsi zien.

Gure hizkuntzaz kezkatuik *Unamuno y el vascuence* (1966) saiaera argitaratu zuen. Baina, esan bezala, ordurako euskal literaturaren alorrean bideak urraturik zituen. Adibidez, hor ditugu lekuko, besteak beste, *Iltzaileak* (1961), gure herri eta hizkuntzarekiko gertakariz *Ama gaxo dago* (1963), *Gurpegin aspaldi gertatua* (1965) deritzan antzerkia eta *Umeentzako kontuak* (1966).

Han era egokian bizitzeko aukera lortua zuen maila hura bertan-behera utzita aberri minak ekarri zuen; hirurogetagarren hamarkada bukatzean, Hondarribia bizilekutzat hautatuz. Hainbeste liburu eta aldizkari igorri zizkidan Martin orduan ezagutu nuen pertsonalki, Rikardo Arregiren hiletetan hain zuzen eta handik laster bisitatu nindun Eibarren. Elkarrizketa lasai eta atsegina erabili genuen, bereziki euskara idatziaren batasunari buruz.

Hemen ere kementsu aritu zen idazten, baina oraingoan kasik dena euskaraz, batez ere *Zeruko Argia* astekari hartan. Garai haretako elkarrizketa eta zenbait idazlan bilduak ditu *Batasun eta zatiketen artean* (1989) deritzan liburuan, geroztik idatzi zituen zenbait lan itsatsiz.

Ohartzen zen euskarazko irakurlegoaren urritasunaz eta suspertzeko bultzagarri izango ziren erderazko lanak ere premiagarri iruditu zitzaikion eta hara hor, 1974. urte berean, non argitaratu zituen *Hablando con los vascos* elkarrizketa lana eta *Sintesis de la historia del País Vasco*. Biak laster berrargitaratuak, bigarren hori ordea, hiru aldiz urte berean eta 1977an berriz euskarazko itzulpenez.

Baina horren ordaina ezagutu zuen. Hemen ez bai zen euskaltzale batentzat ere giro leunik eta beste bake gizon batzuk bezala, larritasunak leporatuz, hemendik Donibane-Lohizunera alde beharrean agertu zen. Zorionez, berriz itzuli zitzaigun hiri honetara, lehen bezain kementsu lanean jarraitzeko.

Geroztiko euskal lan batzuk sarituak eta berrargitaratuak izan ditu, aspaldi ez dela *Pedrotxo* eleberria bezala.

Deia egunkariaren sortzaileetariko eta bere zuzendariorde izana da. Jaurlaritzako Kultura Sailaren buruorde ere izan zen eta euskararen suspertze lanean ondo gogoan izango dute euskal idazleek beraiei legez dagokioen eskubidea gordetzeko prestatu zuen plangintza, orain betetzen ez dena. Beti jokatu bai du gaztetxotatik zintzo aukeratu zuen bide garbia, zuzentasunak eraginik eta ez bestek.

Gero *Euskaldunen Egunkaria*-ren sorkuntza bultzatu zuen eta egunkari horren kontseiluko buru jarraitzen du.

1993ko maiatzaren 28an, Euskaltzaindiak, ohorezko euskaltzain izendatu zuen. Ondo irabazia, bere emaitza onagatik. Eta orain jaioterri duen Andoainen egin zaion omenaldia ondo merezia benetan. Zorionak! Martin.

55.

ARRAINA, LINSTROTH-en IKERKETAZ

1997. urtean, Oxford-etik etorri zen John P. Linstroth floridarra, hemen arrantzaleen bizimoduaz ikerketa antropologikoa egiteko asmoz. Non-nahi egin zezakean. Baina zer ekarri zuen honera ?

Berak zioenez, Miami hirian, bere etxetik hurbil zuen Jai-alai zeritzan frontoia eta haurtzarotik galdetzen omen zioen bere gurasoei, han jokatzeko zuten pilota kirol hori nondikakoa zen, eta gurasoen erantzuna: Europan, Espainia eta Frantziaren artean den hantzinatiko herri batekoa zela. Harrezkero ez zuen kendu bere burutik Euskal Herria eta Oxford-en antropologia tesigintzarako gaia hautatzeko unean, aipaturiko bi estatu horien arteko mugan dagoen herriren bat bururatu zitzaion eta Hondarribia hautatu zuen.

Hemen, bertako gizartean ahalik egokien barneratzeko asmoz euskara ikasteari eman zion, Irungo euskaltegira astean bi aldiz joanaz eta, erabilera bizkortzeko, bere adineko euskaldun talde batean lagun sartu zen. Horrela, hile batzuk igaro ondotik, arrantzaleekin euskaraz mintzo zen.

Baina euskaraz mintzatzeaz gainera, 1997. urtea horretan bertan, *Hondarribia* aldizkari honetan ere kolaboratzera iritsi zen, arrantza eta itsasoari buruzko gaietan. Bere lehen idazlana, "Hondarribiko arrantza amerikar baten ikuspuntutik", 81. zenbakian argitaratu zena eta ondotik lan luzeago bat, hiru zatitan, "Itsas etimologiaren berezitasunak", 82, 83 eta 84 zenbakietan. Zeren, arrantzaz tesia burutu nahi zuen batentzat zer hoberik buru-belarri gai horretan jardutzea baino?

Arrantzaleekin itsasontziz ere irtetzen zen eta laster egin zen guzien adiskide. Pozez oroitzen dut kalean aurkitzen zituen arrantzaleekin euskaraz mintzatzen entzuten nuen solas bakoitza. Izan ere, gogoaren indarrez gainditzen dira maldak eta exenplu ederra jartzen zuen euskaraz ikasteko asmorik ez duten abertzale askoren aurrean.

Gainera, ikertzaile on bati dagokion bezala, mutil kezkatia zen, edozertaz arduratuz eta beti adi zegoenetakoa.

Haren harridura euskaraz *arrain*, *arrai* izen generikoa aurkitzea izan zen, eta zekarren asmoaz gainera horren ikerkuntzan ere aritu zen. Horretarako, euskaldunen antzinatiko arrantza aztertzeari eman zion, Altxerri eta Ekain harpeetako arrai irudiak eta Santimamiñe eta Lumentxako indusketetan aurkituriko arraihezurretatik hasi eta Estrabon eta Plinio erromarrek antzina hemen ezagutzen ziren batelen aipamenak eta abar, urte gutxi dela Lapurdiko Getarian aurkitutako arrain-gazitegiak arte.

Arrain izenak, Europako indoeuropear hizkuntza guzietan, latinetikako *pix* edo *picem* sustraitik datoztela ikusteaz, gaztelera *pez*, ingeles *fish* eta frantsesez *poisson* bezala, ohartu zen hemen antzinako euskara edo protoeuskara esango genukeenaren arabera *arrani*-tik datorrela. Hortik, ondorenez, *arrantza*, *arrantzale*, *arraindegi*, *arrainezur*, *arrainsaltzaile* eta abar. Gehiago oraindik, itsasotik urrutiko Erronkari eta Zuberoan, *amuarraina*-rentzat ere *arrain* soilik erabiltzen dutela.

Aldiz, larrua josteko erabiltzen den hariak duen erretxinari, euskaraz *pike* edo *bike* bezala ezagutzen denari, gaztelaraz *pez* deritzaion bezala, latinetik zetorkiola. Baina, euskaraz erretxindun hari horri soilik esaten zaio, zeren zoolo-
gian erabiltzen dena beti dela, bere sustraiz, *arrain* edo *arrai* deritzaiona.

Hiztegi eta ikerketa anitz aztertu ondoren, protoeuskara-
ko *arrani* hitzetik zetorren ondoriotasuna agertzen zuen eta horrenbestez, ikertu egin nahi zuen ea horrek zer ikusirik ote zuen Euskal Herrian arrantza bertako lehen gizonek eza-
gutzeaz. Ezingo genuke ziurtatu agiri arkeologiko eta hiz-
kuntzaren arteko lotura zuzenik. Hala ere, badirudi baietz. Adibidez, argi dago *arrain* hitzaren bilakaerak ez duela beste hizkuntzetakoekin zer ikusirik. Gainerakoek jatorri indoeuropearra erakusten dutenez eta euskara preindoeu-
ropearra izaki.

Oinarri horretatik abiatu burutu zuen *Fontes*-erako hamar orrialdeko ikerlan mamitsu bat: "Arrani, arrain, arrai. En torno al protovasco 'Arrani' y sus derivaciones lingüísticas" deritzana (ikus *Fontes Linguae Vasconum*, XXX, 1998, 397-406. orr.). Lanaren bukaeran, eraskin gisa, bibliografia zabala agertzen digu. Ezagutu nahi duenak, Udaleko Libu-
rutegian (Zuloaga-etxea) aurkituko du lan horren ale bat.

Hortik ikus ditzakegu euskarak nolako ahalmenak eskaintzen dizkigun antzinako kultura hobeto ezagutzeko.

Zorionak eta eskerrikasko John, zure irakaspen horregatik.

AURKIBIDEA

| | |
|---|-----|
| 1 - Paleolitos garaiko aztarnak Hondarribian | 7 |
| 2 - Aralardik Jaizkibelera, lehen gizonen urratsak. | 17 |
| 3 - Kelten harrespilak Bidasoaren behealdean | 25 |
| 4 - Ara erromarra Hondarribian. | 29 |
| 5 - Kornotz, erromar jatorrizko lekuizena | 33 |
| 6 - Hiri eta hiritar izenaren erabileraz | 41 |
| 7 - Hondarribiaren jatorrizko armarría..... | 45 |
| 8 - Erdi Aroko bi itsasontziren irudiak | 47 |
| 9 - Santa Katalina, XIV. mendeko erretaula hondakinetan | 49 |
| 10 - Santiago bidea Hondarribitik | 53 |
| 11 - Turkoburuarena | 57 |
| 12 - Gaztelako erregeen menperatze hura eta XVI. mendeko gudua .. | 59 |
| 13 - Lazkaoko Joanesen kanta | 63 |
| 14 - Lehen hondarribiarrak Ameriketara | 67 |
| 15 - Hondarribiko arpoilariak | 71 |
| 16 - Irun eta Hondarribia, Cuelbis-en <i>Thesoro Chorographico de las Espannas</i> delako eskuizkribuan. | 73 |
| 17 - Hondarribiko hilarri biribila. | 77 |
| 18 - Sorginak Hondarribian ? | 81 |
| 19 - Deabrua Jaizkibelen gaskoinez eta euskaraz mintzatu zenekoa... 85 | |
| 20 - Itsas-kontsula Hondarribian. | 89 |
| 21 - Justiz eta bere kondaira | 93 |
| 22 - Emakumeak salgai ? | 97 |
| 23 - Juan Bautista Zuloaga hondarribiarra Cadiz-ko katedralaren eraikitzairen bultzatzaile | 101 |
| 24 - Hondarribiko merkatariak XVIII. mendean Cadiz-en. | 105 |
| 25 - Hondarribiak Jaiotzari | 109 |
| 26 - O Eguberri gaua | 113 |

| | |
|--|-----|
| 27 - Gabon kantak Hondarribian | 117 |
| 28 - Hondarribiko alabegandik idarokitako kantak | 121 |
| 29 - "Aurtxo seaskan" kantari zenbait ohar | 125 |
| 30 - Ofizio eta tituludun etxe izenak Hondarribian..... | 129 |
| 31 - Ipiztiku | 135 |
| 32 - Hutsaren gainean huts: Elias, Eliza. | 139 |
| 33 - Cristobal de Rojas y Sandoval (1502-1580)..... | 143 |
| 34 - Franzisko Isasi eta beste bi Isasiar mugako gudueta..... | 147 |
| 35 - A. Jardine Hondarribitik igarotzean..... | 151 |
| 36 - Bandolerotzatik dantza-biltzailera, presondegian Kontzeziz maitemindurik. | 155 |
| 37 - W. von Humboldt Jaizkibel gailurrean..... | 159 |
| 38 - Joanes Etxeberri Sarakoa..... | 163 |
| 39 - Bidasoa, Martin Hiribarrenen poeman. | 167 |
| 40 - Victor Hugo Jaizkibelen euskaraz. | 171 |
| 41 - Francis Jammes, olerkari naturazalea. | 175 |
| 42 - Hondarribia, Aita Arana azkoitiarraren Egunarian | 179 |
| 43 - Euskal Herria Pierre Loti-ren ikuspegiz | 185 |
| 44 - Klaudio Otaegi Hondarribiko maisua..... | 193 |
| 45 - A. Campi3n eta K. Otaegi Olearso mendian..... | 199 |
| 46 - P. Lhanderen bi eleberri. | 205 |
| 47 - Klaudio Sagartzazuren mendeurrenean..... | 215 |
| 48 - Florentino Portu, Hondarribiko kronikagilea | 219 |
| 49 - Aingeru Irigarayren mendeurrenean. | 223 |
| 50 - Salvador Zapirain "Ata3o" joan zaigu..... | 227 |
| 51 - Fernando Artola "Bordari" zenaren oroitzapenak | 233 |
| 52 - Aritz beraren adarrak, Atondoarrak | 237 |
| 53 - Remijio Mendibururen "Txoria" aurkeztean | 243 |
| 54 - Martin Ugalde, beti zintzo eta kementsu | 245 |
| 55 - Arraina, Linstroth-en ikerketaz..... | 249 |